

KGK

Gazteak eta enplegua Euskadin 2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA 11

KG
k

Gazteak eta enplegua Euskadin 2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:	1.a 2016ko abendua
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz eta Nieves Corcuera Bilbao
Koordinazioa:	Gazteen Euskal Behatokia
Itzulpena:	IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)
Bildumaren diseinua:	Canaldirecto • www.canal-directo.com
Azaleko irudia:	iStockphoto
Maketazioa eta fotokonposaketa:	Composiciones RALI, S.A.

Aurkibidea

AURKEZPENA	9
SARRERA	11
METODOLOGIA	13
1. GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA	15
2. GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA	21
3. LAN-ESKARMENTUA ATZERRIAN	25
4. LAN-MUNDUAN SARTZEA	31
5. LANEAN ARI DIREN GAZTEEN LAN-BALDINTZAK	35
5.1. Enpleguen kopurua	35
5.2. Antzinasuna enpleguan	36
5.3. Kontratu mota	37
5.4. Norbere konturako lana	41
5.5. Non egiten duten lan besteren kontura lan egiten duten gazteek	42
5.6. Lanaldi mota eta lanorduen kopurua astean	43
5.7. Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura	49
5.8. Soldata eta soldataren gaineko balorazio subjektiboa	50
5.9. Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua	52
5.10. Lanarekiko poztasuna eta lanez aldatzeko gogoia	54
5.11. Beste enplegu bat bilatzen ari direnak	58
5.12. 30 eta 34 urte bitartekoen lan-baldintzak	60
5.12.1. Antzinasuna egun egiten den lanean	60
5.12.2. Kontratu mota	61
5.12.3. Norberaren konturako lana	63

5.12.4.	Zer erakunde motatan lan egiten duten besteren konturako langileek	64
5.12.5.	Lanaldi mota eta lanorduen kopurua astean	65
5.12.6.	Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura	66
5.12.7.	Soldata eta soldataren gaineko balorazio subjektiboa	67
5.12.8.	Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua	68
5.12.9.	Lanarekiko poztasuna eta lana aldatzeko gogoia	70
5.12.10.	Beste enplegu baten bila	71
6.	LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN EGOERA	73
6.1.	Langabezian dauden gazteen prestakuntza	74
6.2.	Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza	76
6.3.	Langabezian emandako denbora	77
6.4.	Enplegu-bilaketa	78
6.5.	30 eta 34 urte bitarteko gazte langabeak	79
6.5.1.	Prestakuntza	79
6.5.2.	Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza	80
6.5.3.	Langabezian emandako denbora	82
6.5.4.	Enplegu-bilaketa	82
7.	IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN PRESTAKUNTZA ETA LAN-ESKARMENTUA	85
7.1.	Gazte ikasleek duten prestakuntza	86
7.2.	Ikasten ari diren gazteen lan-eskarmentua	88
7.3.	Lan-bilaketa ikasle gazteen artean	89
7.4.	Ikasten ari diren gazteen baliabide ekonomikoak	90
7.5.	30 eta 34 urte bitarteko gazte ikasleen egoera	91
8.	LAN-BILAKETA	93
8.1.	Lan bila ari diren gazteak	93
8.2.	Lan bila emandako denbora eta lana aurkitzeko aurreikuspenak	95
8.3.	Lan-bilaketa 30 eta 34 urte bitartekoen artean	96
9.	ENPLEGUAREKIKO JARRERAK	99
9.1.	Autoenplegurako ekimena eta jarrera	99
9.2.	Lanbidez aldatzeko edo lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna	102
9.3.	Mugikortasun geografikorako prestasuna	104

9.4. Enpleguarekiko jarrerak 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean.....	112
9.4.1. Autoenplegurako ekimena eta jarrera.....	112
9.4.2. Lanbidez aldatzeko edo lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna.....	114
9.4.3. Mugikortasun geografikorako prestasuna.....	116
10. EMAITZA NAGUSIAK.....	123
BIBLIOGRAFIA.....	131
TAULEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA.....	133
Taulen aurkibidea.....	133
Irudien aurkibidea.....	135



Aurkezpena

Gazteen Euskal Behatokiaren konpromisoetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren gazteen egoerari buruzko informazioa ematea aldiro, eta horixe da ikerlan berri honen bidez egin asmo duguna.

Gazteek enpleguarekiko duten egoerari soilik begiratuko diogu txosten honetan. Gazteen langabezia garrantzi handiko gaia denez, 2011. urtean erabaki zen Gazteen Euskal Behatokiak azterlan bat egingo zuela bi urtean behin, gazteek lan-merkatuan sartzeko dituzten zailtasunak aztertzeko. Ordurako, langabezia-tasak oso handiak ziren.

Inkesta bat da txostenaren informazio-oinarria, 16 eta 34 urte bitarteko ia 2.000 gazteri egindakoa. Balio handiko tresna da inkesta; izan ere, enplegurik ez duten gazteak zer egoeratan dauden esaten digu, eta, era berean, adierazten digu zer baldintzatan lan egiten duten enplegua dutenek. Inkestak lantzen dituen beste gai batzuk dira, esaterako, gazteen prestakuntza, enplegurako sarbidea eta lan-eskarmentua; horrez gain, gizarte-garrantzi handiko gaiak lantzen ditu, hala nola lanerako emigrazioa.

Datuek adierazten dute eten egin dela langabeziaren goranzko joera, eta, aurreko urteetan ez bezala, handitu egin direla enplegua lortzeko aukerak. Enplegua duten gazteen kopuruak gora egin baldin badu ere, gazte gehienek enplegu prekarioak dituzte, enplegu horietako asko aldi baterakoak dira, gero eta gazte gehiagok egiten dituzte lanaldi partzialak, eta soldata horietako asko *mileuristak* dira. Egia da 30 urtetik aurrera handitu egiten dela laneratze-tasa eta hobetu egiten direla lan-baldintzak, baina baldintza horiek urrun daude bikainak izatetik.

Argitalpen berri honen bidez, euskal gazteen egoera ezagutzen lagundu nahi du Gazteen Euskal Behatokiak, hori baita politika egokiak lantzeko, politika horien jarraipena egiteko eta haien eraginkortasuna neurtzeko bidea.

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA



Sarrera

Enplegua da gazteen kezka handienetako bat, hori esaten digute gazteen egoeraren berri eman asmo duten ikerlanek. Ordaindutako enplegu bat izatea nahitaezkoa da baliabide ekonomikoak eskuratu eta emantzipazioaren bideari ekiteko, hau da, gurasoen etxetik irten eta helduaroko bizitza independentea egiteko.

Enplegua da Gazteen Euskal Behatokiak egiten duen azterketa- eta ikerketa-lanaren ardatzetako bat, Behatokiaren eginkizun baitira gazteen egoerari buruzko jakintza kudeatzea eta gazteen egoerari buruzko datu fidagarriak ematea gizarteari, erakunde akademikoei, gazteekin lan egiten duten profesionalei eta, batik bat, gazteria-politikak egiteko ardura duten pertsoneri.

Enplegua, azken urteetan, ez dago pertsona guztien eskura. 2015eko bigarren seihilekoan –garai horretako datuak aztertuko ditugu–, langabezia-tasa % 25etik gorakoa zen 30 urtetik beherako gazteen artean.

Testuinguru orokor horretan, inkestetan oinarritutako ikerlan bat egin du Gazteen Euskal Behatokiak, jakiteko zer-nolako egoera duten gazteek beren emantzipazio-bidean. Proiektu handi horren lehen zatia da txosten hau, eta gazteen okupazio-egoera aztertzen du.

Egoera horren berri izateko, zer okupazio nagusi duten, zer lan-eskarmentu duten, eta, besteak beste, enpleguaren gaineko zer aurreikuspen dituzten galdetu zaie 16 eta 29 urte bitarteko adina duten euskal gazteei. Adin-bitarte horri galdetzea erabaki da, 16 urtetan baitago ezarria lanean hasteko legezko adina, eta 29 urteko adinaren muga baitute ezarria, ohituraz, Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainian eta Europan gazteei buruz egiten diren ikerlanek. Esparrua zertxobait zabaldua, galdera horiek beraiek egin zaizkie 30 eta 34 urte bitarteko pertsoneri, aztertzeke zer neurritan aldatzen den gazteen lan-egoera adinean gora egin ahala. Guztira, ia 2000 gazteren laguntza izan dugu, guztiak ere Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnak.

Azterlan honek, gainera, luzerako ikuspegia du. Izan ere, 2000. urtetik ari gara galdera horietako asko egiten, eta, ondorioz, gazteen egoera konpara daiteke, krisi ekonomikoko urteetan eta ekonomia-egoera oneko urteetan. Beste galdera batzuek, berriz, denbora-esparru laburragoa dute, azken urteetan krisiaren ondorioz sortu diren zenbait gizarte-kezkari erantzuteko asmoa baitute.

Zenbait kasutan, gazteen egoeraren, portaeren eta iritzien bilakaera aztertzeaz gain, aldagai horiek gazte espainiarren eta europarren egoerarekin konparatzeko aukera izan dugu. Konparazio-lan hori egiteko, Europar Batasuneko Eurostat estatistika-bulegoak argitaratutako datuei begiratu diegu, Europar Batasuneko 28 herrialdeei buruzko informazioa jasotzen baitute.

Honako hau da, horrenbestez, txostenaren egitura. Azterlan honek aztertzen dituen datuak biltzeko erabili den metodologia azaltzen dugu lehendabizi, eta, ondoren, bederatzi kapitulu osatu ditugu, gazteen enplegua, enplegurako prestakuntza eta gazte langabeen egoera aztertzeke. Kapitulu horietako bakoitzean, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egoerak eta jarrerak aztertzen dira. Gai bat aztertzean, eskura baldin badaude beste urte batzuetako edo beste eremu geografiko batzuetako datuak, gaiaren bilakaera eta/edo beste herrialde europar batzuekiko aldeak adierazten dira. Beti konparatu ditugu 30 urtetik beherako pertsonen eta 30 eta 34 urte bitartekoen arteko egoerak, eta kolektibo

edo taldeen arteko diferentziak aztertu ditugu, adin-tarte batean zein bestean. Kolektiboen araberako azterketa hori egiteko aldagaiak aldatu egin dira gaitik gaira. Azkenik, azterlanaren emaitza adierazgarrienen laburpen bat egiten du txostenak.

Metodologia

Erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da, eta, horretarako, banakako elkarrizketak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietako 16-34 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. 1938 inkesta egin dira, guztira: 485 Araban, 770 Bizkaian eta 683 Gipuzkoan.

Elkarrizketak etxez etxe egin dira, eta erantzun egituratu eta itxiak erabili dira galdera gehienetan. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek eskatutako hizkuntzaren arabera.

Fase anitzeko laginketa eta laginketa geruzatua erabili dira inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura egiteko. Lehenik eta behin, ibilbide kopuru bat zehaztu da lurralde historiko bakoitzeko, eta inkestak egin behar ziren herrien hautapena lehenago ezarritako ibilbideen kopurura eta gazteen banaketara egokitu da, herrien tamainak kontuan izanik (10 000 biztanle baino gutxiagokoak, 10 000 eta 120 000 biztanle bitartekoak eta hiriburuak). Herri bakoitzean bisitatu beharreko etxebizitzak aukeratzeko, ibilbide bakoitzaren ausazko abiapuntu bat zehaztu da, eta ezarritako ibilbideari jarraitu zaio, txandakako ezkaratzetara joanda. Ezkaratz bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, inkesta bat baino gehiago egin gabe hamar etxebizitzako multzo bakoitzeko. Sexuaren, adinaren eta okupazio nagusiaren araberako kuotak ezarri dira, elkarrizketatu beharreko gazteen azken hautapena egiteko.

Landa-lan hori 2015eko azaroaren 10etik 2015eko abenduaren 1a bitartean egin da.

Egotz daitekeen lagin-errorea, lagina erabat ausazkoa izan den kasu teorikoan, \pm % 2,2koa da EAEko gazteen artean, konfiantza-maila % 95,5koa eta $p=q=0,5$.

Lurralde historiko bakoitzeko biztanle gazteen banaketaren arabera eta aintzat harturiko adin taldeetan duten egiazko banaketaren arabera haztatu dira emaitzak.

Gazteen Euskal Behatokiak du ikerketaren diseinuaren, emaitzen azterketaren eta txostenaren idazketa-lanaren gaineko erantzukizun osoa.

Landa-lana *Ikertalde Grupo Consultor* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz eman dizkion jarraibideak betez.



1

Gazteen okupazio nagusia


Gazteen okupazio nagusia adieraztean, gazteek prestakuntzaren eta enpleguaren alorretan egiten duten jarduera adierazten dugu. Irizpide horri erreparatuta, gazteen banaketa hau egin daiteke: beren denbora gehiena ikasten aritzen direnak, denbora gehienez lanean aritzen direnak, lanik gabe daudenak, eta beste egoeraren batean daudenak.

Gazteen ia erdiek (zehazki, % 46,8k) adierazten dute, 16 eta 29 urteen bitarteko adinean, ikastea dutela okupazio nagusi: ikasten soilik aritzen da % 40,2, eta % 6,6k jarduten du ikasten eta lanean aldi berean, baina ikasteari lehentasuna emanda.

Adinak gora egin ahala, nabarmen aldatzen da ikasten diharduten gazteen ehunekoa. Gazte ia guztien jarduera nagusia da ikastea 18 urte egin aurretik, eta 23 urteko adinetik aurrera, gutxiengo dira ikasten aritzen diren gazteak, gehiago baitira, adin horretatik aurrera, lan egiten dutenak.

1.irudia

IKASTEAREN OKUPAZIO NAGUSI DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOA, URTEZ URTEKO ADINAREN ARABERA



Bestalde, gazteen % 34,8k adierazten du lan egitea dela bere jarduera nagusia. Lan egiten duten gazte horietatik, % 29,5ek lan egitea du jarduera bakar, eta % 5,3k, berriz, lan egiteaz gain, ikasi egiten du.

Ikasketekin ez bezala, gero eta handiagoa da, adinean aurrera egin ahala, beren okupazio-denbora gehienez lanean diharduten gazteen ehunekoa. Adin taldeen arabera banaketari erreparatzen baldin badiogu, ikusten dugu gazteen % 4,2 aritzen dela 16 eta 19 urte bitarteko adinean lan-jardueraren batean. Ehuneko hori % 28,6ra igotzen da 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, eta, azkenik, erdiak baino gehiago (% 57,2) dira lan egiten dutenak 25 eta 29 urte bitarteko adinean.

Une honetan, gogoratzekoa da lan egitea okupazio nagusi den egoeraz ari garela, eta ez okupazio-tasaz. Erreferentziazko astean gutxienez ordubetz lan egiten duen pertsonen ehunekoa adierazten du okupazio-tasak (edo, lan egin gabe, enpleguarekin lotura formal bat duten pertsonena, hau da, ordainsariren bat jasotzen duten pertsonena edo hiru hileko epean enplegu-egoerara bueltatzea aurreikusia duten pertsonena). Lanaren Nazioarteko Erakundeak emandako definizio horri begiratzen badiogu, lanean ordubetz lan egiten duten ikasle guztiak sartzen dira okupazio-egoeran dauden pertsonen kategorian. Horrexek azaltzen du zergatik den inkesta hau egin den garaian (2015eko laugarren hiruhilekoan) zertxobait handiagoa Eustat erakundeak (Euskal Estatistika Erakundeak) adierazten duen okupazio-tasa (% 38,1), guk azterlan honetan gazteen okupazio nagusi moduan adierazten dugun ehunekoa baino. Izan ere, guk emandako datuak ez ditu barne hartzen lanen bat izan baina nagusiki ikasten diharduten pertsonak.

Gazteek adierazten duten hirugarren okupazio mota langabezia-egoera da. Langabezian dago 16 eta 29 urte bitarteko adinean dauden gazteen % 15,4.

Ez da langabezia-tasarekin nahastu behar langabezian dauden gazteen ehuneko hori. Langabezia-tasak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak emandako definizioan, langabezian dauden gazteen ehunekoa adierazten du, baina biztanleria aktiboari erreparatuta, hau da, lan egiteko moduan dauden pertsonen begiraturata, eta enplegurik ba ote duten ala ez kontuan izan gabe. Langabezia-tasa kalkulatzeko modu horrek, beraz, ez ditu kontuan hartzen ikasleak, etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituzten pertsonak, lanik egin ezin dutenak eta aurreko lau asteetan lana bilatzeko gestiorik egin ez duten pertsonak.

Azterlan honek ematen duen langabezia-ehunekoak, bestalde, gazte guztiak hartzen ditu kontuan, eta ez dio biztanleria aktiboari begiratzen; izan ere, azterlanaren helburua da adieraztea Euskal Autonomia Erkidegoko zenbat gazte dauden langabezian.


Europar Batasuneko Eurostat estatistika-erakundeak "langabezia-ratio" esaten dio datu horri. 2015. urteko datuek adierazten dute Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden gazteen ehunekoa Europar Batasuneko batezbestekoa (15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 9,1) baino handiagoa izan dela baina Espainiakoa (% 19,5) baino zertxobait txikiagoa. Datu horiek xehetasun handiagoz aztertzen dira 6. kapituluan, langabezian dauden gazteen egoera aztertzen duen aldetik (ikus 39. irudia).

Langabezian dauden gazteen ehunekoak handiagoak dira adin zaharragoko adin-tarteetan, baina kontuan izan behar da ikasketak amaitu ahala handitu egiten direla laneratzen direnen eta langabezian geratzen direnen kopuruak. Gazteen % 2,1 dago langabezian 16 eta 19 urteko adinen bitartean (baina gogoratu behar dugu ikasten diharduela horien % 92,5ek); 20 eta 24 urteko adinen bitartean, gazteen % 14,9 dago langabezian, eta 25 eta 29 urteko adinen bitartean, lanik gabeko pertsonen ehunekoa % 23,3ra igotzen da.

Azkenik, gazteen gainerako % 3,1a beste egoeraren batean dago; esaterako, etxean lanean edo zaintza-lanak egiten.

2. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, ADIN TALDEKA (%)




Banaketa horrek azken hamabost urteetan izan duen bilakaera aztertzen baldin badugu, ikusten da, 2000. urtetik hona, 2000n eta 2008an izan zirela laneratze-tasa handienak. Urte horietan, gazteen % 42,8k adierazi zuen lan egitea zela bere okupazio nagusia.

Beste muturrean, 2012an eta 2013an izan dira gazte gutxien lanean, eta urte horietan izan da handiena gazteen langabezia-ehunekoa. 2013. urtean ikasleen kopuru osoa ez zen inoizko handiena izan, baina inoizko handiena izan zen ikasten soilik ziharduten gazteen ehunekoa (% 42,8 aritu ziren ikasten soilik, eta % 5,3k tartekatzen zituzten ikasketak eta lana). Gazte horiek, ziur asko, beren gaitasunak eta enplegarritasuna handitu nahi zituzten, lanean hasteko garai zail batean.

Lanean aritzea okupazio nagusi duten gazteen ehunekoak gora egin du 2015ean; hala ere, ez dira 2012aren aurreko zenbatekoak iritsi. Langabezia dauden gazteen ehunekoa 2011. urtean izan zenaren paretsua da, eta urte hartakoaren antzekoa da ikasten ari diren gazteena.

3. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA (%)




Gizon eta emakume gazteek ez dute alde nabarmenik ageri okupazio nagusian; hala ere, horren salbuespen dira etxean egiten diren lanak eta zaintza-lanak, gizon gazteengan % 0,2koa baita ehunekoa, eta emakume gazteengan, berriz, % 4,0koa.

Alderik ageri da, ordea, jaiolekuari erreparatuz gero. Atzerrian jaiotako gazteengan baino handiagoa da ikasten dihardutenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako gazteengan. Horrek ez du esan nahi atzerriko gazteak bertakoak baino gazteago direnean sartzan direnik lan-merkatuan, eta bai langabezia-ehuneko handiagoak dituztela eta beste egoera batzuk bizi dituztela (batik bat, etxe-eremuko lanak egitea).

4. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, JAIOLEKUAREN ARABERA (%)



Derrigorrezko ikasketak edo Batxilergoa amaiturik daukaten gazteei erreparatuz gero, ikasten jarraitzea da horien okupazio nagusia (derrigorrezko ikasketak amaitu dituztenen % 55,9 eta Batxilergoa amaitu dutenen % 70,9). Goi- edo erdi-mailako prestakuntza-zikloak eta graduako edo graduondoko unibertsitate-ikasketak amaitu ondoren, nabarmen jaisten da nagusiki ikasten direnen ehunekoak, lan egitea baita gazte horien erdien baino gehiagoren jardura bakarra edo nagusia.

Egindako ikasketei erreparatuz gero, ikusten da lanean diharduten gazteen ehunekoak antzekoak direla prestakuntza-zikloren bat (erdi- edo goi-mailakoa) eta unibertsitateko graduren bat amaitu dutenen artean: % 55,5 eta % 53,5, hurrenez hurren. Baina ñabardura bat egin behar da; izan ere, prestakuntza-zikloren bat amaitu duten gazteen artean handiagoa da lanean soilik dihardutenen ehunekoak, unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten gazteen artean baino.


Zer gertatzen da aztertutako adin-tartea handituz gero? Zer okupazio nagusi dute 30 eta 34 urte bitartekoak?

Banaketa nabarmen aldatzen da 30 urtetik gora. 30 eta 34 urte bitarteko adina duten pertsonen % 6,4k soilik du ikastea okupazio nagusi, lan egitea du okupazio nagusi % 69,0k, eta % 21,0 dago langabezian, hau da, lanik gabe dago bost pertsonatik bat 30 eta 34 urteko adinen bitartean. Horrez gainera, % 3,6 bestelako egoeraren batean dago, baina kontuan izan behar da multzo horretan dauden pertsona ia guztiek etxeko lanak edo zaintza-lanak egiten dituztela.

Okupazio nagusiaren datuak aztertzen baldin baditugu 30 urtetik beherako eta gorako pertsonen artean, ikusten dugu lanean dihardutenen ehunekoak bikoiztu egiten direla adin-tarte batetik bestera, handitu egiten dira langabezian dauden ehunekoak eta nabarmen murrizten dira ikasten direnenak.

5. irudia

OKUPAZIO NAGUSIAN AGERI DIREN ALDEAK 16-29 ADIN-BITARTEAN ETA 30-34 ADIN-BITARTEAN (%)



Aztertzen baldin badugu zer bilakaera izan duen 30 eta 34 urte bitarteko taldeak 2011 eta 2015 urteen bitartean (ez dago aurreko urteetako daturik), ikusten da lanean ari diren gazteen eta langabezian dauden datuak antzekoak direla 2015ean eta 2011n, eta 2013. urtean izan zirela txikien lanean ari diren gazteen ehunekoak eta handien langabezian dauden ehunekoak.

1. taula

OKUPAZIO NAGUSIAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONENGAN (%)

(%)	2011	2013	2015
Ikasten	4,7	4,7	6,4
Lanean	68,9	62,1	69,0
Langabezia-egoeran	21,4	26,5	21,0
Beste egoera batean	5,1	6,7	3,6
GUZTIRA	100	100	100

Bestalde, ikusten da alderik amaitutako ikasketa-maila handienaren eta lan-egoeraren arteko lotura eginez gero, ikasketak amaituak dituztela ordurako 30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienek. Derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituzten pertsonen artean, lana okupazio nagusi dutenen ehunekoa % 54,4koa da (eta ezaugarri hori dutenen % 31,3k adierazten du langabezian dagoela). Egoerak ez du hobera egiten Batxilergoko titulua soilik duten gazteen artean: lanean dihardu % 51,7k eta langabezian dago horien % 34,3. Egoera, ordea, nabarmen aldatzen da lanbide-ikasketak edo unibertsitateko titulu bat duten pertsonekin, hurrenez hurren, % 78,7k eta % 76,6k dute lana okupazio nagusi.

Gaur egun, goi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitutako gazteek dute okupazio-ehuneko handiena (lanean ari da horien % 83,2). Unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenen artean, lan egitea okupazio nagusi dutenen ehunekoa % 76,6koa da, eta txikiagoa, % 70,3koa, erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat dutenen artean.

Hitz batean:

Ikastea da 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia; hala ere, 25 urtetik aurrera, lana da okupazio nagusia gazteen erdientzat baino gehiagorentzat, eta 30 eta 34 urteren bitartean, lana da hamarretik zazpiren okupazio nagusia.

Lanean ari diren gazteen ehunekoak gora egin du 2013. urtearekiko, bai 30 urtetik beherakoengan, bai adin horretatik gorakoengan; aldi berean, jaitsi egin da langabezian dauden pertsonen ehunekoa bi adin talde horietan.

Ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da lan-okupazioaren ehunekoa. Nabarmen ikusten da hori 30 eta 34 urte bitartekoen adin taldean, amaituak baitituzte gehienek beren ikasketak: goi-mailako ikasketak amaituak dituztenek ageri dituzte enplegu-ehuneko handienak, eta, batik bat, goi-mailako prestakuntza-zikloak amaitu dituztenek.

2

Gazteen lan-eskarmentua

Aurreko kapituluan ikusi dugu zenbat gazterentzat den lan egitea gaur egun beren okupazio nagusia (% 34,8). Ikasketen osagarri moduan lan bat egiten duten gazteen ehunekoa (% 6,6) gaineratzen baldin badiogu aurreko datu horri, ikusten dugu lan bat (ordu gutxi batzuetarako, kontraturik gabe edo bestelako egoeraren batean bada ere) duten gazteen ehunekoa % 41,4koa dela.


Horrez gainera, aintzat hartzekoa da gazteen % 26,5ek duela aurretiazko lan-eskarmentua, gaur egun lanean ari ez badira ere (okupazio nagusia ikastea dutelako, langabezian daudelako, etxeko lanak egiten dituztelako, lanerako ezintasunen bat dutelako edo bestelako egoeraren batean daudelako).

Horrenbestez, ondorioztatu behar dugu 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 67,9k (hau da, bitik hiruk) lan-eskarmenturen bat duela.

Ehuneko hori 2008. urtean izan zen handiena; izan ere, urte horretan gazteen % 74,6k adierazi zuen lan ordainduren bat izan duela noizbait. Urte horretatik aurrera, behera egin du lan-merkatuan sartutako gazteen ehunekoak, eta 2015. urtean, errepikatu egin dira, ia-ia, 2013. urteko ehunekoak.

6. irudia

LAN-ESKARMENTUA DUTEN 16-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK. BILAKAERA 2004-2015 (%)



Aztertzen baldin badugu 2015. urtean zenbat gaztek adierazten duten lan-eskarmentua dutela, ikusten dugu mutilek eta neskek antzeko ehunekoak adierazten dituztela (% 68,5 eta % 67,3, hurrenez hurren).

Adina, ordea, faktore erabakigarria da; izan ere, zenbat eta handiagoa izan adina, orduan eta handiagoa da lan-eskarmentua: 20 urteko adina bete aurretik, % 22,1ek soilik du lan-eskarmentua; ehuneko hori nabarmen igotzen da, % 70,1era arte, 20 eta 24 urte bitarteko adinetan —gazte askok adin-tarte horretan amaitzen ditu ikasketak—, eta lan-eskarmentua dutenen ehunekoa % 92,4koa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

16 eta 29 urte bitartean dituzten gazte guztiei begiratzen badiegu, ikusten da lan-eskarmentua dutenen ehunekoak gora egiten duela amaitutako ikasketen mailak gora egin ahala, baina egia da, era berean, adinak berebiziko eragina duela gai horretan. Eragin hori ezabatzeko, 26 eta 29 urteko adinen bitarteari begiratuko diogu, gazte gehien-gehienek amaituak baitituzte ikasketak (1. kapituluan ikusi dugu, adin-tarte horretan, gazteen % 15,0 ikasten ari direla, eta oraindik ikasten ari diren lautik batek lanen batekin bateratzen dituela ikasketak; ez ditugu kontuan hartu 25 urteko pertsonak, horietako lautik batek ikastea baitu, oraindik ere, okupazio nagusi). Hori horrela, 26 eta 29 urte bitartekoen talde horretan, ikusten da goi-mailako titulazioen bat dutenen % 96,0k duela lan-eskarmenturen bat. Ehuneko hori % 97,4koa da bigarren mailako ikasketak (Batxilergoa edo maila ertaineko prestakuntza-zikloen bat) amaitu dituztenen artean, eta zertxobait apalagoa, % 83,1ekoa, derrigorrezko ikasketak soilik egin dituztenen artean.

Ikasketa-mailari erreparatu beharrean, amaitutako ikasketa motari begiratzen baldin badiogu, ikusten dugu, 26 eta 29 urte bitartekoen talde horretan, aurretiazko lan-eskarmentuaren ehuneko zertxobait handiagoak dituztela prestakuntza-zikloak (erdi- edo goi-mailakoak) amaitu dituztenek, unibertsitate-graduak amaitu dituztenek baino (% 99,2 eta % 92,8, hurrenez hurren). Ikusten da, era berean, unibertsitate-tituluren bat izan eta ikasten jarraitzen dutenen ehunekoa handiagoa dela egun lanbide-ikasketak egiten ari direnena baino.

Horren ondorio dugu, beraz, 30 urtetik beherako pertsonen artean, prestakuntza-zikloak egin dituztenek laneratze-ehuneko zertxobait handiagoak dituztela gainerakoek baino. Hori horrela izanda ere, aztertzekoa izango da, gerora, zer-nolakoak diren eskarmentu edo esperientzia horiek eta ea ikasketek eragin erabakigarria ote duten gerora eskuratzen diren lan-baldintzen kalitatean.

Honako zalantza hau ageri da 16 eta 29 urte bitarteko gazte horien guztien lan-eskarmentua aztertzean: zenbat ikaslek dute lan-eskarmentua? Langabezian daudenetatik, zenbatek adierazten du aurretiaz lanen bat izan duela? Zergatik ez dute orain lan egiten?

Ikasleek % 45,1ek adierazten du lan-eskarmenturen bat duela. Aintzat hartuta adin-bitarte horretan daudenen % 14,1ek bateratu egiten dituela lana eta ikasketak, nabarmentzen da ikasleen % 31,0 k lanen bat izan duela aurretiaz baina orain ez dela lanean ari.

Gaur egun langabezian daudenen artean, aurretiaz lan eginak direla adierazten dute gehien-gehienek: % 80,3k, hain justu.

Gaur egun lanik egiten ez duten ikasleen artean eta langabezian dauden gazteen artean, gutxiengo dira aurreko lana borondatez utzi zutela adierazten dutenak (ikasleen % 30,6k eta langabezian daudenen % 14,7k). Bi taldeetan, gehiengoak adierazten du ez ziotela kontratua berri, jarraitzeko aukerarik gabeko lana zela edo enpresak itxi egin zuela.

Guztira, % 23,1ek utzi zuen lana bere borondatez, % 68,7k hala nahi izan gabe, eta gainerakoek ez dute arrazoirik adierazi.

Azken urteetan, ildo egonkorra ageri du, urtetik urtera, lana beraiek nahi izan gabe utzi behar izan zutenen ehunekoak, portzentajea % 69,7koa baitzen 2013. urtean, eta % 67,2koa 2011. urtean.


Eta zer ehuneko ageri ditu 30 eta 34 urte bitarteko adin taldeak? Zenbatek dute lan-eskarmentua?

Gazte gutxik betetzen dituzte 30 urte lan-eskarmenturik izan gabe. Gaur egun lanean ari direnak (ordu gutxiko lanen bat egiten eta ikasketen osagarri baldin bada ere) eta lanik egin ez arren aurretiaz lanen bat egin dutenak batuz gero, ikusten dugu 2015. urtean 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 97,7k zuela lan-eskarmentua.

Datu horiek 30 urtetik beherako pertsonen datuekin alderatzen baldin baditugu, ikusten dugu lan-eskarmentuak igoera-joera lineala ageri duela adinak gora egin ahala.

7. irudia

EAEN 16 ETA 34 URTE BITARTE DITUZTEN GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA, ADIN TALDEKA (%)



Pertsonen taldeen ezaugarriei erreparatuta, ez dago alde handirik 30 eta 34 urte bitartekoen artean, talde guztietan baita % 90etik gorakoa lan-eskarmentua dutenen ehunekoa. Alderdi nabarmenenak dira emakumeek baino bi ehuneko-puntu gehiago ageri dutela gizonen lan-eskarmentuan (% 98,9 gizonen eta % 96,4 emakumeek), euskara dakitenek eskarmentu edo esperientzia gehixeago dutela (% 99,4 euskara dakitenek eta % 96,0 euskara ez dakitenek), eta goi-mailako ikasketak amaitu dituztenek bost ehuneko-punturen aldea dutela derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituzten pertsonetik (% 94,1 derrigorrezko ikasketak dituztenek, % 97,8 bigarren mailako ikasketak –derrigorrezkoen ondorengoak– dituztenek eta % 99,1 goi-mailako ikasketak dituztenek). Hemen ez da alderik ageri prestakuntza-zikloak amaitutakoen eta unibertsitate-tituluak dituztenen artean.

Hala ere, ikasketa-mailak eta euskararen jakintzak ageri dituen aldean ondoren, jatorria da, egiaz, eragina duena lan-eskarmentuaren alorrean. 30 eta 34 urte bitarteko adina duten pertsona atzeritarrei erreparatuz gero (horien herenek soilik dituzte derrigorrezko ikasketak eta % 5ek soilik daki euskaraz ondo hitz egiten), ikusten da lan-eskarmentuaren ehuneko zertxobait apalagoak dituztela Euskal Autonomia Erkidegoan jaio direnek baino: % 90,1eko ehunekoa dute atzerrian jaiotakoek eta % 99,7koa Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoek.

Gaur egun duten okupazioari erreparatuta, ikusten dugu 30 eta 34 urte bitartean izan eta ikasten aritzea okupazio nagusi dutenen % 94,9k duela lan-eskarmentua; eta gaur egun langabezian dauden artean gehixeago direla, % 97,0, aurretiaz lanen bat egin dutenak.

Gaur egun lan ez egiteko arrazoiak, oro har, ez dira borondatezkoak izaten. Langabezian izan eta aurretiaz lanen bat egin dutenen % 81,7k adierazten du kontratua berritu ez ziotelako dagoela lanik gabe, denbora jakinerako kontratua zela aurrekoa eta ezin zela berritu, kaleratu egin zutela, enpresak itxi egin zuela edo antzeko egoeraren bat gertatu zela. Ikasleen artean ere, gehiago dira lanik gabe norberaren borondateaz kanpoko arrazoiengatik daudenak, lana borondatez utzi dutenak baino (egun ikasten ari direnen herenek utzi dute lanen bat borondatez).

Azkenik, adierazi behar da azken urteetan kasik aldaketarik gabe dirauela, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, lan-eskarmentua duten pertsonen ehunekoak: 2011n, % 97,9; 2013an, % 96,2; eta 2015ean, % 97,7.

Hitz batean:

Hiru gaztetik bik dute lan-eskarmentua 16 eta 29 urteko adin-tartean. Adinean gora egin ahala, nabarmen handitzen da lan-esperientzia.

Gazteen adina 26 eta 29 urte bitartekoa denean, gehienek amaituak dituzte ikasketak, eta lan-merkatuan zenbat sartu diren aztertuta, ikusten da prestakuntza-zikloak egin dituztenek ehuneko handiagoak ageri dituztela. Baina 30 eta 34 urte bitarteko adina duten pertsonen lan-eskarmentua aztertzean, ezereztu egiten da lanbide-titulazioa edo unibertsitate-ikasketak dituztenen arteko aldea; beraz, pentsatzekoa da lanbide-ikasketak egin dituzten pertsonak gazteago direla sartzen direla lan-merkatuan.

30 urtetik beherako gazteen artean, noizbait lan egindakoak direla adierazten dute beren burua ikasletzat daukatenen ia erdiek eta langabezian dauden hamar gaztetik zortzik. Lan hori amaitu izanaren arrazoa, egoera gehienetan, ez da norberaren erabakia izan, eta bai norberaren borondatezkoak ez diren arrazoiak.


3

Lan-eskarmentua atzerrian

Lan-eskarmentuaz gain, interesgarria da, oro har, gazteek atzerrian izan duten lan-eskarmentua aztertzea, eta ikustea ea eskarmentu hori dutenek atzerrian lan egin gabeek baino enplegu-tasa handiagoak ote dituzten.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazteen % 8,4k adierazten du atzerrian lan egin duela noizbait, denbora laburrerako izan bada ere. Eskarmentu edo esperientzia horretan sartzen dira ikasketa-praktikak eta bekaz lagundutako ikerketak, baldin eta atzerrian eginak baldin badira. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren gazte guztiak hartzen ditu ehuneko horrek, non jaio diren aintzat hartu gabe.

Baina jatorria kontuan hartzeko faktorea da atzerriko lan-eskarmentua aztertzean. Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako beste lekuren batean jaiotako gazteen % 6,8k du eskarmentu hori; atzerrian jaiotako gazteen artean, berriz, % 16,3koa da ehuneko hori, hau da, hamar ehuneko-puntu handiagoa.



Kontuan izan behar da bere garaian han bizi zirelako dutela, atzerrian jaiotako gazteen herenen esanetan, atzerriko lan-eskarmentu hori; beraz, komeni da Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuko beste lekuren batean jaiotako gazteei soilik erreparatzea, beren lan-emigrazioa eta itzulera nolakoak izan diren aztertzeko.


Euskal Autonomia Erkidegoan edo estatuko beste lekuren batean jaio direnen taldea hautatu ondoren, ikusten dugu ehunekoetan ia ez dagoela alderik Espainiatik kanpo lan egindako mutilen eta nesken ehunekoetan, baina ikusten da alderik adinaren eta ikasketen arabera.

Adinak gora egin ahala, gora egiten du, era berean, atzerrian lan-eskarmenturen bat izan dutenen ehunekoak; izan ere, eskarmentu hori % 1,0koa da 20 urtetik beherakoen artean, % 5,1koa 20 eta 24 urte bitarte dituzten gazteen artean, eta % 11,6koa 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Alde handiak ikusten dira amaitutako ikasketak-maila handienari erreparatzen baldin bazaio. Derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituzten gazteen artean, % 2,0k bakarrik du atzerriko lan-eskarmentua; ehunekoa nahiko apala da, era berean, derrigorrezkoen ondorengo ikasketak amaitu dituztenen artean, hau da, Batxilergoa edo maila ertaineko prestakuntza-zikloren bat amaitu dutenen artean, % 3,6k soilik baitu atzerriko lan-eskarmentua; baina goi-mailako ikasketak amaitu dituztenen artean, hau da, unibertsitateko gradu bat, goi-mailako prestakuntza-ziklo bat edo graduondoko ikasketak amaitu dituztenen artean, eskarmentu hori % 14,1koa da.

9. irudia

ATZERRIKO LAN-ESKARMENTUA EAEN EDO ESPAINIAKO BESTE LEKUREN BATEAN JAIKO ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEAN DITUZTEN GAZTEEN ARTEAN, ADIN TALDEEN ETA AMAITUTAKO IKASKETEN ARABERA (%)




Amaitutako ikasketak motari begiratuta, ikusten da atzerriko lan-eskarmentuaren ehuneko handiagoa ageri dela unibertsitate-gradu bat dutenen artean (%13,9), erdi- edo goi-mailako lanbide-ikasketak dituzten artean baino (% 9,4).

Eta nolakoa izan da atzerriko lan-eskarmentu hori?

Atzerrian egindako egonaldia, batez beste, sei hilekoa izan da, baina adierazi behar da denbora-tarteak ezarrit gero, atzerrian lan-eskarmentua dutenen ia erdiek (% 48,6k) hiru hilabeteko egonaldia egin dutela gehienez atzerrian, eta, beste muturrera joanda, % 13,1 izan dela atzerrian urtebetetik gorako egonaldiren batean.

10. irudia

EAEN EDO ESPAINIAKO BESTE LEKUREN BATEAN JAIKO, 16 ETA 29 URTE BITARTEAN IZAN ETA ATZERRIAN LAN-ESKARMENTUA DUTEN GAZTEEN BANAKETA, LAN-EGONALDIAREN IRAUPENAREN ARABERA (%)



Gazteen ia erdiek (% 47,0k) esaten dute ikasketa-praktiken edo ikertzeko bekaren baten eskaintza jaso ondoren joan zirela atzerrira; gazte horien % 14,3k adierazi du kontratupean zuen enpresak atzerrira bidali zuela lan egitera; gazteen % 20,2k esan du atzerrira joan zela bestelako bizipenak izateko, beste leku batzuk ezagutzeko, hizkuntzak ikasteko eta antzeko asmoak betetzeko; eta, azkenik, % 5,5ek adierazten du atzerrian ikasten ari zela une horretan, eta lana bilatu zuela diru pixka bat irabazteko. Gazteen % 4,0k soilik esaten du lana aurkitzeko ezintasuna edo lan-aurreikuspenik eza izan zela atzerrira lanera joatearen arrazoia. Galdetuak izan ziren gazteen beste % 8,9k adierazi du bestelako arrazoiren bat izan zuela atzerrira joateko, ikerketa-galdetegian jaso gabekoa.

Euskal Autonomia Erkidegora itzultzeko arrazoiez galdetuta, bi herenek (% 66,4) diote lana, praktikaldia edo beka aldi baterakoa zela, eta amaitu egin zitzaizela. Ehuneko hori nahiko gertu dago bi ehuneko hauen baturatik: ikasteko praktikak egitera edo bekaren batean oinarritutako praktikak egitera joan zirenen ehunekoaren eta atzerrira kontratatuak zituen enpresak bidalita joan zirenen ehunekoaren baturatik (% 61,3). Bestalde, gazteen % 11,5ek adierazi du atzerrian egiten ari zen ikasketak amaitu zituela eta hori zela atzerrian izatearen arrazoi nagusia (lana egiteaz gain, noski); gazteen % 6,9k esan du atzerritik itzuli nahi zuela, baina talde horren barruan, batzuek diote han, atzerrian, gustura zeudela (% 4,7k), eta beste batzuek, berriz, ez zeudela gustura (% 2,2k); horrez gainera, gazteen % 4,1ek adierazi du bere familiarekin aldi baterako bizi izan zirela atzerrian, eta familia osoa berriro hona bueltatu zela bizitzera; gazteen % 3,4k aipatu du hemen lan bat topatu zuela edo lan bat eskaini ziotela hemen; eta, azkenik, % 7,7k adierazi du bestelako arrazoi batzuk izan zituela.

Atzerrira joateko eta handik itzultzeko arrazoiak konbinatuz gero, ikusten da gazteen erdiak (% 50,4) denbora-tarte jakin baterako joan zirela (praktikak egitera, ikertzera edo bere enpresak bidalita), eta denbora-tarte hori amaitu egin zela.

Gainerako gazteek baino okupazio-tasa handiagoak al dituzte gaur egun atzerriko lan-eskarmenturen bat izan dutenek?

Noizbait atzerrian lan egin dutenen % 61,2k lan egitea du gaur egun okupazio nagusi, eta % 32,9koa da ehuneko hori Espainiatik kanpo lan-eskarmenturik ez duten gazteen artean. Gazteen azken talde horretan (atzerrian behin ere lan egin ez dutenena) gazte gehiago daude lanik gabe, baina horietako gehienak ikasleak dira; izan ere, gazte talde horren batez besteko adina 22 urte eta erdikoa da, eta atzerrian lan egin dutenena, berriz, 25 urtekoa.

Atzerrian lan egin dutenei erreparatuta, ba al da alderik 30 urtetik beherakoen eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean?

Adinez 30 eta 34 urte bitartean izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuko beste lekuren batean jaiotakoek % 12,6k adierazten du lan-eskarmentu edo -esperientziaren bat izan duela atzerrian.

Atzerrian lan egin dutenen erdiek (% 52,2) adierazi dute hilabete eta hiru hilabeteren bitarteko lanen bat egin dutela atzerrian, eta, beste muturrean, % 21,7k adierazi du urtebetetik gora izan zela atzerrian. Pertsona talde horrek, batez beste, zortzi hilabeteko lan-egonaldia egin du atzerrian.

Errepikatu egiten dira, talde honetan ere, aurrez azaldu diren arrazoi nagusiak; izan ere, % 26,5ek adierazi du ikasteko praktikak edo ikertzeko bekaren bat eskuratu zituela; % 27k nabarmendu du bestelako bizipenak izan nahi zituela; eta enpresak aginduta joan zirela adierazi du % 18,7k. Adin-talde horretan, ordea, 30 urtetik beherakoek artean baino garrantzi edo indar handiagoa du hemen lanik ez izatearen edo lan-aurreikuspenik ez izatearen arrazoiak, atzerrian lan egindakoen % 15,7k eman baitu arrazoi hori; eta, ehunekotan, apalagoa da, adin-tarte horretan daudenen artean, bekak edo ikasteko praktikak eskuratu dituztenen kopurua.

2. taula

ATZERRIRA LAN EGITERA JOATEKO ARRAZOIAK. 30 URTETIK BEHERAKOEN
ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEKO ALDEAK (%)*

(%)	16-29 urte	30-34 urte
Atzerrian ikertzeko beka edo ikasketetako praktikak egiteko aukera eman zizuten	47,0	26,5
Esperientzia berriak bizi nahi zenituen, beste leku batzuk ezagutzeko, hizkuntzak ikasteko edo abarrerako aprobe txatu nahi zenuen	20,2	27,0
Enpresak agindu zizun	14,3	18,7
Momentu horretan atzerrian ikasten zenbiltzan eta dirua irabazi nahi zenuen	5,5	3,2
Hemen ez zenuen lanik ezta izateko aukerarik ere	4,0	15,7
Bestelako arrazoiak	8,9	8,9
GUZTIRA	100	100

* Galdera hau bakarrik egin zaie EAEn edo Espainiako estatuko beste lekuren batean jaiotakoek, noizbait atzerrian lan egin eta EAera itzuli diren gazteei

Bueltatzeko arrazoiari begiratuta, hemen lana topatu izanaren eta hona bueltatu nahi izatearen arrazoiak ehuneko handiagoak ageri dituzte 30 eta 34 urte bitartekoek artean.

3. taula

BUELTATZEKO ARRAZIOIAK, ATZERRIAN LAN EGIN ONDOREN. 30 URTETIK BEHERAKOEN
ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEKO ALDEAK (%)

(%)	16-29 urte	30-34 urte
Aldi edo epe zehatzerako lana, beka edo praktikak ziren	66,4	35,8
Atzerrian egiten ari zinen ikasketak (lanarekin bateratzen zenituenak) amaitu zenituen	11,5	9,4
Hemen lana aurkitu zenuen edo eskaini zizuten	3,4	8,6
Ez zeunden gustura han, nahiz eta hemen lanik ez izan eta han bai	2,2	5,5
Bueltatu nahi zenuen, nahiz eta gustura egon han eta hemen lanik ez izan	4,7	12,0
Zure familiarekin batera hona bizitzera etorri zinen	4,1	9,5
Bestelako arrazoiak	7,7	17,9
Ed/Ee	0,0	1,4
GUZTIRA	100	100

* Galdera hau bakarrik egin zaie EAEn edo Espainiako estatuko beste lekuren batean jaio, noizbait atzerrian lan egin eta EAera itzuli diren gazteei.

Atzerrian lan egin duten pertsonen errepertorio gero, 30 eta 34 urte bitarteko artean ikusten da, 30 urtetik beherako artean ez bezala, adin tarte horretako pertsonen batezbestekoa baino zertxobait apalagoa dela gaur egun lanean ari direnen ehunekoa, eta, bestalde, handiagoa dela ikasketaren denbora luzatzen ari direnen ehunekoa. Zehazki, lan egitea da atzerriko lan-eskarmentua duten adin horretako pertsonen % 65,8ren okupazio nagusia (atzerrian inoiz ere lan egin ez dutenen % 75,6ren egiteko nagusia da lan egitea) eta ikasten jarraitzea da talde horretako % 12,6ren okupazio nagusia (aitzitik, atzerrian lan egin gabeen % 4,3 dira ikasten jarraitzen dutenak); bestalde, nahiko antzekoa da, atzerriko lan-eskarmentua dutenen taldean zein esperientzia hori ez dutenengan, lanik gabe dauden pertsonen ehunekoa.

Hitz batean:

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta 30 urtetik beherakoak diren pertsoneri erreparatuta, ez da % 10era iristen noizbait atzerrian lan egin dutenen ehunekoa. Berariaz Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuan jaio direnei begiratuta, % 6,8 dira noizbait atzerrian lan egin dutenak.

Zenbat eta handiagoa izan pertsonen adina eta amaitutako ikasketen maila, orduan eta handiagoa da atzerriko lan-eskarmentua dutenen ehunekoa; hala, atzerrian lan egin dutenen ia erdiek egin dute lan hori ikasteko praktikak lortu edo ikerketa-bekaren bat eskuratu dutelako. Kontuan izanda adin horretako beste pertsona talde handi batek bere enpresak aginduta egin duela lan-egonaldiaren bat atzerrian, nabarmendu behar da atzerriko lan-egonaldi horiek, batez beste, sei hileko iraupena izan dutela, eta bueltatzearen arrazoia izan dela, hain justu, atzerri-egonaldi horren iraupena mugatua zela hasieratik.

Atzerrian lan-eskarmentua dutenen ehunekoa zertxobait handiagoa da (% 12,6koa) 30 eta 34 urte bitartean dituztenen artean. Adin tarte horretan, gora egiten du atzerriko lan-egonaldiaren batez besteko iraupenak, eta handiagoa da atzerrian urtebete baino denbora luzeagoan lan egin edo ikertu dutenen ehunekoa. Atzerrira joateko arrazoiei begiratuta, indar handixeagoa dute bestelako bizipenak bizi nahi izatearen edo hemen lan-aurreikuspenik ez izatearen arrazoiek.

Nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako Estatuan jaio diren gazteez ari garela; zehazki, noizbait atzerrian lan egin eta bizitzera Euskal Autonomia Erkidegora bueltatu direnez. Horrenbestez, ezin dugu esan lan-eskarmentu eta ezaugarri horiek dituztenik ez Euskal Autonomia Erkidegora emigratu aurretik beren herrialdean lan egin zuten gazte atzerritarrek, ez gaur egun atzerrian dirauten euskal gazteek.


4

Lan-munduan sartzea

Orain arte ikusi dugun moduan adinak gora egin ahala handitu egiten da lan-eskarmentua. 22 urte egin bitartean, nabarmen handitzen da, urtetik urtera, noizbait lan egin duten gazteen ehunekoa. Adin horretan, hamarretik zortzi dira noizbait lan egin dutenak, eta, adin horretatik aurrera, apalagoak dira igoerak. Gazteen % 94,9k dio, 29 urteko adinean, lan-eskarmenturen bat izan duela noizbait, eta adina 34 urtera handituz gero, % 99,1 dira noizbait lan egin dutela adierazten dutenak.

11. irudia

LAN-ESKARMENTUA DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEAK,
URTEZ URTEKO ADINAREN ARABERA (%)



Baina, 30 urtetik beherako gazteen esanetan, zenbat urterekin izan zuten lehen lana? Batezbestekoa 18-19 urtekoa da, eta adin hori errepikatzen da gizonekin nahiz emakumeekin, alde batera utzita gaur egun zer okupazio duten, zer ikasketa dituzten, non jaiok diren edo zer gizarte-mailatakoak diren (nabarmenezkoa den alderdi bakarra da unibertsitate-gradua amaitua dutenen artean ia 20 urtera igotzen dela lehen enpleguaren batez besteko adina).

Lehen enpleguaren batez besteko adin horrek ez du aldaketarik izan 2011ko eta 2013ko batezbestekoetatik, urte horietan 18 eta 19 urte bitartekoa baitzen batezbestekoa, alderik ageri gabe nesken eta mutilen artean.

Ordaindutako lehen lanaren batez besteko adinari eta ikasketen denborari erreparatuz gero (1. kapituluan ikusi dugun moduan, 25 urteko adinean, gazteen laurdenek dute oraindik ere ikastea okupazio nagusi), logikoa da lan-eskarmentua duten gazteen bi herenek baino gehixeagok (% 68,9k) adieraztea oraindik ikasten ari zirenean izan zutela beren lehen enplegua.

Bestalde, lan-eskarmentua duten gazteen % 31,1ek adierazten du ikasketak amaitu ondoren izan zuela lehen lana. Guztizko zenbatekoari begiratuta, 16 eta 29 urteko adinen bitarteko gazte guztien % 21,3 dira lanean hasi zirenak ikasketak amaitu eta gero.

Eta, batez beste, gazte horiek (lan-merkatuan ikasketak amaitu eta gero sartu zirenak) zenbat hilabete behar izan zituzten lehen enplegua aurkitzeko?

Emakumeek denbora gehixeago behar izan zuten, batez beste, lehen lana topatzeko: 8 hilabete neskek eta 6 hilabete baino zertxobait gutxiago mutilek.

Derrigorrezko ikasketak soilik amaitu zituzten gazteek 9 hilabete behar izan zituzten, batez beste, lehen enplegua topatzeko ikasketak amaitu ondoren, eta horiek izan ziren denbora gehien behar izan zutenak ikasketak amaitu eta lehen enplegua lortzeko. Beste muturrean, erdi- edo goi-mailako lanbide-titulazioa eskuratutakoak dira denbora laburrena behar izan zutenak, 5 hilabete behar izan baitzituzten batez beste. Unibertsitate-tituluak dituzten gazteek, berriz, adierazten dute 7 hilabete eta erdi behar izan zutela lehen lana aurkitzeko ikasketak amaitu ondoren.


Gizarte-mailak ere badakar alderik lana aurkitzeko garaian: beren burua goi-mailan edo ertain-goikoan kokatzen dutenek adierazi dute 4 hilabete behar izan zituztela ikasketak amaitu ostean enplegu bat aurkitzeko; maila ertainekoek denbora gehixeago behar izan zuten (ia 6 hilabete), eta askoz ere denbora gehiago, 10 hilabete, beheko eta ertain-beheko mailetakoei.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako pertsonen 6 hilabete behar izan zituzten batez beste, eta 9 hilabete atzerrian jaiotako gazteek.

Zertxobait handitu da, 2011. urtetik 2015. urtera, oraindik ikasten ari zirela lehen lana eskuratu zutela adierazten duten gazteen ehunekoa: % 62,2 izan ziren 2011. urtean, % 65,5 izan ziren 2013. urtean, eta, azkenik, 2015. urtean, lehen adierazitako % 68,9. Baina lehen lana ikasketak amaitu ostean aurkitu zuten gazteen artean, zertxobait handitu da ikasketak amaitu eta lana aurkitu bitarteko itxaron-denbora: bost hilabete eta erdikoa izan zen 2011n, ia sei hilekoa 2013an eta ia zazpi hilekoa 2015ean.

12. irudia

LEHEN LANA ESKURATZEKO UNEAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO ADINA ETA LAN-ESKARMENTUA DUTEN GAZTEEN ARTEAN (%)



Zer bide edo modu nagusi daude lehen enplegua eskuratzeko?

Gai hori aztertzeko, gaur egungo enplegu-egoerari begiratuko diogu. 2015. urtean lana okupazio nagusi duten gazteen % 42,7k adierazten du senideen, lagunen edo pertsona ezagunen bitartez lortu duela egun duen enplegua. Hori da gehien errepikatzen den erantzuna. Gazteen %11,9k lortu du bere egungo lana beka baten edo ikasketetako praktika batzuen bidez, %8,9k lortu du enplegua bilatzeko webguneren baten bidez, eta gazte gutxik lortu du egun duen enplegua administrazio publikoaren oposizioen edo lan-poltsen bidez (% 3,1ek), Lanbide edo SEPE moduko enplegu-zerbitzu publikoen bidez (% 2,9) edo aldi baterako laneko enpresen bidez (% 2,5). Gazteen % 21,2k adierazi du bestelako bideren batetik aurkitu duela orain duen enplegua.

Bestalde, 2. kapituluaren ikusi dugun moduan, lan-eskarmentua du 30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden gazteen % 97,7k. Baina zer adinetan izan zuten lehen enplegua? Batez beste, 19 urteko adinean. Ez da alderik ikusten sexuaren arabera, baina bai gizarte-mailaren arabera. Gizarte-maila altuko eta ertain-altuko pertsonak adinean zaharrago direla sartzen dira lan-merkatuan (21 edo 22 urterekin, batez beste), baina egindako ikasketa mota da horren arrazoi nagusia; izan ere, bestelako ikasketak dituztenak baino zaharrago hasten dira lanean unibertsitate-ikasketak dituzten gazteak (unibertsitate-gradu bat dutenek 21 urterekin eskuratzen dute, batez beste, lehen enplegua, eta 17 urte erdirekin derrigorrezko ikasketak soilik dituztenek), eta gainerakoek baino proportzio handiagoan dute unibertsitate-titulazioa gizarte-maila altuko eta ertain-altuko pertsonen.

Oraindik ikasten ari zela lortu zuen lehen lana lan-eskarmentua eta 30 eta 34 urte bitartean duten pertsonen % 59,2k; eta gainerako % 40,8ak eskuratu zuen lehen lana ikasketak amaitu ostean.

Lehen adierazi dugu 16 eta 29 urte bitarteko adinean dauden pertsonen % 68,9k lortu zuela lehen lana ikasten ari zela, hau da, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen baino ia hamar ehuneko-puntu gehiago. 30 urtetik gorako eta beharkeko artean ageri den alde horren arrazoi nagusia da hauxe da: lan-eskarmentua duten pertsonen erantzunak soilik aztertzen ari garela, eta 16 eta 29 urte bitarteko adin-tartean, zeinetan ia erdiek diote ikasleak direla, aldi berean ikasi eta lan egiten dutenen ehuneko handiagoa da, logikoki, 30 urtetik gorako artean baino, azken adin-tarte horretan txikiagoa delako ikastea okupazio nagusi duten gazteen kopurua.

Zenbat eta handiagoa izan amaitutako ikasketak-maila, orduan eta gehiago dira lehen lana ikasketen ibilbidearen barruan izan dutenen ehunekoak: 30 eta 34 urteko adin-tartean, % 41,5 dira derrigorrezko ikasketak soilik amaitu eta lehen lana ikasketak amaitu aurretik izan dutenak; % 58,3 dira derrigorrezko ikasketen ondorengo bigarren mailako ikasketak (Batxilergoa edo erdi-mailako prestakuntza-zikloen bat) amaitu dituztenen artean, eta % 66,6 goi-mailako ikasketak (goi-mailako prestakuntza-zikloak edo unibertsitate-tituluak) dituztenen artean.

Ikasketak amaitu ondoren hasi da lanean lan-eskarmentua eta 30 eta 34 urte bitartean dituzten pertsonen % 40,8. Pertsona horiek 7 edo 8 hilabete behar izan dituzte, batez beste, enplegu bat topatzeko ikasketak amaitu ondoren; hala ere, kolektibo edo talde guztiek ez dute denbora bera behar izan. Goi-mailako ikasketak (unibertsitate-tituluak edo goi-mailako prestakuntza zikloak) dituzten pertsonen 6 hilabete baino gutxiago behar izan dituzte, eta 8 hilabete eta erdi derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituztenek. Diferentzia are handiagoa da gizarte-mailari begiratzen baldin badiogu; izan ere, goi-mailako edo gizarte-maila ertain-altuko pertsonen 5 hilabete behar izan dituzte batez beste, eta ia 13 hilabete beheko edo ertain-beheko gizarte-mailakoek.

Lehen enplegua ikasten ari ziren bitartean eskuratu dutela dioten 30 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du azken urteotan; hala, % 47,2k eman zuen erantzun hori 2011. urtean, % 52,8k 2013. urtean, eta % 59,2k 2015. urtean. Lanean hasteko batez besteko adina 20 urtekoa zen 2011n, 19 urte eta erdikoa 2013an eta 19 urtekoa 2015ean. Azkenik, lanean ikasketak amaitu ondoren hasi diren gazteei begiratuta, handitu egin da, zertxobait, ikasketak amaitu eta lehen lana eskuratu bitarteko denbora: 6 hilabete eta erdi ziren 2011n, 7 hilabete eta erdi 2013an eta ia 8 hilabete 2015ean.

Hitz batean:

Ikasten ari diren bitartean lortzen dute lehen lana gazte gehienek, 18 edo 19 urterekin, batez beste.

Lanean ikasketak amaitu ondoren hasten diren pertsonen begiratuta, zertxobait handitu da, azken urteetan, ikasketak amaitu eta lanean hasi bitarteko itxaron-denbora. Lanean ikasketak amaitu ostean hasten diren gazteen artean, emakumeek baino azkarrago aurkitzen dute lana gizon gazteek, eta lanbide-ikasketak egin dituztenek lortzen dute lana azkarren. Gizarte-mailak eta jatorriak ere badute eraginik: goi-mailakoak edo maila ertain-altukoak direnek eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaio direnek denbora gutxiago behar dute, batez beste, lana aurkitzeko.

5


Lanean ari diren gazteen lan-baldintzak

Orain, 30 urte baino gutxiago izan eta lanean ari diren gazteen lan-baldintzak aztertuko ditugu. Horretarako, lan egitea okupazio nagusi duten pertsonak soilik hautatuko ditugu, eta haien egungo enpleguak zer ezaugarri dituen ikusiko dugu. Hain justu, 16 eta 29 urte bitarte dituzten gazte guztien herenak baino zertxobait gehiago dira (% 34,8).

5.1. ENPLEGUEN KOPURUA

Enplegu bakar bat dute 16 eta 29 urte bitartean izan eta lanean ari diren hamar pertsonatik bederatzik, baina enplegu bat baino gehiago dute % 8,9k. Enplegu bat baino gehiago duten pertsonen ehunekoak % 11,7ra igotzen da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, eta egoera hori ohikoagoa da lanean eta aldi berean ikasten ari direnen artean, % 18,9k baitu lan bat baino gehiago.

13. irudia
ENPLEGU BAT EDO ENPLEGU BAT BAINO GEHIAGO
DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUAK (%)




Azaldu aurretik 30 urtetik beherako gazteen enpleguek zer baldintza dituzten (zer antzintasun, kontratu mota, lanaldi edo soldata duten), nabarmendu behar da lan bat baino gehiago egiten duten pertsonen erantzunek beti izango dutela gogoan beren ustez garrantzitsuena den enplegua (kualifikazio handienekoa delako, lanordu gehien duelako, soldata handienekoa delako, lan hori egiteko ikasi duelako edo inkesta erantzun duenak garrantzitsuena dela uste duelako).

5.2. ANTZINATASUNA ENPLEGUAN

Lanean ari diren gazteen laurdenek baino zertxobait gehiagok (% 26,3k) adierazten dute sei hilabete baino gutxiago daramatela egungo lanean; % 17,7k dio sei hilabete eta urtebete bitartean daramala, % 23,8k urtebete eta hiru urte bitartean daramala, eta % 31,6k hiru urte baino gehiago daramala.

14. irudia
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK LANEAN DUTEN ANTZINATASUNA (%)



Krisia hasi ondotik, behera egin du, 1. kapituluan adierazi dugun moduan, lanean ari diren gazteen ehunekoak (% 42,8 ziren 2008. urtean eta % 34,8 dira 2015. urtean), baina krisiaren aurretik baino antzintasun handiagoa dute gaur egun lan egiten dutenek. Lanean ari ziren 30 urtetik beherako gazteen %24,0k zeramatzen, 2008. urtean, hiru urte baino gehiago bere enpleguan lanean, baina ehuneko hori % 31,6ra igo da 2015. urtean.


Era berean, handitu egin da lanean urtebete baino gutxiago daramatenen ehunekoa (% 44,0ra iritsi da 2015. urtean). Horrenbestez, bi egoera kontrajarri ikusten ditugu krisiaren ondorenean: krisiaren bulkadari eutsi eta lanean hiru urtekoa baino antzintasun handiagoa dutenen egoera, batetik, eta aldi baterako lanak soilik lortu eta beren lanean urtebete baino gutxiago daramatenen egoera, bestetik.

Logikoa den moduan, enpresan hiru urte baino gehiago daramatzatzenen ehunekoa handiagoa da 25 eta 29 urte bitartean dituztenen artean, 25 urte bete gabeak dituztenen artean baino (% 36,1 eta % 20,9, hurrenez hurren).

Emakumeenak baino antzintasun-datu handiagoak dituzte gizonezkoek. Gizon gazteen % 34,3k daramatza hiru urte baino gehiago lanean beren enpleguan, eta emakumeen % 28,5 dago egoera berean.

15. irudia

LAN-ANTZINATASUNAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN ARTEAN (%)



5.3. KONTRATU MOTA

Loturarik ba al du lan-antzinatasunak kontratu motarekin?

2015. urtean, kontratu mugagabea zuen 16 eta 29 urte bitarteko pertsona okupatuen % 41,6k. Aldizkako kontratu finkoa zuen % 1,6k eta kooperatibista zen % 0,3; beraz, esan dezakegu lanean jarraitzeko bermea dakarkien kontratu bat dutela okupatutako gazteen % 43,5ek.


Talde horri autonomoak eta enpresaburuak gehitzen baldin badizkiogu (okupatutako pertsona guztien % 6,1 dira), ondoriozta dezakegu okupatutako gazteen erdiek (% 49,6k) egoera egonkorra dutela lanean (enpresaren funtzionamendua alde batera utzita).

Bestalde, aldi baterako lan-kontratu bat du lanean ari diren gazteen % 44,2k. Talde edo pertsona multzo horren barruan daude obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua dutenak (% 16,4), urte-sasoi edo denboraldiko kontratua dutenak (% 11,2), praktiketako edo ikasketako kontratua dutenak (% 4,4), behin-behineko kontraturen bat dutenak (% 2,5) eta aldi baterako bestelako kontraturen bat dutenak (% 9,6).

Azkenik, ez du kontraturik % 5,9k.

16. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONTRATU MOTAK (%)



Zenbat eta antzintasun handiagoa izan enpresan, orduan eta handiagoa da kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa duten gazteen ehunekoa; hala ere, adierazi behar da beren enpleguan hiru urte baino gehiago daramatzatenean % 19,1ek aldi baterako kontratu motaren bat duela, eta % 3,8k ez duela kontraturik.

4. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONTRATU MOTA, EGUNGO LANEAN DUTEN ANTZINATASUNAREN ARABERA (%)

Egungo lanean duten antzintasuna (%)	GUZTIRA	Egungo lanean duten antzintasuna			
		6 hilabete baino gutxiago	6 hilabete eta urtebete bitartean	Urtebete eta 3 urte bitartean	3 urte baino gehiago
Lan-kontratu mugagabea*	43,5	15,0	20,3	53,7	72,4
Aldi baterako lan-kontratua	44,2	69,2	68,5	32,8	19,1
Norberaren kontura	6,1	2,7	6,6	11,0	4,8
Lan-kontraturik gabe	5,9	13,1	4,6	1,9	3,8
Ed/Ee	0,3	0,0	0,0	0,6	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100


* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere kategoria honetan sartzen dira.

Zer bilakaera izan dute kontratazio motek azken urteetan?

Kopuruak ez dute aldaketa handirik izan 2000. urteaz geroztik. Egia da kontratu mugagabea (kontratu mota horren barruan sartzen dira aldizkako kontratu finkoa dutenak eta kooperatibistak ere) zuten gazteen ehunekoa handiagoa zela 2008an eta 2011n aldi baterako kontratua zutenena baino, baina urte horietan ere ez zen % 50era iristen. 2015. urtean kontratu mugagabeen kopuruak gora egin du 2013. urtearekiko, eta gaur egungo egoera 2004. urtean izan zenaren antzekoa da.

17. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK DITUZTEN KONTRATU MOTEN BILAKAERA (%)



* 2000. urtean eta 2004. urtean erantzun aukera ez zen "kontraturik gabe" izan, baizik eta "noizbehinkako lanak"; erantzun aukera biak parekatu dira konparatu ahal izateko.

Emakumeek baino kontratu mugagabe gehiago dituzte gizon gazteek; 2015. urtean, lanean ari diren gizonen % 47,1ek zuen kontratu mugagabea (aldizkako kontratu finkoa dutenak eta kooperatibistak ere kategoria honetan sartuta daude), eta lanean ari ziren emakumeen % 39,3k zuen kontratu mota hori. Gizonen artean ere gehiago dira autonomoak eta enpresaburuak emakumeen artean baino (% 7,9 eta % 4,1, hurrenez hurren). Bestalde, aldi baterako kontratuen ehuneko handiagoa dute emakumeek: emakumeen % 51k eta gizonen % 32,8k.

Adinak ere alde handiak dakartza; izan ere, kontratu mugagabeen ehuneko handiagoa ageri dute 25 eta 29 urte bitartekoek (% 45,4), 25 urte egin gabeak dituztenek baino (% 39). Azken talde edo pertsona multzo horrek ez du aldi baterako kontratuen ehuneko handiagorik ageri (% 42,7, eta, 25 eta 29 urte bitartekoen artean, % 44,8), baina kontraturik gabeko lanen ehuneko handiagoak ditu, 25 urtetik beherako gazte okupatuak % 11,1ek adierazten baitu kontraturik gabe egiten duela lan.

5. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONTRATU MOTAK, SEXUAREN, ADIN TALDEEN, BIZI DIREN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA JAIOLAKUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak		Bizi diren lurralde historikoa			Jaiolekua	
		Gizonak	Emakumeak	16-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Atzerria
Lan-kontratu mugagabea*	43,5	47,1	39,3	39,0	45,4	41,2	48,6	36,1	42,8	46,0
Aldi baterako lan-kontratura	44,2	38,2	51,0	42,7	44,8	48,6	40,7	47,8	45,8	38,6
Norberaren kontura	6,1	7,9	4,1	6,7	5,9	7,5	4,7	8,0	6,3	5,1
Lan-kontraturik gabe	5,9	6,7	5,0	11,1	3,7	0,9	6,0	8,0	4,9	9,6
Ed/Ee	0,3	0,0	0,6	0,5	0,2	1,8	0,0	0,0	0,2	0,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere kategoria honetan sartzen dira.


Atzerrian jaiotako gazteen artean, bertan jaiotakoek dutenaren halako bi da kontraturik gabekoen ehunekoa: % 9,6 dira kontraturik gabeko atzerritarrak, eta % 4,9koa da Euskal Autonomia Erkidegoan jaio eta kontraturik gabeko lan egiten dutenen ehunekoa.

Bizkaiak du kontratu mugagabea duten gazteen ehuneko handiena (30 urtetik beherako gazte okupatu guztien % 48,6).

Bestalde, Europar Batasuneko herrialdeen datuekin konparatzen baldin baditugu Euskal Autonomia Erkidegoko datuak, ikusten dugu, aldi baterako kontratuei dagokienean, Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmen gaintzen dela EBko batezbestekoa (2015. urtean, % 32,6), eta, enplegu guztiekiko, aldi baterako enpleguen ehuneko handienetakoak dituzten herrialdeen artean kokatzen dela EAE.

18. irudia

2015. URTEAN ALDI BATERAKO KONTRATUA ZUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN GAINEKO DATUEN KONPARAZIOA, EAEN ETA EUROPAR BATASUNEAN (%)



5.4. NORBERE KONTURAKO LANA

Lehen adierazi dugun moduan, autonomoa edo enpresaria da gazte okupatuen % 6,1. Europar Batasuneko batezbestekoaren antzekoa da ehuneko hori (Europar Batasuneko Eurostat Estatistika Bulegoak argitaratu du % 6,4 izan zela norberaren kontura lan egiten duten gazteen ehuneko 2015. urtean)¹.

Emakumeek baino norberaren konturako lan gehiago egiten dute gizonak. Euskal Autonomia Erkidegoan gizon gazte okupatuen % 7,9k egiten du norberaren konturako lana, eta beste hainbestek Europar Batasunean (% 7,9koa da 28 herrialdeen batezbestekoa). Norberaren kontura lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen ehuneko 4,1koa da, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (% 4,1), bai Europar Batasunean (% 4,8).

Baina pertsona horiek beren enpresa propioa dute ala beste enpresaren batentzat lan egiten dute, autonomoetan alta emanda? Galdera hori egin zaie autonomoak direla deritzoten EAEko gazteei, eta gazte horien bi herenek esaten dute beren enpresa propioa dutela, eta beste herenek esaten dute beste enpresaren batentzat lan egiten dutela. Beren enpresa propioa dutela esaten dutenei begiratzen badiegu, ikusten dugu 30 urtetik beherako gazte okupatu guztien % 4,1 direla.

Beren enpresa propioa duten gazte autonomoen ehunekoei begiratuta, gizonak (% 5,5) eta Gipuzkoan bizi direnek (% 6,2) dituzte ehuneko handienak. Jatorri atzeritarra duten gazteen artean, gehiago dira autonomoen erregimenean alta emanda izan baina beste enpresa batentzat lan egiten dutenak, beren enpresa propioa dutenak baino.

6. taula

AUTONOMOEN ERREGIMENEAN LAN EGIN EDO ENPRESABURU DIREN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN EGOERA, SEXUAREN, ADIN TALDEAREN,
BIZI DIREN LURRALDE HISTORIKOAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak		Bizi diren lurralde historikoa			Jaiolekua	
		Gizonak	Emakumeak	16-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Atzerria
Beren enpresa propioa dute	4,1	5,5	2,4	4,9	3,7	4,6	2,6	6,2	4,3	1,9
Beste enpresaren batentzat lan egiten dute	2,1	2,4	1,7	1,7	2,3	2,9	2,0	1,8	2,0	3,2
AUTONOMOEN ERREGIMENEAN ALTA EMANDA DAUDEN GUZTIAK	6,1	7,9	4,1	6,7	5,9	7,5	4,7	8,0	6,3	5,1

30 urteko gazte okupatu guztien % 8,3 ziren 2013. urtean autonomoen erregimenean alta emanda izan edo beren enpresa propioa zutenak. Hau da, ehunekoak erdira jaitsi dira bi urte hauetan.

¹ Norberaren konturako enpleguaren definizio hau ematen du Eurostat erakundeak: *Self-employed persons are the ones who work in their own business, farm or professional practice. A self-employed person is considered to be working if she/he meets one of the following criteria: works for the purpose of earning profit, spends time on the operation of a business or is in the process of setting up his/her business.*

5.5. NON EGITEN DUTEN LAN BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN GAZTEEK

Bestalde, besteren kontura lan egiten duten gazteei galdetu zaie zer erakunde motatan lan egiten duten, zer kontratu mota duten kontuan izan gabe.

Gehiengoak, hamarretik zortzik (% 80,6), enpresa pribaturen batean lan egiten duela erantzun du. Sektore publikoan lan egiten duela erantzun du % 10,5ek: administrazio publikoren batean % 5,5ek, eta enpresa publikoren batean beste %5ak². Horrez gainera, kooperatibaren batean lan egiten du % 3,7k, etxeko lanetan (etxeko zerbitzuan) % 3,3k, Gobernu Kanpoko Erakunderen batean edo irabazi asmorik gabeko erakunderen batean % 0,6k, eta beste erakunde motaren batean % 1,3k.

Aurreko urteetako datuekin konparatzen baldin baditugu 2015eko datuak, ikusten dugu ez dela ia aldaketarik izan aztertu diren lau urteetan, eta enpresa pribatuetan lan egiten dutela besteren kontura lan egiten duten gazte gehienek.

7. taula

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK ZER ERAKUNDE MOTATAN LAN EGITEN DUTEN. BILAKAERA 2011-2015 (%)

(%)	2011	2013	2015
Enpresa pribatua	83,3	81,1	80,6
Enpresa publikoa	5,4	5,0	5,0
Administrazio publikoa	3,5	3,2	5,5
Kooperatiba	1,8	2,1	3,7
Etxeko zerbitzua	2,5	3,8	3,3
Irabazi asmorik gabeko erakundea	0,1	1,3	0,6
Beste erakunde mota bat	2,7	2,1	1,3
Ed/Ee	0,6	1,4	0,0
GUZTIRA	100	100	100

2015. urtean, enpresa pribatuan lan egiten dutela adierazi dute, gazteen talde guztietan, talde horietako gazteen erdiek baino gehiagok.

Edonola ere, nabarmendu behar da, gutxiengo diren arren, emakume gazteek presentzia handiagoa dutela administrazioan gizon gazteek baino, eta egoera hori bera ikusten dela etxeko zerbitzuan. Hala ere, atzerritarren presentzia nabarmentzen da etxeko zerbitzuan (% 18,2).

Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak batezbestekotik gorako presentzia dute sektore publikoan (% 15,5 dira, baturan, administrazio publikoan edo enpresa publikoren batean lan egiten dutenak).

Eta batezbestekoa baino presentzia-ehuneko handiagoa ageri dute 25 eta 29 urte bitartekoek administrazio publikoan (% 7,2).

² Administrazio publiko dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, Osakidetza, hezkuntza, Lanbide, Ertzaintza, udaltzaingoa eta suhiltzaileak. Enpresa publikoak dira, esaterako, EiTB, EVE, SPRI, VISESA, EJIE, Bidegi edo Lantik.

8. taula

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK ZER ERAKUNDE MOTATAN LAN EGITEN DUTEN, SEXUAREN, ADIN TALDEAREN, AMAITUTAKO IKASKETA MAILA HANDIENAREN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak		Amaitutako ikasketa maila handiena			Jaiolekua	
		Gizonak	Emakumeak	16-24	25-29	Derrigo- rezkoak	Bigarren mailakoak*	Goi- mailakoak	EAE	Atzerria
Enpresa pribatua	80,6	84,3	76,5	82,4	79,9	83,1	84,0	77,4	81,9	74,8
Enpresa publikoa	5,0	5,7	4,2	7,6	3,8	2,8	4,7	6,0	5,1	3,0
Administrazio publikoa	5,5	3,5	7,7	1,3	7,2	1,6	1,7	9,5	5,9	2,4
Kooperatiba	3,7	3,9	3,5	2,7	4,1	2,9	3,6	4,0	4,7	0,0
Etxeko zerbitzua	3,3	0,6	6,3	4,2	3,0	4,8	5,1	1,6	0,2	18,2
Irabazi asmorik gabeko erakundea	0,6	0,6	0,7	0,0	0,9	1,6	0,0	0,7	0,8	0,0
Beste erakunde mota bat	1,3	1,5	1,1	1,8	1,1	3,3	0,9	0,9	1,3	1,6
TOTAL	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailakoak (Batxiller edo erdi-mailako prestakuntza-zikloa).

Bestalde, zer erakunde motatan lan egiten duten eta kontratu mota konbinatuz gero, ikusten da kontraturik gabe lan egiten duela etxeko zerbitzuan lan egiten duten hamar pertsonatik lauk. Eta kooperatibaren batean lan egiten duten hamar gaztetik bakarra dela kooperatibista.


5.6. LANALDI MOTA ETA LANORDUEN KOPURUA ASTEAN

Lanaldi osoan lan egiten dute 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen bi herenek (% 65,3k), eta lanaldi partzialean lan egiten du beste herenak (% 34,6).

Lanaldi "estandarrak" edo enpresan lan egiten den ordu kopuru handieneko lanaldiak (enpresa batzuek 8 orduetik beherako lanaldiak dituzte ezarriak) baino lanordu gutxiago dituen lanaldiari esaten zaio lanaldi partziala.

Lanaldi osoko lanak egiten nabarmentzen dira 25 eta 29 urte bitarteko pertsonak (% 67,1) eta, bestelako ikasketa osagarriarik egin gabe, dedikazio eskusiboan lan egiten ari direnak (% 68,4). Baina gizonen eta emakumeen artean antzematen dira, zalantzarik gabe, alderik handienak. Gizon gazteen % 77,9k lan egiten du lanaldi osoan, eta emakume gazteen artean, berriz, % 50,9ra jaisten da ehuneko hori. Izan ere, emakume guztien ia erdiek (% 48,9k) lanaldi partzialean lan egiten dute.

Lanaldi partzialen ehunekoak gora egin du azken urteotan, bai gizonen artean, bai emakumeen artean; hala ere, gehiago handitu da emakumeen artean. Horrez gainera, 2013 eta 2015 urteen bitartean, zertxobait handitu da lanaldi osoan lan egiten duten gizonen ehunekoa, baina ez da hori gertatu emakumeekin; aitzitik, hamar puntu egin du gora lanaldi partzian lan egiten duten emakume gazteen ehunekoak.



Europar Batasunekoekin konparatzen baldin baditugu datu horiek, ikusten dugu Europar ere alde handiak ageri direla emakume eta gizon gazteen lanaldi partzialen artean.

Europar Batasuneko 28 herrialdeen batezbestekoak adierazten digu 15 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak % 23,2k egiten duela lan lanaldi partzian. Euskal Autonomia Erkidegokoa (% 34,6) baino dezente txikiagoa da ehuneko hori. Hala ere, ikusten da sexuaren arabera Europar Batasunean: emakume gazte europarren % 31,1ek lan egiten du lanaldi partzian, baina gizon gazte europarren % 16,4k soilik egiten du lan lanaldi partzian.

Herbehereak, Danimarka eta Suedia dira lanaldi partzian ehuneko handienak dituzten herrialdeak Europar Batasunean (horiek soilik gainditzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ehunekoak).

9. taula

2015. URTEAN EAEN ETA EUOPAR BATASUNEAN LANALDI PARTZIALEAN LAN EGIN DUTEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONPARAZIOA, SEXUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Herbehereak	64,8	52,7	77,1
Danimarka	52,4	42,9	62,3
Suedia	36,3	25,4	47,5
EAE	34,6	22,1	48,9
Irlanda	30,3	24,6	36,1
Finlandia	29,0	22,0	36,3
Erresuma Batua	28,2	19,7	37,8
Espainia	27,7	21,4	34,7
Italia	24,8	16,3	36,6
Eslovenia	23,9	17,3	32,4
EB (28)	23,2	16,4	31,1
Austria	22,3	14,1	31,3
Alemania	21,7	15,7	28,2
Belgika	20,4	10,6	31,4
Zipre	19,7	13,6	25,2
Luxenburgo	19,0	12,7	25,7
Frantzia	18,7	10,6	27,7
Grezia	17,0	13,9	21,1
Estonia	16,3	9,6	25,1
Malta	15,0	11,8	18,6
Portugal	14,8	12,4	17,4
Errumania	11,2	11,8	10,3
Polonia	9,0	6,2	12,7
Lituania	8,1	6,8	9,5
Kroazia	8,0	7,0	9,2
Letonia	7,5	4,7	10,8
Txekiar Errepublika	6,9	3,9	11,3
Eslovakia	6,3	4,6	10,1
Hungaria	5,1	4,6	5,9
Bulgaria	3,4	3,1	3,8

Europako datuen iturria: Eurostat. Datu horiek 15 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuei dagozkie.

Zeintzuk dira lanaldi partzian lan egiteko arrazoiak?

EAEn lanaldi partzian lan egiten duten gizonen eta emakumeen ia bi herenek (% 62,6) adierazi dute ez dutela lanaldi osoko lanik aurkitu, beste % 17,2k esan du hala nahi duelako edo komeni zaiolako lan egiten duela lanaldi partzian, familia-betebeharren ondorioz egiten duela adierazi du % 3,8k, enplegua erregulatzeko espediente

batean, lanorduen nahitaezko murrizketa batean edo enpresak behartuta egiten duela adierazten du % 3,1ek, eta gainerako % 12,8ak bestelako arrazoi zehaztugabeak eman ditu.

Datu horien bilakaerari erreparatuta, ikusten da, serie osoan, lanaldi osoko lanik ez aurkitu izana dela lanaldi partzialean lan egitearen arrazoi nagusia. Hau da, lanaldi partzialean lan egiten duten gazte gehienek ez dute borondatez lan egiten lanaldi horretan, ez orain ez aurreko urteetan.

10. taula

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK LANALDI HORRETAN LAN EGITEKO DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)


(%)	2011	2013	2015
Ez dute lanaldi osoko lanik aurkitu	59,3	66,0	62,6
Hala nahi dute edo komeni zaie	17,4	10,4	17,2
Familia-betebeharrak dituzte	4,8	6,3	3,8
Enplegua erregulatzeko espedientea dute edo enpresak behartutako lanorduen nahitaezko murrizketa dute	*	0,6	3,1
Bestelako arrazoiren bat	16,7	12,8	12,8
Ed/Ee	1,8	3,9	0,6
GUZTIRA	100	100	100

* 2011. urtean ez zen erantzun aukera hori kontuan hartu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gazte askok lan egiten du lanaldi partzialean lanaldi osoko lanik topatu ez duelako, Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeen batezbestekotik gorako ehunekoan (% 34,5, batez beste, Europar Batasunean 2015. urtean).

20. irudia

LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATU GUZTIEN ARTEAN, ZENBATEK DUTEN LANALDI MOTA HORI LANALDI OSOKO ENPLEGURIK TOPATU EZ DUTELAKO. EAE ETA EUROPAR BATASUNAREN ARTEKO KONPARAZIOA 2015. URTEAN (%)



Sexuaren araberako aldeei erreparatzen baldin badiugu, ikus dezakegu lanaldi partzialean lan egiten duten EAEko gizon eta emakume gazte gehienek argudiatzen dutela lanaldi osoko lanik topatu ezin izana dela egoera horren arrazoia; hori diote lanaldi partzialean lan egiten duten gizon gazteen % 67,1ek eta lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen % 60,3k. Gizonen eta emakumeen arteko alde hori are nabarmenagoa da langile gazteen kopuru osoarekiko datuari erreparatzen baldin badiogu, lanaldi partzialean lan egiten dutenei soilik begiratu beharrean. Hori horrela, ikusten dugu lanean ari diren emakumeen % 29,5ek (hau da, hamarretik hiruk) adierazten duela ez duela lanaldi osoko lanik aurkitu; bestalde, horixe bera esan du lanean ari diren gizonen % 14,8k.

Gizonek baino ehuneko handiagoan egiten dute lana emakumeek lanaldi partzialean, edo lanaldi murriztuan, familia-betebeharrak betetzeko; izan ere, lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen % 5,1ek adierazten du arrazoi horregatik lan egiten duela lanaldi horretan, eta gizonen % 1,3k ematen du arrazoi hori bera.

Antzekoa da egoera Europan. Europar Batasuneko Eurostat Estatistika Bulegoak emandako datuek adierazten dute Europar Batasunean 15 eta 29 urte bitarteko adina duten eta lanaldi partzialean lanean dabilzan emakume gazteek baino gehiagotan adierazten dutela gizon gazteek lanaldi osoko lanik topatu ez dutelako ari direla lanaldi


partzialeko lanen batean lan egiten (lanaldi partziala duten gizon gazteen % 36,7k ematen du arrazoi hori, eta emakumeen % 33,2k).

Bestalde, gizonek baino gehiagotan adierazten dute emakumeek haurrak edo mendeko egoeran dauden adinekoak zaintzea eta familiaren nahiz norberaren eginkizunak betetzea dela lanaldi partzialean lan egitearen arrazoi nagusia. Lanaldi partzialean lan egiten duten emakume gazteen % 18k eman du bi arrazoi horietakoren bat, eta adin bera izan eta lan-egoera berean dauden gizonen % 2,3k eman du arrazoi horietakoren bat.

Eta zenbat lanordu egiten dituzte gazteek astean?

Euskal Autonomia Erkidegoan, astean 31 lanordu baino gutxiago egiten dituzte gazte okupatuak herenek (% 33,8); 31 eta 40 lanordu bitartean egiten dituzte % 51,1ek, eta 40 lanordu baino gehiago egiten dituzte % 14,6k. Muturretara joz gero, ikusten dugu % 4,8k lan egiten duela 10 lanordu gehienez astean, eta % 4,3k egiten dituela 50 lanordu baino gehiago astean.

21. irudia
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK ASTEAN EGITEN DITUZTEN LANORDUAK (%)



Gero eta lanaldi partzial gehiago egiten direnez, handitu egin da astean gehienez 30 lanordu egiten dituzten gazteen ehunekoa: % 28,1ekoa zen ehuneko hori 2011. urtean, eta % 33,8koa izan da 2015ean.

Gizonek baino lanaldi partzialeko lan gehiago dituzte emakumeek, eta, batez beste, gizonek baino lanordu gutxiago egiten dituzte. Emakumeen ia erdiek (% 47,3k) astean 30 lanordu egiten dituzte gehienez. Bestalde, gizonen % 22,2k adierazten du 31 lanordu baino gutxiago egiten dituela astean.


Kontratuen tipologiari begiratu gero, ikusten dugu bi muturretan daudela, batetik, kontraturik gabe lan egiten dutenak, eta, bestetik, autonomoak edo enpresaburuak direnak. Gehienez 20 lanordu egiten dituzte astean kontraturik gabe lan egiten dutenen erdiek baino gehiagok (% 58,1ek). Beste muturrean, 40 lanordu baino gehiago egiten dituzte astean autonomoen eta enpresaburuaren erdiek baino gehiagok (% 57,7k), izan ere, 50 lanordu baino gehiago egiten dituzte astean pertsona multzo horren herenek.

5.7. ENPLEGUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO LOTURA

Egiten duten lanaren eta egindako ikasketen arteko loturari begiratuta, gazte okupatuak erdiek (% 52,7k) esaten dute lotura handiko edo oso handiko lanen bat egiten dutela, eta beste erdiek (% 46,7k) esaten dute lotura txiki edo deusezeko lanen bat egiten dutela.

Muturretara joanez gero, gazte okupatuak herenek, % 33,1ek, esaten dute beren ikasketekin lotura hertsia duen lanen bat egiten ari direla, eta % 33,7k adierazten du bere ikasketekin batere loturarik gabeko lanen bat egiten ari dela. Bi mutur horien artean, ikasketekiko lotura dezente edo txiki lanen bat dutela adierazten dutenen artean banatzen da beste herena.

22. irudia
BEREN ENPLEGUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO LOTURARI BURUZKO IRITZIAK
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN ARTEAN (%)



Kontuan izan behar da, beti, iritzi subjektiboak direla hemen adierazitakoak.

Egiten duten lanaren eta beren ikasketen arteko lotura handia edo oso handia dela uste dutenen ehunekoa % 50 eta % 60 bitartekoa da azken urteetan: % 51,5koa 2008. urtean; % 58,7koa 2011. urtean; % 52,9koa 2013. urtean eta % 52,7koa 2015. urtean.

2015. urteko azken datuek adierazten dute ez dagoela alde nabarmenik gizon eta emakume gazteen artean, baina ikusten da alderik amaitutako ikasketen arabera, jairolekuaren arabera eta gazte okupatuak lan- eta kontratu-egoeraren arabera.

Erdi- edo goi-mailako prestakuntza-zikloak egin dituzten gazteek baino ehuneko handiagoan adierazten dute unibertsitate-graduaren bat amaitu duten gazteek beren lanak lotura handia edo oso handia duela beren ikasketekin (% 72,6 eta % 54,6, hurrenez hurren).

Atzerrian jaiotako gazteek baino ehuneko nabarmen handiagoan dute Euskal Autonomia Erkidegoan jaio eta lanen bat duten gazteek beren ikasketekin lotutako lanen bat (EAEn jaiotakoak % 56,8k du bere ikasketekiko lotura duen lanen bat, eta izaera horretako lanen bat du atzeritarren % 30,9k).

Bestalde, kontraturik gabe lan egiten duten gazteen ia bi hereneko ehunekoak (% 64,3k) adierazten du bere egungo lanak ez duela zerikusirik bere prestakuntzarekin, eta horixe bera adierazten dute autonomoen eta enpresaburuaren ia erdiek (% 46,7k).

5.8. SOLDATA ETA SOLDATAREN GAINEKO BALORAZIO SUBJEKTIBOA

Euskal Autonomia Erkidegoan 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazte okupatuak 1000 € inguru irabazten dituzte, batez beste, hilean (zehazki, 996 €).

Hori da batez besteko soldata, baina alde handiak daude taldetik taldera.

Lanaldi osoan lan egiten dutenek 1195 € irabazten dute, batez beste, hilean, eta lanaldi partzian lan egiten dutenek, berriz, 605 €.

Emakumeek baino gehiago irabazten dute gizonek: batez beste 1125 € irabazten dituzte gizonek, eta 867 € emakumeek. Adierazi dugu, lehentxeago, lanaldi partzian lan egiten dutela gaur egun emakume gazteen ia erdiek, eta lanaldi osoan lan egiten dutenen erdia irabazten dutela, batez beste, lanaldi partzian lan egiten dutenek. Baina, hori al da emakumeek gizonek baino soldata apalagoak izatearen arrazoi bakarra? Galdera horri erantzuteko, lanaldi osoan lan egiten duten gizonek eta emakumeen soldatak konparatu ditugu, eta, egoera horretan ere, emakumeek baino gehiago irabazten duten gizonek: 1242 € irabazten dute gizonek eta 1119 € emakumeek. Ezin da esan, beraz, emakumeen artean lanaldi partzialen ehuneko handiagoa izatea denik soldata-diferentzia horren arrazoi bakarra.

11. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN BATEZ BESTEKO SOLDATA,
SEXUAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA (%)

(€)	GUZTIRA	Sexua	
		Gizonak	Emakumeak
Batez besteko soldata, guztira	996	1125	867
Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata	1195	1242	1119
Lanaldi partzian lan egiten dutenen batez besteko soldata	605	599	607


Zer bilakaera izan dute batez besteko soldatek azken urteetan?

Ez dute aldaketa handirik izan azken urteetan. Batez besteko soldata, 2011. urtean, 998 €-koa izan zen 30 urtetik beherako gazteen artean, 966 €-koa izan zen 2013. urtean, eta 996 €-koa izan da 2015ean.

Batezbestekoak oso antzekoak diren arren, 2015. urtean handitu egin da gizonek batez beste irabazitako soldata, eta behera egin du emakumeen batez besteko soldatak (lanaldi partzialen kopuruaren igoerak eragina izan du beherakada horretan).

23. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (€)



Soldatak tartetean banatuz gero, ikusten da, 2015. urtean, hilean 1000 € baino gutxiago irabazten dutela hamar gazte okupatutik lauk (% 39,4). Bestalde, % 14k soilik irabazten du, hilean, 1500 € baino gehiago.

Emakumeei erreparatuz gero, emakume gazte guztien % 55,9k (hau da, erdiek baino gehiagok) ez du, hilean, 1000 €-ko langa iristen; gizonen kasuan % 31,0 dira (herena baino gutxiago) hilean 1000 € baino gutxiago irabazten dutenak.

Eta, gazte okupatuen iritzian, ondo ordaintzen al diete egiten duten lana?

Lanean ari diren pertsona gazteen % 53k uste du ondo ordaintzen diotela egindako lana: oso ondo % 9,6ren ustean eta nahiko ondo % 43,4ren ustean. Baina iritzi orokor hori nabartu egiten da gazteen taldetik taldera.

Lanaldi partzialean lan egiten dutenak baino gusturago daude irabazten duten soldatarekin lanaldi osoan lan egiten dutenak; izan ere, lanaldi osoan lan egiten dutenen % 56,5ek uste du oso ondo edo nahiko ondo ordaintzen diotela, baina ehuneko hori hamar ehuneko puntu apalagoa da, % 46,4koa, lanaldi partzialean lan egiten dutenen artean.

Hilean 1000 € baino gutxiago irabazten duten gehienek uste dute beren lana gaizki ordainduta dagoela; hilean 1000 € eta 1500 € bitartean irabazten dutenen artean, erdiak baino gehixeago dira ondo ordainduta daudela uste dutenak, eta hilean 1500 € baino gehiago irabazten dutenen artean, berriz, % 80 baino gehiago dira ondo ordainduta daudela uste dutenak. Hilean 2000 € baino gehiago irabazten dutenen erdiek baino gehiagok uste dute oso ondo ordainduta dagoela egiten duten lana.

12. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK BEREN LANAREN ORDAINAREN GAINEAN DUTEN IRITZIA, HILEKO SOLDATAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Hileko soldata				
		500 € baino gutxiago	500 €-999 € bitartean	1000 €-1499 € bitartean	1500 €-1999 € bitartean	2000 € edo gehiago
Oso ondo ordainduta	9,6	5,2	4,7	5,5	31,6	54,4
Nahikoa ondo ordainduta	43,4	22,1	33,6	51,7	53,4	33,5
Ondo ordainduta (oso ondo + nahikoa)	53,0	27,3	38,3	57,2	85,0	87,9
Ez oso ondo	40,8	47,9	56,5	40,7	13,1	12,1
Batere ondo ez	5,0	24,8	5,2	1,0	1,8	0,0
Ed/Ee	1,2	0,0	0,0	1,1	0,0	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

Norberak egindako lana ondo ordainduta dagoen balorazio subjektiboa handitu egin da azken urteotan: gazte okupatuen % 46,7k iritzi zuen 2011. urtean (oso edo nahiko) ondo ordaintzen zela bere lana, % 47,5ek iritzi zuen hori 2013an, eta % 53,0k 2015. urtean.

5.9. ENPLEGUA GALTZEKO EDO PREKARIO BIHURTZEKO ARRISKUA

Gazte okupatuen ia laurdenek (% 23,5ek) uste dute beren lana urtebeteko epean galtzeko arrisku handia edo nahiko handia dutela.

Ehuneko horrek behera egin du zertxobait 2013. urtearekiko (% 25,8koa izan zen urte horretan), eta 2011. urteko mailaren ingurura bueltatu da (% 23,3). Beherakada horren arrazoi nagusia da behera egin duela, 2013. urtearekiko, lana galtzeko arriskua ikusten duten emakumeen kopuruak.

2015. urtean, zer taldek uste du urtebeteko epean bere lana galtzeko arrisku handia duela?

Gizonekin alderatuta, lana galtzeko arrisku handiagoa hautematen dute emakumeek (emakumeen % 25,8k hautematen du arriskua eta gizonen % 21,5ek), eta egoera hori errepikatu egiten da urtez urte.

Lana galtzeko arrisku handia hautematen dute, era berean, 25 urtetik beherako gazteek: adin horretakoen % 28,0 dira arrisku hori hautematen dutenak; ehuneko hori % 21,6ra jaisten da 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Kontratu motak eta norberak egungo enpleguan duen antzinasunak eragin handia du lana galtzeko arriskua hautemateko; izan ere, aldi baterako kontratua dutenen % 34,3k eta kontraturik gabe lan egiten dutenen % 45,7k uste du urtebetean bere lana galtzeko arrisku nahiko handia edo oso handia duela; era berean, beren enpleguan sei hilabete baino gutxiago daramatenen % 39,4k uste du litekeena dela bere lana galtzea, eta ehuneko hori antzekoa da (% 39,2koa) da enpresan sei hilabete eta urtebete bitartean daramatenen artean. Ehunekoak nabarmen egiten du behera enpresan urtebete eta hiru urte bitartean daramatenen artean, % 13,3koa baita, eta galera-arriskuaren pertzepzio hori % 10etik behera jaisten da (% 9,4ra, hain justu) enpresan hiru urtetik gora daramatenen artean.

Jatorriak ere badu eraginik enplegua galtzeko pertzepzioan (egiazkoa edo subjektiboa): pertsona gazte atzeritarren % 30,6k uste du litekeena duela enplegua galtzea, eta EAEn jaiotakoen % 21,9k du pertzepzio hori.

Eta, enplegu galtzeko arriskurik hauteman ez arren, zenbatek uste du okertu egin daitezkeela bere lan-baldintzak?


Urtebetean lana gal dezakeela uste duen % 23,5 horrez gain, beste % 8,7k uste du bere lan-baldintzak okertzeko arrisku nahiko edo oso handia duela denbora-epe horretan; horrenbestez, 30 urtetik beherako pertsona okupatuen herenak daude (% 32,2) enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskuan (edo ehuneko horrek du, bederen, hori gerta dakioken pertzepzio subjektiboa).

Zenbait kasutan, lana prekario bihurtzeko arriskua gehitzen zaio lana galtzeko arriskuari, eta horrek egoera kalteberagoan jartzen ditu pertsona horiek. Hori gertatzen zaie, batik bat, emakumeei, atzeritarrei eta kontraturik gabe lan egiten dutenei.

Beste pertsona batzuek ez dute lana galtzeko arriskua hautematen, baina bai beren lan-baldintzak okertzekoa; hori gertatzen zaie enpresan hiru urtetik gorako antzinatasuna dutenei (langile horien % 12,5ek adierazten du lana prekario bihurtzeko arriskua duela —batezbesteko orokorra baino lau puntu handiagoa da ehuneko hori—).

24. irudia

LANA GALTZEKO ETA PREKARIO BIHURTZEKO ARRISKUA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN ARTEAN, SEXUAREN, JATORRIAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA (%)



Lan-baldintzak okertzeko arriskuak behera egin du 2013. urtearekiko, urte horretan gazte okupatuen % 17,1ek uste baitzuen, lana galduko ez bazuen ere, okertu egingo zirela, urtebeteko epean, bere lan-baldintzak.


Guztira, lana galtzeko arrisku handia dutela uste dutenen ehunekoa eta beren lan-baldintzak okerrera egiteko arrisku handia ikusten dutenen ehunekoa batuz gero, ikusten dugu enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskuak hamar ehuneko-puntu egin duela behera 2013. urtetik (% 42,9koa zen urte horretan) 2015. urtera (% 32,2koa izan da).

5.10. LANAREKIKO POZTASUNA ETA LANEZ ALDATZEKO GOGOA

Lanean ari diren gazteen ia bi hereneko ehunekoak (% 62,7k) dio pozik dagoela egun duen lanarekin, eta gazte horien herenek baino gehiagok (% 36,5ek) diote lanez aldatuko luketela posible izanez gero.

25. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK BEREN EGUNGO LANAREKIN DUTEN POZTASUNA (%)



Lanarekiko poztasuna zertxobait handitu da 2013tik 2015era (lanarekin pozik zeuden gazteen ehunekoa % 60,8koa zen 2013. urtean). Hala ere, bilakaera hori ez da berdina izan gizonengan eta emakumeengan; izan ere, poztasun hori % 60,1etik % 65,7ra handitu da gizonen artean, eta zertxobait jaitsi da, % 61,5etik % 59,3ra, emakumeen artean.

Taldetik taldera, alde handiak ikusten dira egungo enpleguarekiko poztasunean. Honako alderdi hauek dute eragin handiena poztasun horretan: kontratu mota, lanaldi mota, ikasketekin lotutako lana izatea eta soldata.

Norberaren kontura lan egiten duten pertsonak dute poztasun-mailarik handiena (pozik ageri da langile horien % 78,3), baina honako bi egoera hauek ikusten dira talde edo kolektibo horren barruan: beren enpresa propioa dutenen % 95,6k adierazten du pozik dagoela; baina autonomoen erregimenean alta-egoeran daudenen artean poztasun hori % 44,8ra jaisten da, eta gehiago dira lanez aldatuko luketenak, beren lanarekin pozik daudenak baino.

Besteren kontura lan egiten dutenei erreparatuz gero, poztasun handiagoa dute kontratu mugagabea edo aldizkako finkoa dutenek eta kooperatibistek (% 69,3), aldi baterako kontratua dutenek baino (% 59,0). Egoera errotik aldatzen da kontraturik ez dutenen artean, eta gehiago dira (% 71,6) lanez aldatu nahi dutenak.

Lanaldi osoan lan egiten duten langileen hiru laurdenek (% 73k) diote pozik daudela egun duen lanarekin; aitzitik, lanez aldatuko lirateke, posible izango balute, lanaldi partzialean lan egiten duten gazteen erdiak baino gehiago (% 55,8).

Astean egiten dituzten lanorduei begiratuta, ikusten da lanaldiaren iraupenarekin batera egiten duela gora lanarekiko poztasunak: poztasuna % 43,9koa da astean gehienez 30 lanordu egiten dituztenen artean, % 69,4koa astean 31 eta 40 lanordu bitartean egiten dituztenen artean, eta % 82,5koa astean 40 lanordu baino gehiago egiten dituztenen artean. Gogoratu behar da norberaren kontura lan egiten dutenek egiten dutela lanordu gehien astean, eta horiexek dira beren lanarekin poztasun handiena ageri dutenak.

13. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK BEREN EGUNGO LANAREKIN DUTEN POZTASUNA, KONTRATU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Kontratu mota			Lanaldi mota		
		Mugagabea*	Aldi baterakoa	Norberaren kontura	Kontraturik gabe	Osoa	Partziala
Pozik daude egun duten lanarekin	62,7	69,3	59,0	78,3	28,4	73,0	43,4
Lanez aldatuko lukete, posible izanez gero	36,5	30,3	39,8	21,7	71,6	26,3	55,8
Ed/Ee	0,8	0,4	1,1	0,0	0,0	0,6	0,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

* Aldizkako finkoak eta kooperatibistak ere kategoria honetan sartzen dira.

Bestalde, egin dituzten ikasketekin lotura handia edo oso handia duen lanen bat egiten duten pertsonen poztasun handiagoa ageri dute beren lanarekin (% 74,9 daude pozik), ikasi dutenarekin lotura handirik ez duten lanak egiten dituztenek baino. Ikasitakoarekin loturarik ez duten lanak egiten dituzten pertsonen artean, nahiko antzekoak dira lanarekin pozik daudenen eta lanez aldatuko luketenen ehunekoak (% 49,5 eta % 50, hurrenez hurren).

Soldatak ere eragin handia du poztasunean. Beren lana nahiko edo oso ondo ordainduta dagoela uste dutenen artean, % 79,6koa da lanarekiko poztasuna ageri dutenen ehunekoa; baina beren lanarekin pozik daudenen ehunekoa erdiko langatik behera jaisten da, % 43,4ra, beren lana gaizki edo oso gaizki ordainduta dagoela uste dutenen artean. Irabazten den soldataren zenbateko-tarteei begiratzen badiegu, ikusten dugu hilean 500 € baino gutxiago irabazten dutenen laurdenak (% 26,4) daudela pozik egun duten lanarekin; hilean 500 € eta 999 € bitartean irabazten dutenen artean, erdira igotzen da (% 50,5era) beren lanarekin pozik daudenen ehunekoa, eta hilean 1.000 € baino gehiago irabazten dituztenen artean, gehienak daude pozik egiten duten lanarekin (% 70etik gorako ehunekoetan).

14. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK BEREN EGUNGO LANAREKIN DUTEN POZTASUNA, IKASKETEKIKO LOTURAREN GAINEAN ETA SOLDATAREN GAINEAN EGITEN DUTEN BALORAZIOAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Ikasketekiko loturaren gainean duten balorazioa		Soldataren gainean duten balorazioa	
		Oso + Nahikoa lotuta	Ez oso lotuta + Batere ez	Oso ondo + Nahikoa ondo ordainduta	Ez oso ondo ordainduta + Batere ez
Pozik daude egun duten lanarekin	62,7	74,9	49,5	79,6	43,4
Lanez aldatuko lukete, posible izanez gero	36,5	24,2	50,0	20,0	56,2
Ed/Ee	0,8	0,9	0,5	0,4	0,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Lanez aldatuko luketenen, zer arrazoi ematen dituzte horretarako?

Lan-baldintza hobeak izateko gogoia, hau da, kontratu, soldata, ordutegi eta, besteak beste, laneko segurtasun-baldintza hobeak izateko gogoia da lanez aldatu nahi izateko arrazoi nagusia, hori adierazten baitute hiru gazte okupatutik bik (% 67,6k). Lehen arrazoi horren atzetik, norberaren kualifikazioari, prestakuntzari edo gaitasun pertsonalari egokiago zaion lan bat izateko gogoia da bigarren arrazoi erabiliena (% 19,2). Horien atzetik ematen dira beste arrazoi hauek: gauza berriak probatu nahi izatea, erronka berriak izatea (% 4,1), egungo lana gogoko ez izatea (% 3,0), beste herriren batean lan egin nahi izatea (% 2,0), egun egiten duten lana galtzeko beldurra edo ziurtasuna izatea eta beste bat aurkitu nahi izatea hori gertatu aurretik (% 1,1), eta harreman txarrak izatea laneko nagusiekin eta/edo lankideekin, hau da, lan-giro desegokia izatea (% 0,5).

Lan-baldintza hobeak nahi izatea da arrazoi nagusia talde edo kolektibo guztietan. Hori da gehiengoak ematen duen arrazoi, baina bada alderik langile talde bakoitzaren egoeratik egoerara.

Beren ikasketekin lotura txikia edo deuseza duen lanen bat egiten dutenen artean, gainerako gazte taldeen artean baino handiagoa da beren prestakuntzaren alorreko lan bat nahi dutenen ehunekoa (% 25,8).

Beren iritzian gaizki ordaindutako lan bat dutenen artean, batezbestekoa baino handiagoa da lan-baldintza hobeak nahi dituztenen ehunekoa (% 71,5).

Beren ikasketekin lotutako lanen bat dutenen artean eta ondo ordaindutako lana dutenen artean, gutxiengo dira lan-erronka berriei aurre egin nahi diotenak, baina, hala ere, batezbestekotik gorakoa da horien ehunekoa bi talde horietan (% 7,4koa lehen taldean eta % 6,3koa bigarrenean).

15. taula

LANEZ ALDATU NAHI DUTEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK EMATEN DITUZTEN ARRAZOI NAGUSIAK, IKASKETEKIKO LOTURAREN GAINEAN ETA SOLDATAREN GAINEAN EGITEN DUTEN BALORAZIOAREN ARABERA (%)


(%)	GUZTIRA	Ikasketekiko loturaren gainean duten balorazioa		Soldataren gainean duten balorazioa	
		Oso + Nahikoa lotuta	Ez oso lotuta + Batere ez	Oso ondo + Nahikoa ondo ordainduta	Ez oso ondo ordainduta + Batere ez
Lan-baldintza hobeak nahi dituzte (kontratu, soldata, ordutegi, segurtasun baldintzak eta abar)	67,6	76,5	62,2	59,0	71,5
Beren kualifikazioari, prestakuntzari edo gaitasun pertsonalari egokiago zaion lan bat izan nahi dute	19,2	7,8	25,8	25,9	16,5
Gauza berriak probatu nahi dituzte, erroka berriei aurre egin nahi diete	4,1	7,4	2,3	6,3	3,2
Egungo lana ez dute gogoko	3,0	1,5	3,9	1,8	3,5
Beste herriren batean lan egin nahi dute	2,0	3,2	1,4	1,3	1,8
Egungo lana galtzeko beldurra edo ziurtasuna dute eta beste bat aurkitu nahi dute hori gertatu aurretik	1,1	0,0	1,7	2,1	0,7
Harreman txarrak dituzte laneko nagusiekin eta/edo lankideekin, lan-giro desegokia dute	0,5	1,5	0,0	1,8	0,0
Beste arrazoiren bat	2,0	2,1	2,0	0,0	2,9
Ed/Ee	0,5	0,0	0,8	1,8	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100

* Ehuneko hauek kalkulatzeko lanez aldatu nahi duten gazte okupatuak hartu dira oinarri.

Aldatu al dira, 2013tik 2015era, lanez aldatu nahi dutenek ematen dituzten arrazoiak?

Bi urte horietan, behera egin dute beren prestakuntzaren alorrari lotuago zaion lan bat eskuratu nahi dutenen, edo, beren egungo lana galtzeko beldurra izan ez arren, beste lan bat aurkitu nahi dutenen ehunekoek, eta, beste muturrean, gora egin du lan-baldintza hobegoko enplegu bat lortu nahi dutenen ehunekoak.

26. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEK LANA ALDATU NAHI
IZATEKO EMAN DITUZTEN ARRAZOIEN BILAKAERA (%)

Erantzun horiek ez dira harritzekoak; izan ere, zertxobait jaitsi da, ikusi dugun moduan, enplegua galtzeko arriskua, eta, beste muturrean, igo egin da kontraturik gabe lan egiten duten gazteen ehunekoa eta lanaldi partzialean lan egiten dutenena (lanaldi partzial horietako gehienak ez dira norberaren borondatez hautatutakoak); eta, emakumeei erreparatuz gero, jaitsi egin da beren batez besteko soldata.

5.11. BESTE ENPLEGU BAT BILATZEN ARI DIRENAK

Beste lanen baten bila dabiltzala diote 30 urtetik beherako hamar pertsona okupatutatik hiruk (% 29,4k). Enpleguaren hobekuntza esaten zaio horri.

Beste lanen baten bila ari diren pertsona gazteen ehunekoak gora egin du 2011. eta 2013. urteekiko (urte horietan, % 23,2 eta % 22,2, hurrenez hurren).

Zein taldetan ari da pertsona gehien lan bila?


Logikoa den moduan, lan-baldintza okerrenak dituzten taldeetan:

- beren ikasketekin eta prestakuntzarekin lotura txikia edo ezdeusa duten lanak dituztenek (horien % 37,4 ari da beste lanen baten bila),
- aldi baterako kontratua dutenak (% 34,5) eta kontraturik gabe lan egiten dutenak (% 72,4),
- egiten duten lana gaizki ordaindua dagoela uste dutenak (% 35,9); gainera, zenbat eta txikiagoa izan hileko soldata, orduan eta gehiago dira lan bila ari direnen kopurua (% 64,8ra iristen da hilean gehienez 500 € irabazten dutenen artean),

- lanaldi partzalean lan egiten dutenak (% 47,8),
- eta enplegua galtzeko arriskuan daudenak (% 48,0) eta lan-baldintza okertzeko arriskua dutenak (% 33,4).

27. irudia

BESTE ENPLEGU BATEN BILA DABILTZAN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUAK, BEREN LAN-BALDINTZEN ARABERA (%)



Beste enplegu baten bila ari direnen artean, enplegua bilatzen diharduten denbora, batez beste, 10 hilekoa da, baina % 10,4k dio bi urte baino gehiago daramatzala beste lan baten bila. Beste enplegu baten bila ari direnen artean, zertxobait gehiago dira, lanaren bila zenbat denbora daramatzaten kontuan izan gabe, sei hileko epean lana topatzea nahiko edo oso gertagarria dela uste dutenak (% 51,2), hori gertatzeko aukerak urriak edo oso urriak direla uste dutenak baino (% 43,6).

2013. urtean, gazte okupatuaren artean, beste enplegu baten bila ari zirenek 9 hilabete zeramatzaten, batez beste, lan bila. Baina oraingoa baino nabarmen txikiagoa zen hura sei hilabeteko epean lortzeko itxaropena zutenen ehunekoa: % 22,9.

2011. urtean, lan baten bila ari zirenek 7 hilabete zeramatzaten, batez beste, bilaketa-lan horretan, eta % 36,1ek uste zuen nahiko edo oso gertagarria zela galdera horri erantzun ondorengo sei hileko epean aurkitzea enplegua.

Esan daiteke, horrenbestez, handitu egin dela, aurreko urteekiko, enpleguaren bila ematen den denbora, baina, 2015. urtean, gazteak lehen baino baikorragoak dira epe motzean (sei hilabetetan) beste enplegu bat lortzeko dituzten aukerekin. Baikortasun horren arrazoietakoa bat izan daiteke hobetu egin direla ekonomiaren eta lanaren alorretako aurreikuspenak, horren zantzu baitira langabezia-tasaren jaitsiera 2015eko laugarren hiruhilekoan (une horretantxe egin da inkesta), eta jaitsiera hori aurreko hiruhileko jaitsierari metatzea; izan ere, Eustat Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako datuek diote langabezia-tasak behera egin duela 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean: % 28,0koa izan zen 2015eko bigarren hiruhilekoan, % 26,7koa hirugarren hiruhilekoan, eta % 25,6koa laugarren hiruhilekoan (ikus Lanaren alorreko estatistikak Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean).

5.12. 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN LAN-BALDINTZAK

Orain arte 30 urtetik beherako gazte okupatuen egoera aztertu dugu, eta, hemendik aurrera, 30 eta 34 urte bitarteko enplegarari begiratuko diogu, adinean gora egin ahala egoerak hobera egiten ote duen egiaztatzeko.

Lehen adierazi dugun moduan, enpleguren bat dute 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 69k. Enplegu bakar bat du pertsona horien % 94,2k, eta enplegu bat baino gehiago % 5,8k. Enplegu bat baino gehiago dutenen ehunekoa txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartean dituzten pertsonen artean, 30 urtetik behera dituztenen artean baino (% 8,9).

Nabarmenezkoa da enplegu bat baino gehiago dutenen ehunekoa handiagoa dela 30 eta 34 urte bitarteko emakumeen artean, adin-tarte horretan dauden gizonen artean baino (% 10,6 eta % 1,5, hurrenez hurren), eta, enplegu-aniztasunaren alderdian, ez dela sexuaren araberako alde nabarmenik ageri 30 urtetik beherako pertsonen artean.

Orain, 16 eta 29 urte bitarteko pertsona okupatuekin egin dugunaren harian, pertsona okupatuen lan-baldintzak aztertuko ditugu, eta enplegu bat baino gehiago duten pertsonak aztertzean, pertsona horien ustez garrantzi handienekoa den lanari erreparatuko diogu.


5.12.1. Antzintasuna egun egiten den lanean

30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen ia bi herenek hiru urte baino gehiago daramatzate egungo lanpostuan (% 62,7).

Ehuneko horrek ia bikoiztu egiten du 30 urtetik beherako enpleguko ehunekoa; izan ere, 30 urtetik beherako pertsonen % 31,6k soilik du hiru urtetik gorako antzintasuna.

28. irudia


16 ETA 29 URTE BITARTEKOEK ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEK BEREN EGUNGO ENPLEGUAN DUTEN ANTZINTASUNAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Lanpostuen egonkortasuna, hiru urtetik gorako antzinasunean neurtua, 2013. urtekoaren antzekoa da (% 64,5), eta 2011. urtekoa baino handiagoa (% 55,1).

29. irudia

ENPLEGU-ANTZINATASUNAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUENGAN (%)



Bestalde, ez da alde adierazgarririk ikusten emakumeek eta gizonek lanpostuan duten antzinasunaren ikuspegitik.

5.12.2. Kontratu mota

30 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik seik (% 61ek) kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoren bat dute edo kooperatibistak dira, eta egoera horietakoren batean dago 30 urtetik beherakoen % 43,5.


Aldi baterako kontratua dute adin-bitarte horretan daudenen laurdenek (% 24,9k); hori horrela, ikusten da, adinak gora egin ahala, ia erdira jaisten dela kontratu mota horren ehunekoa, 30 urtetik beherakoen % 44,2k baitu kontratu hori, eta, lehen adierazi dugun moduan, 30 eta 34 urte bitarteko adinean daudenen % 24,9k.

Aitzitik, bikoiztu egiten da norberaren kontura egindako lana, % 6,1koa baita 30 urtetik beherakoen artean eta % 12,2koa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Eta kontraturik gabe lan egiten dutenei begiratuta, oso gutxi dira egoera horretan daudenak 30 urte bete ondoren (kontraturik gabe lan egiten du 30 urtetik beherako gazteen % 5,9k, baina 30 eta 34 urte bitartekoen % 1,9k egiten du lan egoera horretan).

30. irudia


16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONTRATU MOTEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN KONTRATU MOTEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Azken urte hauetan ez da nabarmen aldatu 30 eta 34 urte bitarteko gazteek kontratu motaren arabera erakusten dituzten ehunekoak.

31. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN KONTRATU MOTEN BILAKAERA (%)



Gizonek baino kontratu mugagabeen eta norberaren konturako lanaren ehuneko txikiagoak dituzte 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek; aitzitik, aldi baterako kontratuen eta kontraturik gabeko lanaren ehuneko handiagoak dituzte emakumeek. Eta aztertutako urte guztietan errepikatzen da egoera hori.

16. taula

30 ETA 34 URTE BITARTEKO EMAKUME ETA GIZON OKUPATUEN KONTRATU MOTEN BILAKAERA (%)

(%)	2011		2013		2015	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Kontratu mugagabea, aldizkako finkoa edo kooperatibistak	60,7	67,7	53,5	62,9	59,4	62,4
Aldi baterako kontratua (edozein motatakoa)	26,4	24,1	35,7	18,3	26,5	23,4
Norberaren kontura	8,6	11,9	7,5	17,6	11,8	12,5
Kontraturik gabe	3,1	0,3	3,0	1,2	2,3	1,7
Ed/Ee	1,2	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100


5.12.3. Norberaren konturako lana

Adierazi dugun moduan, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 12,2k egiten du lan bere kontura. Alabaina, beren enpresa propioa dutela esaten dutenei begiratzen baldin badiegu, 30 eta 34 urte bitarteko gazteen % 9,7 dago egoera horretan; gainerako % 2,5ak adierazten du alta-egoeran dagoela autonomoen erregimenean, baina beste enpresaren batentzat lan egiten duela. 2013. urteko datuen antzekoak dira ehuneko horiek.

Edonola ere, autonomoen erregimenean lan egin edo enpresaburu diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoari begiratuta (% 12,2), ikusten da 30 urtetik beherakoan artean ageri den ehunekoaren (% 6,2) ia bikoitza dela. Alde edo diferentzia hori errepikatu egiten da beren enpresa propioa dutenen ehunekoak behatzean: 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatu guztien % 9,7 eta 30 urtetik beherako pertsona okupatu guztien % 4,1. Autonomoen erregimenean alta-egoeran izan baina beste enpresaren batentzat lan egiten dutenen ehunekoak ere antzekoak dira adin talde batean zein bestean.

32. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO AUTONOMO ETA ENPRESABURUEN KONPARAZIOA ETA BILAKAERA, BEREN ENPRESA PROPIOA DUTEN ALA EZ AINTZAT HARTUTA (%)



Begiratzen baldin badugu 2015. urtean autonomoen erregimenean lan egiten zuten gazteetatik zenbatak zuten beren enpresa propioa (hau da, gazte okupatuen guztizko kopuruarekiko konparaziorik egin gabe), ikusten dugu 30

eta 34 urte bitartekoen % 79,8k zuela bere enpresa propioa, eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte autonomo edo enpresaburuen % 66,0k zuela bere enpresa propioa.

5.12.4. Zer erakunde motatan lan egiten duten besteren konturako langileek

Enpresa pribatuan lan egiten du 30 eta 34 urteren bitartean besteren kontura lan egiten dutenen % 74,2k; sektore publikoan lan egiten du % 15,7k (% 10,8k administrazio publikoren batean eta % 4,9k enpresa publikoren batean), kooperatibaren batean lan egiten du % 4,7k, etxeko zerbitzuan % 3,1ek, irabazi asmorik gabeko erakunderen batean % 0,9k eta bestelako erakunde motaren batean gainerako % 1,4ak.

Ez da alde handirik antzematen datu horiek besteren kontura lan egin eta 30 urtetik behera dituzten pertsona okupatuak datuekin alderatuz gero. Nabarmentzeko datu bakarra da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehuneko handixeagoa dagoela administrazio publikoan eta zertxobait txikiagoa enpresa pribatuan.

17. taula

ZER ERAKUNDE MOTATAN LAN EGITEN DUTEN BESTEREN KONTURA LAN EGITEN DUTEN GAZTE OKUPATUEK. 30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)

(%)	16-29 urte	30-34 urte
Enpresa pribatuan	80,6	74,2
Enpresa publikoan	5,0	4,9
Administrazio publikoan	5,5	10,8
Kooperatiba batean	3,7	4,7
Etxeko zerbitzuan	3,3	3,1
Irabazi asmorik gabeko erakunderen batean	0,6	0,9
Bestelako erakunde motaren batean	1,3	1,4
GUZTIRA	100	100

30 urtetik beherako pertsonekin gertatzen dena errepikatzen da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen adin-tartean; hala, gizona baino handiagoa da emakumeen ehunekoa administrazio publikoan (besteren kontura lan egiten duten emakume okupatuak % 14,5ek egiten du lan administrazio publikoan, eta adin horretako gizonen % 7,4k) eta etxeko zerbitzuan (besteren kontura lan egiten duten emakumeen % 6,5ek lan egiten du etxeren batean, eta ez dago etxeren batean lan egiten duela adierazten duen gizonik adin-tarte horretan).

Pertsona atzeritarren presentzia Euskal Autonomia Erkidegoan jaio direnena baino nabarmen handiagoa da etxeko zerbitzuan; izan ere, 30 eta 34 urte bitartean izan eta besteren kontura lan egiten duten atzeritar okupatuak % 20,1ek lan egiten du etxeko lanetan, eta ehuneko hori % 18,2koa da 30 urte baino gutxiago dituzten atzeritarren artean.

Eta, beste behin ere, 30 urtetik beherakoekin gertatzen den moduan, 30 eta 34 urte bitarteko adina izan, besteren kontura lan egin eta unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak besteren konturako gainerako langileek baino presentzia handiagoa dute sektore publikoan: talde edo kolektibo horren % 35,7k lan egiten du administrazio publikoan edo enpresa publikoren batean.

Egoera orokorrak ez du aldaketa nabarmenik izan 2011tik 2015era bitartean. Nabarmentzeko alderdi bakarra da igo egin dela, pixkanaka, 30 eta 34 urte bitarteko adinean izan eta etxeren batean lan egiten duten gazteen ehunekoa; izan ere, besteren konturako lanetan okupatutako guztien % 0,8 izan ziren 2011. urtean, % 2,7 izan ziren 2013. urtean, eta % 3,1 izan dira 2015. urtean.

5.12.5. Lanaldi mota eta lanorduen kopurua astean

Lanaldi osoko kontratuen ehunekoa gora egiten du 30 urteko adinetik aurrera; hori horrela, lanaldi osoan lan egiten du 30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen % 77,2k. Adin-tarte horretako okupatuen % 22,5ek, aldiz, lanaldi partzialean egiten du lan (ehuneko hori, berriz, % 34,6koa da 30 urtetik beherako gazte okupatuen artean).

33. irudia

16 ETA 29 ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN LANALDI MOTEN KONPARAZIOA (%)



2013. urteaz geroztik, bere horretan mantendu da 30 eta 34 urte bitartean eta lanaldi partzialean lan egiten dutenen ehunekoa (% 22,6), baina ia bi puntu igo da 2011. urtetik (% 20,7).

Kasu honetan ere, errepikatu egiten dira lanaldi partzialean lan egiten duten 30 urtetik beherako emakumeen eta gizonen artean ikusten diren diferentziak; izan ere, 30 eta 34 urteren bitartean enplegu bat duten emakumeen % 33,5ek egiten du lan lanaldi partzialean, eta adin-bitarte horretako gizonen % 12,4k egiten du lan lanaldi horretan. Hau da, adina alde batera utzita, gizonek baino lanaldi partzialeko kontratu gehiago dituzte emakumeek oro har.

Lanaldi osoko enplegurik aurkitu ez izana da emakumeek eta gizonen ematen duten arrazoi nagusia lanaldi partzialean lan egiteko, hori adierazten baitu lanaldi partzialean lan egiten dutenen % 61,5ek. Baina gizonen baino ehuneko nabarmen handiagoan adierazten dute emakumeek familia-betebeharrak dituztela lanaldi partzialean lan egiteko arrazoi nagusi (hori adierazten du lanaldi partzialean lan egiten duten emakume okupatuen % 10,9k, eta lanaldi mota hori bera duten gizon okupatuen % 2,5ek). Eta 30 eta 34 urte bitarteko emakumeen % 15,8k hala nahi duelako eta komeni zaiolako lan egiten duela lanaldi partzialean dioen arren (hau da, bere borondatezko erabakia dela), egia da gehienetan haur adingabeak zaintzeko hartzen direla borondatezko lanaldi partzial edo murriztu horiek.

18. taula

30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONA OKUPATUEK LANALDI PARTZIALEAN LAN EGITEKO ADIERAZI DITUZTEN ARRAZOIAK, SEXUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
Ez dute lanaldi osoko lanik aurkitu	61,5	55,0	77,3
Hala nahi dute edo komeni zaie	13,9	15,8	9,3
Familia-betebeharrak dituzte	8,5	10,9	2,5
Enplegua erregulatzeko espedienteak dute edo enpresak behartutako lanorduen nahitaezko murrizketa dute	0,9	1,3	0,0
Bestelako arrazoiren bat	14,2	15,6	10,9
Ed/Ee	0,9	1,3	0,0
GUZTIRA	100	100	100

Astean egindako lanorduei erreparatuta, astean 31 eta 40 ordu bitartean lan egiten dute 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen erdiek baino gehiagok (% 59,4), 30 ordu edo gutxiago lan egiten ditu % 24,2k, eta, beste muturrean, astean 40 ordu baino gehiago lan egiten ditu % 15,8k.

2011. eta 2015. urteen bitartean, % 19,6tik % 24,2ra handitu da astean 31 ordu baino gutxiago lan egiten dituzten gazteen ehunekoak. Igoera handiagoa izan da emakumeen artean (ehuneko zazpi punturen ingurukoa), gizonen artean baino (hiru puntu eta erdi igo da ehunekoak); hori horrela, 30 eta 34 urte bitarteko emakume okupatuen herenek baino gehixeagok (% 35,8k) astean 31 lanordu baino gutxiago egin dituzte 2015. urtean.

Edonola ere, 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen aldean, 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean ia hamar puntu gutxiagok egiten ditu 31 lanordu baino gutxiago astean (% 33,8 dira 30 urtetik beherakoen artean, eta % 24,2 dira 30 eta 34 urte bitartekoen artean), lanaldi osoko lana egiten duten langileen kopuruak gora egiten baitu 30 urtetik aurrera, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

5.12.6. Enpleguaren eta ikasketen arteko lotura

Bere ikasketekin lotutako enpleguen bat dutela adierazten dute 30 eta 34 urte bitarteko langileen erdiek baino gehiagok (% 55,7k). Askok dira, hala ere, beren ikasketekin lotura txikia edo deuseza duten lanak egiten dituzten pertsonak (adin horretako langileen % 43,7).

Beren ikasketekin lotura duen lanen bat egiten duten pertsonen ehunekoak gora egiten du zertxobait adin-tarte handiena dutenen artean; ehunekoak % 52,7koa da 30 urtetik beherakoen artean, eta % 55,7koa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Hala ere, azken urteetan behera egin du, 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, beren ikasketekin lotutako lanen bat egiten dutenen ehunekoak: % 62,0 ziren 2011n, % 62,9 ziren 2013an eta % 55,7 izan dira 2015ean.

34. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO OKUPATUEK BEREN ENPLEGUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO LOTURARI BURUZ EGITEN DUTEN BALORAZIOAREN BILAKAERA (%)



Ikasketekin lotutako lanaren ikuspegitik, ez da alderik ikusten gizonen eta emakumeen artean, baina ikusten da alderik amaitutako ikasketen arabera: unibertsitate-graduren bat duten 30 eta 34 urte bitarteko gazteen % 72,2k adierazten du bere ikasketekin lotutako lanen bat egiten duela, eta ehuneko hori, berriz, txikiagoa da, % 59,1ekoa, erdi- edo goi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitua dutenen artean.

5.12.7. Soldata eta soldataren gaineko balorazio subjektiboa

Batez besteko soldata 30 eta 34 urte bitartean dituzten gazte okupatuen artean 1242 €-koa da hilean, 30 urte bete ez dituztenek batez beste irabazten dutena baino 246 € handiagoa.


30 eta 34 urte bitarteko adinean, emakumeek baino 234 € gehiago irabazten dituzte hilean gizonak (1118 € eta 1352 €, hurrenez hurren), baina egia da, lehen adierazi dugun moduan, emakumeek baino lanaldi osoko lan gehiago egiten dituztela gizonak. Lanaldi osoan lan egiten dutenek 1374 € irabazten dituzte batez beste, eta 782 € irabazten dituzte lanaldi partzialan lan egiten dutenek.

30 eta 34 urte bitarteko gazteen batez besteko soldata, 2015. urtean, zertxobait handitu da 2013. urtearekiko (1186 €) eta 2011. urtearekiko (1210 €).

Adin talde guztiei begiratzen badiegu, ikusten da 29 urtetik gorako eta 25 urtetik beherako artean gertatu direla igorarik handienak 2013. urtearekiko, baina ez da hori gertatu 25 eta 29 urte bitarteko artean.

35. irudia

GAZTE OKUPATUEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (€)



Batez besteko soldatari begiratu beharrean, soldata-tarteei begiratzen baldin badiegu, ikusten da 1000 € baino gutxiago irabazi zituztela, 2015. urtean, 30 eta 34 urte bitarteko taldearen laurdenek (% 25,8k). Emakumeei begiratuta, herenak baino gehixeago dira (% 36,4) dira hilean 1000 € baino gutxiago irabazten dituztenak.

Ehuneko horrek behera egin du aurreko urteekiko (% 28,8koa izan zen 2011n eta % 29,6koa izan zen 2013an), batez besteko soldataren igoerarekin batera.

Eta nola baloratzen dute beren soldata 30 eta 34 urte bitarteko pertsonek?

Soldata ona jasotzen dutela uste dute 30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen erdiek baino zertxobait gehiagok (% 53,1ek).

Emakumeek, batez beste, gizonak baino diru gutxiago irabazten duten arren, ez dute alde nabarmenik ageri beren lana ondo ordainduta ote dagoen galderari emandako erantzunetan.

Soldatak gora egin ahala, handitu egiten da soldata ona irabazten dutela pentsatzen duten pertsonen kopurua, baina hilean 1200 €-ko soldataren langa igarotzean hasten dira gazteak beren lana ondo ordainduta dagoela esaten.

Soldata ona jasotzen dutela uste duten gazte okupatuen ehunekoari begiratuta, ez dago alde handirik 30 urtetik beherakoen (% 52,9) eta 30 eta 34 urte bitarteko artean (% 53,1).

Beren lana ondo ordainduta dagoela pentsatzen duten 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoak eutsi egin dio 2013. urteko mailari (% 53,4), baina behera egin du 2011. urteko ehunekoarekiko (% 58,0).

5.12.8. Enplegua galtzeko edo prekario bihurtzeko arriskua


30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen % 15,2k uste du nahiko edo oso gertagarria dela urtebeteko epean bere lana galtzea. Adin horretan dauden % 10,1ek ez du 2016an lana galtzeko beldurrik, baina uste du nahiko edo oso gertagarria dela bere lan-baldintzak okertzea. Hau da, lanean ari diren 30 eta 34 urte bitarteko gazteen laurdenak (% 25,3) lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuan daude.

Lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku hori handia den arren, 30 urtetik beherako gazte okupatuena (% 32,2) baino txikiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Arrisku horrek, gainera, nabarmen egin du behera 2013. urtearekiko; izan ere, urte horretan, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuena % 42,8k uste zuen lana gal zezakeela (% 24,0k) edo bere lan-baldintzak okertu egin zitezkeela (% 18,8k).

36. irudia

ENPLEGUA GALTZEKO EDO LAN-BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUAREN BILAKAERA
16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



Xehetasunez aztertzen baldin baditugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuak 2015. urtean erakutsitako datuak, ikusten dugu gizonen baino galera-arrisku gehiago ikusten dutela emakumeek (emakumeen % 17,0k eta gizonen % 13,6k), eta hori bera gertatzen dela lan-baldintzak okertzeko arriskuaren gaineko pertzepzioarekin (emakumeen % 11,4k ikusten du arrisku hori eta gizonen % 9k).

Kontratu mota da arrisku horiek hautematean eragiten duen funtsezko faktore bat. Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, urtebetean lana galtzeko arriskua ikusten dute % 38,3k, baina % 5,2 dira arrisku hori bera ikusten dutenak kontratu finkoa edo aldizkako finkoa dutenen edo kooperatibistak direnen artean. Hala ere, kontratu horiek dituztenen edo kooperatibista direnen artean, zertxobait handiagoa da, lana galtzeko arriskurik hauteman ez arren, lan-baldintzak okertzeko arriskua dutela ikusten dutenen ehunekoa (kontratu mugagabea edo antzekoa dutenen % 12,4k), aldi baterako kontratua dutenen artean baino (% 6,9k).

5.12.9. Lanarekiko poztasuna eta lana aldatzeko gogoia

30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik zazpik (% 70,1) diote pozik daudela beren lanarekin; hala ere, ahal izanez gero, beste lan bat hartuko luke % 28,6k.

Beren lanarekin pozik direnen ehunekoa handiagoa da adin talde horretan, 30 urtetik beherakoen artean baino (% 62,7).


Emakumeek baino poztasun handiagoa ageri dute gizonek (% 66,3k eta % 73,6k, hurrenez hurren). Lanaldi osoan lan egiten dutenek ere poztasun handiagoa ageri dute (% 75,6), lanaldi partzialean lan egiten dutenek baino (% 52,1). Eta kontratu mugagabea duten pertsonen poztasun handiagoa ageri dute (% 72,4), aldi baterako kontratua dutenek baino (% 64,5).

Edonola ere, beren ikasketekin lotutako lana dutenak eta soldata ona irabazten dutela pentsatzen dutenak dira poztasun-ehuneko handieneko taldeak (% 80,2 eta % 87,1, hurrenez hurren).

Beren lanarekin pozik dauden pertsonen ehunekoa zertxobait jaitsi da 2013. urtetik (% 73,1ekoa izan zen urte horretan), eta handitu egin da, % 24,8tik % 28,6ra, ahal izanez gero beste lanen bat hartuko luketen pertsonen ehunekoa.

37. irudia

LANAREKIKO POZTASUNAREN BILAKAERA 16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE OKUPATUEN ARTEAN, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



Ahal izanez gero beste lanen bat hartuko lukeen % 28,6 horrek lanez aldatu nahi izateko ematen duen arrazoi nagusia da lan-baldintzak (kontratua, soldata, ordutegia, etab.) aldatu nahi dituela, hori adierazten baitu lanez aldatzeko asmoa ageri duten hiru gaztetik bik (% 69,6k). Gazte horien % 17,2k esaten du bere kualifikazioari, prestakuntzari edo gaitasunari egokiago zaion lanen bat topatu nahi duela; % 4,3k adierazten du beste lan edo erronka batzuei heldu nahi diela, eta % 3k esaten du ez duela gustuko egun egiten duen lana. Arrazoi xumeagoak ematen ditu gainerako % 6ak, hala nola beste herriren batean lan egin nahi duela edo beste lan bat aurkitu nahi duela, ziur dagoelako galdu egingo duela orain duena.

Igo egin dira, 2013. urtetik 2015. urtera, lan-baldintzak hobetu nahi dituztenen ehunekoak, eta jaitsi egin dira beste ehuneko batzuk, hala nola ikasi dutenarekin lotura handiagoa duten lanak bilatzen dituztenenak eta, egun duten lana galdu aurretik, beste lan bat aurkitu nahi dutenenak.

5.12.10. Beste enplegu baten bila

Lan bila ari da enplegu bat izan eta 30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden bost pertsonatik bat (% 21,5).

Nabarmen egin du gora lan bila dabilzanen ehunekoa pertsona talde horretan; izan ere, 2011. urtean, lan bila ari zen 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen % 14,1, adin horretako pertsona okupatuen % 12,9 ari zen lan hobe baten bila 2013an, eta ehuneko hori % 21,5era igo da 2015. urtean.

Edonola ere, adin talde horretan beste lan baten bila dabilzanen ehunekoa 16 eta 29 urte bitartekoen artean baino txikiagoa da, 30 urtetik beherako pertsona okupatuen % 29,4k adierazi baitu lan bila aritu dela elkarrizketa izan aurreko hiru hiletan.

Zer pertsona taldek adierazi dute lana bilatzeko joerarik handiena 2015ean? Jarraian talde horiek zeintzuk diren adieraziko da, eta zehaztuko dugu talde horietako zer ehunekok adierazi duen lan bila ari dela.

- Urtebeteko epean lana galtzea nahiko edo oso gertagarri ikusten dutenak (zehazki, talde horretako % 57k adierazi du beste lan baten bila ari dela).
- Pozik izan ez, eta, ahal izanez gero, beste lan bat hartuko luketenak (% 48).
- Aldi baterako kontratua dutenak (% 40,1).
- Lanaldi partziala dutenak (% 39,2).
- Egiten duten lana gaizki ordainduta dagoela uste dutenak (% 35,3).
- Beren ikasketekin lotura urria edo deuseza duen enplegua dutenak (% 28,5).

Enplegua bilatzeko denbora 10 hilabetekoa da, batez beste. Batezbesteko horrek ez du aldaketa handirik izan azken urteetan, 9 hilabete eta erdikoa baitzen 2013an, eta 11 hilabetekoa 2011n.

Errepikatu egiten da batezbesteko hori (10 hilabete) 30 urtetik beherako pertsonen taldean.

Enplegua aurkitzeko aukeren gaineko pertzepzio subjektiboari begiratuta, pertzepzio hori handitu egin da azken urteetan, izan ere, 2011n beste lan baten bila ari ziren 30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuen % 30,6k uste zuen nahiko edo oso gertagarria zela lana aurkitzea sei hilabeteko epean (ehuneko hori oso antzekoa izan zen 2013. urtean: % 31), eta % 41,4k izan du pertzepzio hori 2015. urtean.

Hala eta guztiz ere, enplegu hobe baten bila ari direnen erdiek baino gehiagok ez dute uste sei hilabete baino lehenago aurkituko dutenik.

Enplegua lortzeko baikortasun handiagoa dute 30 urtetik beherakoek, 30 eta 34 urte bitartekoek baino (nagusien % 41,4k uste du lortuko duela, eta gazteen % 51,2k du itxaropen hori).

Hitz batean:

Lan egitea da 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien herenen baino gehixeagoren okupazio nagusia. Hauek dira gazte horien lan-baldintza nabarmenenak: aldi baterako lanak izan ohi dituzte, gero eta handiagoa da lanaldi partzialen ehunekoa, soldata "mileuristak" jasotzen dituzte eta gazte horien erdiek soilik egiten dute beren ikasketekin edo prestakuntzarekin lotutako lana.

Besteren kontura lan egiten du 30 urtetik beherako gazte okupatuaren gehiengoak, eta horien artean, ehuneko berdintsuetan banatuta daude aldi baterako lana dutenak, alde batetik, eta kontratu mugagabea edo aldizkako finkoa dutenak edo kooperatibistak direnak, bestetik. Europar Batasuneko batezbestekoa baino hamar puntu handiagoa da aldi baterako lana duten EAeko gazteen ehunekoa.

Gazte autonomo eta enpresaburuen ehuneko txikiak ageri dira, eta ehuneko horiek behera egin dute azken bi urteetan; edonola ere, EBko batezbestekoaren antzekoak dira.

Gazteen herenek baino zertxobait gehiagok aldi baterako lana dute, eta horren arrazoi nagusia da ez dutela lanaldi osoko lanik aurkitu. Gora egin du azken urteetan lanaldi partzialeko lanen ehunekoak, emakumeen artean batik bat, eta hamar puntutan gainditzen du, berriro, EBko batezbestekoa.

Gazteen erdiek baino zertxobait gehiagok dute beren ikasketekin lotura handia edo nahikoa duen lanen bat. Eta erdiak baino gehixeago dira, ere, soldata ona dutela uste duten gazteak. Lanean ari diren 30 urtetik beherako gazteek, batez beste, 1000 euro inguru irabazten dute hilean, eta alde handiak daude mutilen eta nesken artean.

Gazteen laurdenek uste dute oso gertagarria dela urtebeteko epean lana galtzea. Beren lan-baldintzak okertzeko arriskua dutela uste dutenen taldea gehitzen baldin badiogu lana galtzeko arriskua ikusten dutenen taldeari, gazte okupatu guztien herenek dute lana galtzeko edo lan hori prekario bihurtzeko arriskua. Arriskuaren pertzepzioak hamar puntu egin du behera 2013tik 2015era.

Hala ere, gazte okupatuaren bi herenek diote pozik daudela egiten duten lanarekin. Gainerako herenek beste lan bat hartuko lukete horretarako aukerarik baldin balute, lan-baldintzak hobetzeko edo duten prestakuntzari egokiago zaien lan bat izateko. Beste lan baten bila ari direnen artean, enplegua epe motzean aurkitzeko itxaropena dute erdiek, eta baikortasun eta konfiantza horrek gora egin du aurreko urteekiko.

Oro har, gizonezkoena baino okerragoa da emakumeen egoera: gizonek baino aldi baterako kontratu gehiago dituzte, lanaldi partzial gehiago dituzte, soldata txikiagoak dituzte eta beren enplegua galtzeko edo beren lan-baldintzak okertzeko arrisku handiagoa ikusten dute.


Lan-baldintzek hobera egiten dute 30 urtetik aurrera. Egonkorragoak dira enpleguak, kontratu mugagabe gehiago eta antzinasun handiagoa nabarmentzen baitira adin-tarte horretan (lanean hiru urtetik gorako antzinasuna dutenak lana dutenen ia herenak izatetik ia bi heren izatera igarotzen dira). Lanaldi osoan lan egiten dutenen ehunekoa handiagoa da eta soldatak ere zertxobait handiagoak dira. Murriztu egiten da lana galtzeko arriskua eta handitu egiten da lanarekiko poztasuna. Hala ere, ez dute hobera egiten beste zenbait alderdik. Ez da handitzen beren ikasketekin lotutako lana dutenen bolumena ezta soldata ona dutela uste dutenen ehunekoa ere.

6

Langabezian dauden gazteen egoera

Lehen kapituluan adierazi dugun moduan, langabezia-egoeran dago 30 urtetik beherako gazteen % 15,4.

Krisiaren aurreko urteetako baino handiagoa da langabezia-egoeran dauden gazteen kopurua, baina zertxobait jaitsi da 2012. eta 2013. urteekiko.




Langabezia-egoerari erreparatuta, ez dago alde handirik sexuaren arabera (mutilen % 14,7 eta nesken % 16 dago egoera horretan), baina bai adinaren arabera. Izan ere, adinak gora egin eta ikasketak amaitu ahala, gero eta gazte gehiago sartzen dira lan-merkatuan, baina gero eta gehiago dira, aldi berean, langabezia-egoeran geratzen direnak. 16 eta 19 urte bitarteko gazteen % 2,1 soilik dago langabezian (gogoratu, ordea, ikasten ari dela % 92,5); % 14,9 dago langabezian 20 eta 24 urteko adinen bitartean, eta ehuneko hori % 23,3ra iristen da 25 eta 29 urteko adinen bitartean daudenen artean.

Europar Batasunean 2015. urtean izan diren datuekin alderatzen baldin baditugu ehuneko horiek, ikusten dugu EBko 28 herrialdeen batezbestekoa baino handiagoa dela gazteen langabezia-ehunekoa EAEn. Gazte guztiekiko proportzioari begiratuta, Grezia eta Espainia dira EAEK baino gazteen langabezia-ehuneko handiagoak dituzten herrialde bakarrak.

39. irudia

LANGABEZIA-EGOERAN DAUDEN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, ADIN HORRETAKO GAZTE GUZTIEKIKO. EAEREN ETA EUROPAR BATASUNAREN ARTEKO KONPARAZIOA, 2015EAN (%)



Langabezia-egoeran dauden gazteen alderdi hauek aztertuko ditugu orain: zer prestakuntza duten, zenbat denbora daramaten langabezia-egoeran, langabezia-prestaziorik kobratzen ote duten, lan-bilaketa aktiboa egiten ote duten eta, besteak beste, zer itxaropen duten lana aurkitzeko.


6.1. LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN PRESTAKUNTZA

Derrigorrezko ikasketak ditu langabezian dauden gazteen % 44,4k. Derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituzten gazteen ehunekoa nabarmen handiagoa da langabezia-egoeran daudenen artean, 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien batezbestekoa (% 33,5) baino.

Lanik gabe dauden gazteen % 27,0k derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailako ikasketak ditu (Batxilergoa edo erdi-mailako prestakuntza zikloa); eta goi-mailako ikasketak ditu % 28,5ek (goi-mailako prestakuntza zikloa, unibertsitate-gradua edo graduondoko ikasketak).

40. irudia

LANGABEZIAN DAUDEN GAZTEEN IKASKETA-MAILAREN ETA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE GUZTIEN BATEZBESTEKOAREN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Hizkuntzen jakintzari begiratuta, langabezian dauden gazteen % 43,9k adierazi du ondo edo oso ondo hitz egiten duela euskaraz. Gazteen batezbestekotik (% 65,7) hogeitun puntu beherago dago ehuneko hori.

Batezbesteko orokorretik beherakoa da ingelesaren gaineko ezagutza ere (% 26,9koa da langabezian dauden artean, eta % 43,9koa da 30 urtetik beherako gazte guztien batezbestekoa).

Esan dezakegu, horrenbestez, beren adineko pertsonen batezbestekotik beherako prestakuntza-maila dutela langabezia-egoeran dauden gazteek.

Aurreko urteetako datuei begiratuta, ikusten da horixe bera gertatzen zela 2013an eta krisiaren aurreko urteetan (2004 eta 2008), baina krisiaren urte gogorrenetako batean, 2011n, batezbestekotik gorako prestakuntza-maila zuen langabezian zeuden gazteen taldeak. Horren arrazoia izan daiteke enplegu kualifikatuen galera handia izan zela eta lanik gabe gertu zirela ikasketa-maila handiko gazteak, eta/edo langabezian zeuden gazteek ahalegina egin zutela prestakuntza handitu eta beren lan-aukerak hobetzeko.

Adierazi behar da, bestalde, langabezian dauden gazteen % 17,3 ari dela, gaur egun, prestakuntza-ikastaroren bat egiten.

Langabezian dauden gazteen artean, prestakuntza-maila handiena dutenak ari dira ikasteko ahalegin handiena egiten; izan ere, goi-mailako titulazioa duten langabeen % 27,8 ari da prestakuntza-ikastaroren bat egiten (langabezian dauden gazteen batezbestekoa baino hamar puntu handiagoa da ehuneko hori).

Langabezian izan eta prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari diren gazteen ehunekoak ez du aldaketarik izan 2013tik 2015era (% 17,4koa zen 2013an eta % 17,3koa izan da 2015ean).

6.2. AURRETIAZKO LAN-ESKARMENTUA ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN KOBRENTZA

Aurretiaz lan-eskarmentua duela adierazten dute langabezia dauden hamar gaztetik zortzik (% 80,3k).

Aurretiaz lan-eskarmentua dutela adierazten duten gazte langabe horietako gehienek (% 80,6k) ez zioten borondatez utzi lan egiteari, kontraturik berri ez zirelako, kaleratuak izan zirelako, enpresak itxi egin zuelako edo bestelako arrazoiren baten ondorioz galdu baitzuten lana. Gazte horien % 14,7k soilik adierazi du bere erabakia izan zela lana egiteari uztea.

Aurretiaz lan-eskarmentua dutenen ehunekoak handia da langabezia dauden gazteen artean, baina aldeztatik lan-eskarmentua dutenen laurdenak soilik (% 27,3) ari dira langabezia-prestazioa kobratzen, hau da, langabezia dauden bost gaztetik bat (% 21,8) eta EAEn 30 urte baino gutxiago dituzten gazte guztien % 3,3.


Aurreko urteetan, handiagoak ziren langabezia izan eta aldeztatik lan-eskarmentua zutenen ehunekoak (% 84,7 ziren 2004an, % 88,5 ziren 2008an, % 92,0 ziren 2011 eta % 88,3 ziren 2013an), baina 2000. urtea da salbuespena, langabezia zeuden gazteen % 62,6k esan baitzuen, urte horretan, aurretiazko lan-eskarmentua zuela.

Lan egiteari uzteko arrazoiak ez ziren borondatezkoak izan gazte gehienentzat, eta, ehunekoaren bilakaerari erreparatuta, 2015. urtearen antzeko ehunekoak izan ziren urte horietan (aurretiaz lan-eskarmentua zuten gazteen % 77,6k eman zituen horrelako arrazoiak 2011n, eta % 78,4k, berriz, 2013. urtean).

Langabezia-prestazioa jasotzen dutenei erreparatuta, hura kobratzen duten gazte langabeen ehunekoak igotzen arin bat izan du 2013tik 2015era (% 18,2koa zen urte hartan eta % 21,8koa izan da 2015ean), baina urrun dago oraindik 2011ko datua (% 32,2). Izan ere, 2011. urtean izan zen handiena aurretiaz lan-eskarmentua zutela adierazi zuten gazte langabeen ehunekoak (aurreko urtean oparotasun ekonomikoaren ondorioz), eta hori da, hain justu, langabezia-prestazioa jasotzeko baldintza (aurretiaz lan egin izana eta kotizatu izana).

41. irudia

LANGABEZIA DAUDEN ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA,
ADIN HORRETAN LANGABEZIA DAUDEN GAZTE GUZTIEKIKO (%)



Gazteen kopuru osoari begiratuta, gazte guztien % 5 ziren, 2011. urtean, langabezian izan eta langabezia-prestazioa jasotzen zuten gazteak, eta ehuneko hori % 3,3koa izan zen 2013an eta 2015ean.

Eta zer diru-iturri dituzte langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten gazte langabeek?

Langabezian dauden eta langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten gazteen bi herenek (% 65,5ek) diote familiaren edo bikotekidearen diru-sarreretatik soilik edo batik bat sarrera horietatik bizi direla. Gainerakoek familiaren edo bikotekidearen sarrerekin osatzen dituzte beren diru-sarrerak, halakorik izaten dutenean.

Horrek ez du esan nahi langabezia-prestazioa jasotzen duten gazteek beren diru-sarrerekin soilik bizi direnik, gazte horien ia herenek (% 31,4k) adierazten baitute beren bikotekidearen edo familiaren diru-sarreretatik bizi direla batik bat.


Eskuragarri duten diruaren iturriari begiratu beharrean, hilean eskura duten diru kopuruari begiratzuz gero, ikusten da langabezia-prestaziorik jasotzen ez duten gazteen erdiek baino gehiagok (% 54,3k) dituztela, haien esanaren arabera, 300 euro baino gutxiago hilean.

Ehuneko hori % 11,5era jaisten da langabezia-prestazioa jasotzen dutenen artean. Prestazio hori kobratzen dutenen erdiek (% 50,5ek) adierazten dute 600 euro baino gehiago dituztela eskura hilean.

6.3. LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORA

Langabezian dauden gazteen % 40,6k sei hilabete baino gutxiago daramatza egoera horretan, sei hilabete eta urtebete bitartean daramatza egoera horretan dauden % 16k, eta urtebete baino gehiago % 43,1ek.

42. irudia
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEEK LANIK GABE DARAMATEN DENBORA (%)



Langabezian urtebetetik gorako denboran dauden emakumeen ehunekoak gizonenak baino handiagoa da (langabezian dauden emakumeen % 46,4 dago egoera horretan urtebetetik gorako epean, eta lanik gabe dauden gizonen % 39,7); ehuneko hori handiagoa da 25 urtetik beherako langabeen artean (% 56,9), 25 eta 29 urte bitarteko adina dutenen artean baino (% 35,5); eta handiagoa da gehienez bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen artean (% 52,7), goi-mailako ikasketak dituztenen artean baino (% 19).

Langabezian urtebetetik gora daramaten gazteen ehunekoak gora egin du, % 38,6koa baitzen 2013an (urte horretakoak dira aurretiazko datu bakarrak) eta % 43,1ekoa izan baita 2015ean.

Kalkulu hori, langabezian dauden gazteekiko egin beharrean, 30 urtetik beherako gazte guztiekiko egiten baldin badugu, ikusten da urtebetetik gorako langabezia-egoeran zeudela, 2013. urtean, gazte guztien % 7,0, eta ehuneko hori % 6,6koa izan dela 2015eran. Hau da, behera egin du zertxobait langabezian urtebetetik gora daramaten 16 eta 29 urtetik bitarteko gazteen ehunekoak, baina, langabeziaren jaitsiera orokorra izan denez, garrantzi erlatibo handiagoa hartzen dute urtebetetik gorako langabezia-egoeran daudenak 30 urtetik beherako gazte langabeen multzoan.

Edonola ere, ez dira datu horiek nahastu behar Eustat edo Eurostat moduko estatistika-bulegoek iraupen luzeko langabeziaren gainean ematen dituzten tasekin, biztanleria aktiboarekiko neurtzen baitu tasa horrek langabezian urtebetetik gora daramaten pertsonen ehunekoa (eta ez, txosten honek egiten duen moduan, langabezian daudenen pertsonetikiko edo biztanleria guztiarekiko).

6.4. ENPLEGU-BILAKETA

Langabezian dauden gazte gehienek (% 82,8k) adierazten dute lan bila aritu direla galdetuak izan aurreko hiru hiletan. Gainerako % 17,2k aitortzen du, ordea, ez duela lana bilatzeko ahalegin aktiborik egin epe horretan.

Lan bila aritu diren gizon gazte langabeen ehunekoa handiagoa da, bila aritu direnen emakumeena baino (gizon langabeen % 87,6 eta emakume langabeen % 78). Goi-mailako ikasketak dituzten langabeak ere ehuneko handiagoan saiatu dira lana bilatzen, gehienez bigarren mailako ikasketak dituztenen aldean (% 88,3 eta % 80,6, hurrenez hurren). Lana bilatzeko ahaleginean, ez da alde handirik ikusten gazteen adinaren arabera eta langabezian daramaten denboraren arabera, eta, era berean, ez da alde nabarmenik ikusten langabezia-prestazioa jasotzen dutenen eta hura jasotzen ez dutenen artean.

Lanaren bilaketa aktiboa egiten duten gazte langabeen ehunekoa zertxobait jaitsi da 2013. urtearekiko (% 87,7koa zen urte horretan), baina 2011koa (% 74,3) baino handiagoa da oraindik.

Zenbat denbora irauten du lan-bilaketa horrek? Lana aurkitzeko zer itxaropen edo aurreikuspen dute?

Lan bila ari diren gazte langabeek adierazten dute, 2015. urtean, 10 hilabete daramatzatela bilaketa horretan. Hori da batezbesteko orokorra. Batezbesteko hori 2013koa baino handiagoa da (9 hilabete), eta 2011koa baino handiagoa (7 hilabete eta erdi). Joera horren harian, handitu egin da, 2015. urtean, langabezian urtebetetik gora daramaten ehunekoa.

Bestela esanda, 2013an baino langabe gutxiago dago 2015ean, baina langabezian daudenak denbora luzeagoa daramate lanik gabe eta zailago dute lana aurkitzea.

Hori horrela izanda ere, 2015. urtean, langabezian dauden gazteen erdiek baino gehixeagok (% 53,4k) uste dute nahiko edo oso gertagarria dela lana aurkitzea inkestari erantzun ondorengo sei hileko epean. Ehuneko horrek nabarmen egin du gora 2013. urtetik (% 30,5) eta 2011. urtetik (% 32,2).


6.5. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEAK

Langabezian dago EAEn 30 eta 34 urte bitartean dituzten bost pertsonatik bat; adin-tarte horietan daudenen % 21, zehazki. Ez da alde nabarmenik ageri adin horretako gizonen eta emakumeen artean (30 eta 34 urte bitarteko gizonen % 20,8 dago langabezian eta emakumeen % 21,1).

30 eta 34 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoak, 2015. urtean, txikiagoak izan dira 2013. urtean izandakoak baino (% 26,5), baina 2011koaren oso antzekoak izan dira (% 21,4).

2015. urtean 30 eta 34 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoak, oro har, 30 urtetik beherakoak (% 15,4) baino handiagoak izan badira ere, 25 eta 29 urte bitarteko adin taldearenak (% 23,3) baino txikiagoak izan dira.

43. irudia
16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE LANGABEAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



6.5.1. Prestakuntza

Langabezian dauden 30 eta 34 urte bitarteko gazteen prestakuntza maila beren adin taldearen batezbestekoari dagokiona baino apalagoa da.

- 30 eta 34 urte bitarteko gazte langabeen herenek soilik (% 32,2k) dituzte goi-mailako ikasketak (adin talde horretako pertsonen % 53,6k ditu, batez beste, ikasketa maila hori).
- Herenek baino zertxobait gehiagok (% 35,7k) adierazten dute nahiko edo oso ondo hitz egiten dutela euskaraz; adin talde horretako batezbestekoa, berriz, % 48,9koa da.
- Eta % 25,5ek hitz egiten du nahiko edo oso ondo ingelesez; kasu horretan ere, batezbestekotik behera (% 31,7).


Langabezian dauden gazteek beren adin taldeko gainerako gazteen aldean ikasketa-maila apalagoak dituztela ikusi izan da, era berean, 30 urtetik beherakoak datuak behatuta.

Aurreko urteetan ere ikusten zen batezbestekotik beherakoa zela goi-mailako ikasketak dituzten gazteen ehunekoa, langabezian daudenen artean. Batezbestekoa baino euskara- eta ingeles-maila apalagoak zituzten langabezian zeuden gazteek 2013an, baina batezbestekotik gorakoa 2011n. Lehen 30 urtetik beherako gazteen egoera aztertzean aurreratu dugun moduan, badirudi kualifikazio handiko gazte asko geratu zirela langabezian 2011n, ez zutela lan-aukerarik topatu edo, lanik izan ezean, hizkuntzak ikasteari ekin ziotela beren curriculum-a zabaltzeko.

Bestalde, 2015ean langabezian dauden 30 eta 34 urte bitartekoen % 13,8k adierazi du prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari dela galdetua izan den unean. 30 urtetik beherako gazte langabeena (% 17,3) baino zertxobait apalagoa da ehuneko hori, baina 30 eta 34 urte bitarteko langabeek bi urte lehenago izandakoaren oso antzekoa da (% 13,5).

44. irudia

PRESTAKUNTZA-IKASTAROREN BAT EGITEN ARI DIREN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO LANGABEEN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



6.5.2. Aurretiazko lan-eskarmentua eta langabezia-prestazioaren kobrantza

30 eta 34 urte bitarteko langabe ia gehienek (% 97k) dute lan-eskarmenturen bat aurretiaz, eta % 3k soilik adierazten du ez duela aurretiaz lan egin.

Lan-eskarmentua izan eta lanik gabe geratu zirenen % 81,3 geratu zen egoera horretan bere gogo edo borondatearen aurka, eta beraien erabakiz utzi zuten lana % 15,4k. Gainerako % 3,3ak ez du azaldu zergatik geratu zen lanik gabe.

Lanik gabe geratu izanaren arrazoi nagusiak langabearen borondatearen kontrakoak izan dira aztertutako urte guztietan (ez zaie kontratua berritu, kaleratu egin dituzte, itxi egin da enpresa, etab.), eta 30 urtetik beherako langabeen antzeko ehunekoak ageri dira adin-tarte horretan.


Lehen adierazi dugu 30 eta 34 urte bitarteko gazte langabe gehienek dutela aurretiazko lan-eskarmentua, baina horien laurdenek baino zertxobait gehiagok bakarrik (% 27,9k) jasotzen dute langabezia-prestazioa.

Adin horretan langabezia-prestazioa jasotzen duen gazte langabeen ehunekoak ia hamar puntu egin du behera 2013 urteko ehunekotik (% 37,6) eta 2011. urteko ehunekotik (% 36,2).

Edonola ere, langabezia-prestazioa jasotzen duten gazte langabeen ehuneko hori zertxobait handiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean (% 27,9), 16 eta 29 urte bitarteko langabeen artean baino (% 21,8).

45. irudia

LANGABEZIAN IZAN ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN BILAKAERA, ADIN HORRETAN LANIK GABE DAUDEN GAZTE GUZTIEKIKO, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



Zer diru-sarrera dituzte 30 eta 34 urte bitarteko langabeek?

Langabe horien laurdenak (% 23,8) beren diru-sarrera propioekin bizi dira soilik edo nagusiki (langabezia-prestazioa, gizarte-laguntzak, noizean behingo lanak edo aitortu gabeko lan jarraituak, errentak, aurrezkiak...); beste laurdenak (% 23,9) beren jatorriko familiaren (gurasoen, aitona-amonen, anai-arreben...) sarrerei esker bizi dira nagusiki; beste laurdenak (% 24,2) beren bikotekidearen diru-sarrerei esker, eta gainerakoek (% 24,3) familiaren (bikotekidearen edo jatorriko familiaren) diru-sarrerekin osatzen dituzte beren diru-sarrerak.

Norberaren diru-sarreren kontura bizitzea (diru-sarrera guztiak norberarenak izanda edo bikotekidearekin edo beste senideren batekin partekatuz) ohikoagoa da 30 eta 34 urte bitartean dituztenentzat, 30 urte bete gabeak dituztenentzat baino (zaharragoek lan-eskarmentu handiagoa dute, eta, ondorioz, gehiago dira langabezia-prestazioa jasotzen dutenak eta aurrezkiak izateko aukerak dituztenak).

Nagusiki beren diru-sarrera propioei edo aurrezkiei esker bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoak 2013. urtekoaren antzekoa da (% 24,8) eta 2011. urtekoa (% 28,3) baino zertxobait txikiagoa.

Zenbat diru darabilte?

Adin horretan lanik gabe dauden gazteen erdiek baino gehiagok (% 58,8k) adierazten dute, 2015. urtean, 900 euro baino gutxiago izaten dituztela hilean. Eta laurdenek baino gehixeagok (% 27,7) 300 euro baino gutxiago.

Langabe horien % 30,6k, aldiz, adierazten du 900 euro baino gehiago izaten dituela hilean. Diru-zenbateko horretan sartzen dira bikotekidearen diru-sarrerak, baldin eta elkarrekin bizi baldin badira. Gutxiengo osatzen badute ere, hilean 900 euro baino gehiago dituzten 30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoak gora egin du aurreko urteekiko (% 20,9koa zen 2013an eta % 12,2koa izan zen 2011n), eta 30 urtetik beherako langabeen ehunekoak (% 13,2) baino handiagoa da.

6.5.3. Langabezian emandako denbora

Urtebete baino gehiago daramate langabezian 30 eta 34 urte bitarteko langabeen erdiek (% 49,5ek), bi urte lehenagoko ehuneko ia berean (% 49,4 ziren 2013an).


Lanik gabe urtebetetik gora daramaten 30 eta 34 urte bitarteko langabeen ehunekoa handiagoa da, egoera horretan dauden 30 urtetik beherakoena baino (% 43,1 izan dira 2015ean eta % 38,6 izan ziren 2013an).

Urtebetetik gorako langabeen ehuneko hori adin horretan dauden pertsona guztiekiko zer ehuneko den jakiteko eragiketa eginda, ikusten da 2015. urtean 30 eta 34 urte bitarteko pertsona guztien % 10,4 dagoela urtebetetik gora langabezia-egoeran. Horrek esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik bat dagoela lanik gabe urtebetetik gorako denboran. Ehuneko hori handixeagoa zen 2013. urtean, % 13,1koa.

Lanik gabe urtebete baino gehiago daramatenen ehunekoa, adin-tarte horretako pertsona guztiekiko, handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, 30 urtetik beherako gazteen artean baino (% 7 ziren 2013an eta % 6,6 izan dira 2015ean).

46. irudia

LANGABEZIAN URTEBETE BAINO GEHIAGO DARAMATEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN BILAKAERA BEREN ADINEKO GAZTE GUZTIEKIKO, ADIN TALDEEN ARABERA (%)



Ikasketa-mailari begiratuta, alde handiak ikusten dira gazteek duten lan-egoeran, eta, zehazkiago, langabezian daramaten denboran. Ikusi dugu lehenago 30 eta 34 urte bitartekoen artean nabarmen handiagoa dela langabezia-egoeran dauden ehunekoa derrigorrezko ikasketak soilik gainditu dituztenen edo, gehienez, bigarren mailako ikasketak amaitu dituztenen artean (% 30,7koa), goi-mailako ikasketak dituztenen artean baino (% 12,6koa). Langabezian daramaten denbora aztertu ondoren, honako hau gainera dezakegu: goi-mailako ikasketarik ez duten gazteen artean, langabezia-egoeran urtebetetik gora daramatenen ehunekoak (% 15,5) bikoiztu egiten duela goi-mailako ikasketak izanik urtebete baino luzaingo langabezian daudenena (% 6,0) baino.

6.5.4. Enplegu-bilaketa

30 eta 34 urte bitarteko gazte langabe gehienek (% 82,6k) egin dute lana bilatzeko gestioen bat inkesta erantzun aurreko hiru hiletan.

Aldagai horretan, ez da alderik nabarmentzen langabezia-prestazioa jasotzen ari direnen eta prestazio hori jasotzen ez dutenen artean, ezta prestakuntza motaren bat eskuratzen ari direnen eta prestakuntza-ikastarorik egiten ari ez direnen artean.

Ikusten da alderik sexuaren arabera (gizon langabe gehiago ari da lan bila, % 87,7, emakumeak baino, % 77,3), eta langabezian daramaten denboraren arabera: langabezian urtebetetik behera daramaten gazteek lan-bilaketa aktiboagoa egiten dute, lanik gabe urtebete baino gehiago daramatenek baino (% 85,7 ari da lan-bilaketa aktiboan urtebetetik beherakoan artean, eta % 79,1 urtebetetik gorakoan artean).

Oso antzekoak dira 30 eta 34 urte bitarteko adin-tartean lan bila ari diren gazte langabeen ehunekoa (% 82,6) eta 30 urtetik behera lan bila ari direnena (% 82,8).

Ehuneko horrek gora egin du azken urteetan; hala, inkesta erantzun aurreko hiru hiletan lana bilatzeko gestioaren bat egiten dutela adierazi dutenen ehunekoa % 69,7koa izan zen 2011. urtean 30 eta 34 urte bitartekoan artean, % 76,9koa izan zen 2013. urtean, eta % 82,6koa izan da 2015ean.

Enplegua bilatzeko denbora 12 hilabetekoa da, batez beste. Langabe gehienek urtebete baino gutxiago daramate lan bila, baina bada lan bila bi urte baino gehiago daramanik (zehazki, lan bila ari direnen % 12,5 dago egoera horretan).

Lana bilatzen ematen den batez besteko denbora 2013. urtekoa (13 hilabete) baino pixka bat laburragoa da 2015ean, baina 2011koa baino luzeagoa da, 9 hilabete eta erdikoa baitzen urte horretan.


Lan-bilaketako denbora hori zertxobait luzeagoa da talde honetan (12 hilabetekoa), 30 urtetik beherako langabeen artean baino, azken horiek 2015ean adierazi baitute 10 hilabete daramatzatela, batez beste, lan bila.

Eta, zer itxaropen edo aurreikuspen dute epe motzean lana aurkitzeko?

Sei hilabeteko epean lana bilatzea nahiko edo oso gertagarria dela adierazten dute lan bila ari direnen erdiek (% 46,3k), eta hori gertatzeko aukerak urriak edo deusezak direla uste dute beste erdiek (% 51,1ek). Hala, baikorren taldea baino handixeagoa da ezkorrena.

47. irudia

LAN BILA ARI DIREN 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEAK, BILAKETAREN BATEZ BESTEKO DENBORA ETA EPE MOTZEAN LANA AURKITZEKO DUTEN ITXAROPENA (%)



Dena den, aurreko urteen aldean, nabarmen handitu da, 2015. urtean, epe motzean lana aurkitzeko aukeren gaineko baikortasuna. Izan ere, lan bila ari ziren langabeen % 38,2k uste zuen, 2011. urtean, sei hilabeteko epean aurki zezakeela; ehuneko horrek behera egin zuen 2013. urtean, % 28,5eko ehunekoraino; eta % 46,3raino igo da 2015. urtean.

Hala eta guztiz ere, adin talde horrek ageri duen baikortasuna zertxobait apalagoa da 30 urtetik beherako gazte langabeena baino (% 53,4 dira, 30 urtetik beherakoen artean, nahiko edo oso gertagarria deritzotenak sei hileko epean lana aurkitzeari).

Langabeak lanik gabe daraman denborak eragina du langabe horrek lana aurkitzeko duen itxaropenean; izan ere, langabezian urtebetetik behera dauden eta lan-bilaketa aktiboa egiten dutenen % 55,3k pentsatzen du sei hilabeteko epean aurkituko duela lana, eta lanik gabe urtebetetik gora daramatenen % 35,1ek uste du denbora-epe horretan aurkituko duela.

Hitz batean:

Gazteen langabezia-datu orokorrek behera egin dute 2012. eta 2013. urteekiko, baina, hala ere, lanik gabe daude 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ia laurdenak. 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoa Europar Batasuneko altuenetakoa da: Espainiakoa eta Greziakoa soilik dira handiagoak.

Lanik gabeko bost gaztetik lauk du aurretiazko lan-eskarmentua, baina bostetik batek soilik jasotzen du langabezia-prestazioa. Langabezian urtebetetik gora daramatela diote hamar gazte langabetik lauk. Oro har, beren adineko batezbestekotik beherako ikasketa-mailak dituzte gazte langabeek.

Lanik gabe dauden gazteen gehiengoak lan-bilaketa aktiboa egiten du, eta, batez beste, 10 hilabete ematen ditu lan bila.

Bilakaerari begiratuta, ikusten da, oro har, 2013an baino gazte gutxiago dagoela lanik gabe 2015. urtean, baina lanik gabe daudenak denbora luzeagoa daramate egoera horretan eta lana bilatzeko zailtasun handiagoak dituzte; edonola ere, enplegua aurkitzeko aukera handiagoa ikusten dute 2015. urtean.

30 urtetik beherako gazte langabeen joera berak antzematen dira 30 eta 34 urte bitarteko gazteen langabeen artean. Hala ere, bi talde horien arteko alde txiki batzuk nabarmendu behar dira: langabezia-prestazioa jasotzen dutenen ehunekoa handixeagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean, 30 urtetik beherakoen artean baino, baina horren arrazoa da aurretiazko lan-eskarmentu handiagoa dutela; lanik gabe urtebete baino gehiago daramatenen ehunekoa ere handiagoa da adin nagusiagoko gazteen artean; eta lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko gazte langabeek denbora gehixeago daramate lan bila eta ezkorragoak dira hura epe motzean aurkitzeko aukerekin, lan bila ari diren 30 urtetik beherakoak baino.

30 eta 34 urte bitarteko gazteen bilakaerak 2015. urtean adierazten digu lehen baino gutxiago direla langabezian daudenak; lanik gabe daudenen artean, jaitsi egin da langabezia-prestazioa jasotzen dutenen ehunekoa eta igo egin da lan-bilaketa aktiboa egiten dutenena; eta lan bila dabilzan langabeen artean, handitu egin da lana epe motzean aurkitzeko aukeren gaineko baikortasuna ageri dutenen ehunekoa.

7

Ikasten ari diren gazteen prestakuntza eta lan-eskarmantua

Txosten honen 1. kapituluan adierazi den moduan, ikastea da, 16 eta 29 urteko adin-bitartean, gazteen ia erdien (zehazki, % 46,8ren) okupazio nagusia: % 40,2k du jarduera bakar, eta % 6,6k bateratzen ditu lana eta ikasketak, bere egiteko nagusia ikastea izan arren.


Ikasten dihardutenen ehuneko-bitartea % 44,4tik % 50era bitartekoa izan da azken 15 urteetan.

48. irudia

IKASTEA OKUPAZIO NAGUSI DUTENEN EHUNEKO-BILAKAERA,
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)



Adinak gora egin ahala, nabarmen aldatzen da ikasten diharduten gazteen ehunekoa. Gazte ia guztien jarduera nagusia da ikastea 18 urte egin aurretik, eta 23 urteko adinetik aurrera, gutxiengo dira ikasten aritzen diren gazteak, gehiago baitira, adin horretatik aurrera, lan egiten dutenak. Hamar gaztetik, bakar batek du ikastea 29 urteko adinean okupazio nagusi.



Sexuak ez dakar alde nabarmenik ikasleen ehunekoan, baina bai gaztearen gizarte-mailak eta jatorriak. Zenbat eta altuagoa izan gizarte-maila, orduan eta handiagoa da ikasleen ehunekoak; izan ere, % 27,7k du okupazio nagusi ikastea beren burua beheko edo ertain-beheko mailan kokatzen dutenen artean, % 50,4k beren burua gizarte-maila ertainean kokatzen dutenen artean, eta % 69,5ek beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenen artean. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako gazteen artean ikasle gehiago dago (% 50,6), atzerrian jaio direnen artean baino (% 33,8).

Baina, ikasle-ehuneko handienak dituzten gazteen multzoak alde batera utzita, amaitutako zer ikasketa dituzte ikasten ari diren gazteek? Eta, zer ari dira ikasten gaur egun?

7.1. GAZTE IKASLEEK DUTEN PRESTAKUNTZA

Derrigorrezko ikasketak soilik amaitu ditu ikasleen % 40k, eta bigarren mailako ikasketak % 41,1ek (Batxilergoa % 34,9k eta erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat % 6,2k). Gaur egun ikasle direnen % 18,9k ditu amaituta goi-mailako ikasketak (unibertsitatekoak edo goi-mailako prestakuntza-zikloren bat), baina talde hori da, noski, ehuneko txikiena osatzen duena ikasleen kolektibo osoan. Oro har, 20 urteko adina dute, batez beste, beren burua ikasletzat dutenek.


Lehen azaldu dugu zenbat ikaslek dituzten goi-mailako ikasketak. Orain zehaztuko dugu goi-mailako ikasketak dituzten gazteen artean, zenbatek jarraitzen duten ikasten, eta esan beharra dago goi-mailako ikasketak dituztenen laurdenek baino zertxobait gehiagok (% 28,6k) jarraitzen dutela ikasten. Ikasten jarraitzen duten goi-mailako ikasketadun horiek 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien % 8,9 dira.

Goi-mailako ikasketak izan eta ikasten jarraitzen duten gazteen ehunekoak behera egin du 2013. urtearekiko, urte horretan ikasten jarraitzen baitzuten goi-mailako ikasketak amaituak zituztenen herenek (% 34,5ek). 2015. urteko ehunekoak gertuago daude 2011. urteko datuetatik (urte horretan, goi-mailako ikasketak zituzten gazte guztien % 29,6k jarraitzen zuen ikasten eta hori zuten jarduera nagusi).

Egun ikasten dutenari begiratuta, 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen % 9,7 ari da derrigorrezko ikasketak egiten, Batxilergoa ikasten ari da % 17,8, erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat egiten ari da % 13,9, eta beste % 14,8a goi-mailako prestakuntza-zikloren bat egiten ari da. Horrenbestez, esan dezakegu lanbide-heziketa ikasten ari dela EAeko gazte ikasleen % 28,7. Bestalde, unibertsitate-graduren bat egiten ari da % 30,8, eta graduondoko ikasketak, masterren bat edo doktoretza-ikasketak % 5,5. Hizkuntzak, arte-hezkuntza edo bestelako prestakuntza motaren bat egiten ari da % 7,5.

50. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEN BANAKETA, GAUR EGUN IKASTEN DUTENAREN ARABERA (%)




Bigarren hezkuntza ikasten ari da derrigorrezko ikasketak soilik amaitu dituzten ikasleen gehiengoa, eta, horien artean, gazte gehiagok ikasten du Batxilergoa (% 41,3), erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat baino (% 24,1); unibertsitatean ikasten ari da Batxilergoa amaitu duten ikasleen gehiengoa (% 65,6), eta goi-mailako prestakuntza zikloren bat egiten ari da erdi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitu duten eta ikasten jarraitzen dutenen gehiengoa (% 51,8); goi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitu ondoren ikasten jarraitzen dutenen artean, ehuneko pertsua joaten da unibertsitate-graduren bat ikastera (% 42,3) edo goi-mailako beste zikloren bat egitera (% 39,9); eta, azkenik, unibertsitate-graduren bat amaitu eta ikasten jarraitzen duten gehienak masterren bat edo graduondoko ikastaroren bat egiten ari dira (% 43,9). Ikusten da, horrenbestez, ikasketen ibilbideak nahiko linealak direla.

Gazteek egin dituzten eta egiten ari diren ikasketei begiratuta, ikusten da prestakuntza-zikloak egiteko joera handiagoa dutela gizonak, emakumeek baino. 16 eta 29 urte bitarteko adinean dauden gazte guztien artean, gizonen % 30,7k amaitu du prestakuntza-zikloren bat, eta emakumeen % 25,6k amaitu du horrelako zikloren bat. Ikasten ari diren gazteei erreparatuz gero, gizonetzko ikasleen % 34,4 ari da prestakuntza-zikloren bat egiten, eta emakumeen % 22,3. Bestalde, unibertsitate-ikasketak amaituak dituztenen ehunekoak eta ikasketa horiek egiten ari direnen ehunekoak handiagoak dira emakumeen artean, gizonen artean baino (16 eta 29 urte bitarteko emakume guztien % 18,1ek du amaituta graduak edo graduondoko unibertsitate-ikasketaren bat, eta % 12,4 dira egoera horretan dauden gizonak; egun ikasten ari direnen artean, berriz, emakume ikasleen % 42,8 ari da unibertsitate-mailako graduren edo graduondoko ikasketaren bat egiten, eta gizonetzko ikasleen kasuan % 30,5, hau da, 10 puntu baino gehiagoko aldea dago emakumeen eta gizonen artean).

Gazteek amaitu dituzten ikasketei begiratzen badiegu (ez dugu beste urte batzuetan egiten ari ziren ikasketen gaineko daturik), ikusten dugu prestakuntza-zikloak ikasteko joera handiagoa dutela gizonak, emakumezkoek baino; hala ere, urtetik urtera txikitzen ari dira bien arteko aldeak. Bestalde, gero eta gehiago dira, ehunekotan, prestakuntza-zikloak ikasteko aukera egiten duten gizonak eta emakumeak.

51. irudia

PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK (ERDI- EDO GOI-MAILAKOAK) AMAITU DITUZTEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN BILAKAERA (%)



Euskarazko eta ingelesezko zer maila dute, oro har, gazteek? Eta ikasten ari diren gazteek?

16 eta 29 urte bitarteko ikasleen % 78,1ek adierazten du nahiko edo oso ondo hitz egiten duela euskaraz, beren adinekoen batezbestekotik (% 65,7) gorako ehunekoan.

Ikasten ari direnen artean, handiagoa da ingelesaren ezagutza (horien % 56,7k dio nahiko edo oso ondo hitz egiten duela ingelesez), gazte guztien artean baino (% 43,9).

Aurreko urteetako datuek ere horixe bera adierazten dute, euskararen eta ingelesaren jakintza handiago dutela ikasleek, 16 eta 29 urte bitarteko gazteek, batez beste, dutena baino.

19. taula

EUSKARAZ ONDO HITZ EGITEN DUTEN GAZTEAK ETA INGELESEZ ONDO HITZ EGITEN DUTEN
GAZTEAK. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEN ETA ADIN-TARTE HORRETAKO GAZTE GUZTIEN
ARTEKO KONPARAZIOA ETA BILAKAERA (%)

(%)	Euskara		Ingelesa	
	Ikasleak	Gazte guztiak	Ikasleak	Gazte guztiak
2011	72,8	62,6	44,5	35,7
2013	71,8	52,9	50,4	39,7
2015	78,1	65,7	56,7	43,9

7.2. IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN LAN-ESKARMENTUA

Orain, aztertuko dugu zenbat gaztek duten ikasketen osagarri den lanen bat eta zenbatak duten lan-eskarmentua, egun lanik egin ez arren.

30 urtetik beherako ikasleen % 14,1ek adierazten du, ikasteaz gain, lan egiten duela, baina, hala ere, ikastea dela bere jarduera nagusia.

Horrez gainera, % 27,4k adierazten du, orain lan egin ez arren, lanean aritu izan dela noizbait; beraz, ondoriozta dezakegu ikasleen % 41,5ek duela lan-eskarmentua.

Noizbait lan egindako ikasleen ehunekoak zertxobait egin du gora 2013tik 2015era, eta 2011. urteko mailaren parean jarri da. Hala ere, ez da iritsi oraindik 2008ko mailara.

20. taula

LAN-ESKARMENTUA (ORAINGOA EDO AURREKOA) DUTEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)

(%)	2004	2008	2011	2013	2015
Oraingo lan-eskarmentua:					
Ikasteaz gain, osagarri den lanen bat dute orain	19,5	22,4	12,8	10,4	14,1
Aurreko lan-eskarmentua:					
Orain lan egin ez arren, lanean aritu izan dira noizbait	24,1	27,1	28,8	27,9	27,4
LAN-ESKARMENTUA DUTEN IKASLE GUZTIAK	43,6	49,5	41,6	38,3	41,5

Baina, zer nolako lan-eskarmentua dute? Nolako lanak egiten dituzte ikasleek?

Aldi baterako lanak egiten dituzte, eta lautik batek kontraturik gabe egiten du lan. Astean 20 lanordu baino gutxiagokoak izaten dira lau enplegutatik hiru, eta lan horiek egiteagatik 400 euro irabazten dituzte hilean, batez beste.

Ikasketen osagarri diren lanak dituzten ikasleen artean, presentzia handiagoa dute 25 eta 29 urte bitartekoek eta goi-mailako ikasketak dituztenek, gainerakoek baino. Ez dago alde nabarmenik sexu bateko zein besteko ikasleen lan-eskarmentuaren artean.

7.3. LAN-BILAKETA IKASLE GAZTEEN ARTEAN

Ikasten ari diren gazteen % 22,2k adierazten du lan bila ari dela, hau da, lan egin nahi du bost ikasletatik batek.

Lan bila ari direnen ehunekoak batezbestekotik oso gora daude 25 urtetik gorakoek eta unibertsitate-ikasketak amaituta dituztenen artean (% 43,9 eta % 36,9). Antzeko ehunekoetan ari dira lan bila mutil ikasleak eta neska ikasleak.

Aurreko urteetako antzekoak dira lan bila ari diren ikasle gazteen ehunekoak: 2013an baino zertxobait apalagoa (% 24,0) eta 2011n baino zertxobait handiagoa (% 19,0).

Bestalde, lana aurkitzeko gestioaren bat egiten duten ikasleek sei hilabete eta erdi ematen dute, batez beste, lan bila. Eta ez dira oso baikorrak lana epe motzean aurkitzeko aurreikuspenak, erdiek baino gutxiagok (% 43,2k) uste baitute nahiko edo oso gertagarria dela sei hilabeteko epean lan bat aurkitzea.

2015. urtean, lan bila batez beste emandako denbora 2013koa (8 hilabete eta erdi) baino laburragoa izan da eta 2011. urtekoaren antzekoa (6 hilabetekoa zen orduko batezbestekoa).

Alabaina, nabarmen handitu da lana aurkitzeko itxaropena. Lehen adierazi dugu lan bila ari diren ikasleen erdiek baino gutxiagok espero dutela epe motzean aurkitzea, baina 2013an eta 2011 askoz gutxiago ziren itxaropen hori zutenak (% 23,5ek eta % 28,7k, hurrenez hurren).

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu lan bila zebiltzan ikasleen laurdenek soilik espero zutela, 2011. eta 2013. urteetan, lana epe motzean topatzea, eta 2015. urtean, ordea, lan bila dabiltzan gazte ikasleen ia erdiek espero dutela sei hilabete igaro baino lehen aurkitzea. Nabartu beharrekoa da, hala ere, gutxiengo direla, ikasleen artean, lana bilatzen ari direnak.

7.4. IKASTEN ARI DIREN GAZTEEN BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hamar ikasletik bederatzik (% 88,7) bizi dira, erabat, beren familiaren (gurasoen, anai-arreben, aitona-amonen eta bestelako ahaideen) diru-sarreraren kontura.

Familiaren diru-sarrerak eta diru-sarrera propioak uztartzen dituela dio % 6,5ek. Eta % 3,8k dio bere diru-sarrerekin eta bikotekidearenekin ordaintzen dituela gastuak.

Logikoa den moduan, % 90 baino gehiago dira, soilik ikasten dihardutenen artean, erabat familiaren diru-sarreraren kontura bizi direnak, baina diru-sarrera horiek diru-sarrera propioekin (bekaren batekin, gizarte-laguntzekin...) uztartzen dituela dio % 3,0k. Bestalde, ikasketen osagarri den lanen bat duten ikasleen laurdenek (% 27,6k) adierazten dute beren diru-sarrera propioak eta familiarenak uztartzen dituela, pertsona horien % 12,6k esaten du bere diru-sarreraren eta/edo bikotekidearen diru-sarreraren kontura bizi dela; hala ere, gehiengoa da, diru-baliabide propioen bat izan arren, soilik familiaren diru-sarreraren kontura bizi direnak (% 58,7).

Diru-sarrerak nondik eskuratzen dituzten aztertu beharrean, hilean zenbat euro dituzten begiratzen badugu, ikusten da gazte ikasleen herenek (% 32,4k) 60 euro baino gutxiago izaten dituztela hilean, eta hamar ikasletik zortzik (% 79,4k) 300 euro baino gutxiago izaten dituztela hilean.

Hala ere, alde handiak daude ikasten soilik ari direnen, eta, ondorioz, familiaren eta/edo beka nahiz gizarte-laguntzaren baten mende bizi direnen, eta lan osagarriren bat dutenen artean. Lehen talde edo multzo horretan, 300 euro baino gutxiago ditu hilean gehiengoak (% 84,6k); eta bigarren taldean, ehuneko hori (300 euro baino gutxiago dituztenena) % 47,1era jaisten da eta beste % 32,1ek dio 301 eta 600 euro artean dituela hileroko. Gainera, ikasi eta lan egiten duten ikasleen artean, gehiago dira hilean 600 euro baino gehiago dituztenak (% 17,4), hilean 60 eurora iristen ez direnak baino (% 4,9).

21. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO IKASLEEK HILEAN ESKURA DUTEN DIRUA,
IKASKETA-JARDUNAREN NOLAKOARI BEGIRATUTA (%)

(%)	Ikasten dute soilik	Gehienbat ikasten dute baina osagarri den lanen bat dute
60 € baino gutxiago	36,9	4,9
60 € eta 300 € artean	47,7	42,3
301 € eta 600 € artean	2,6	32,1
601 € eta 900 € artean	2,0	11,3
900 € baino gehiago	3,1	6,1
Ed/Ee	7,7	3,3
GUZTIRA	100	100

Ohikoa da ikasleen artean, erabat edo nagusiki, familiaren diru-sarreraren kontura bizitzea eta horretan ez da aldaketa adierazgarri ikusten datuen bilakaera aztertzean.

Hilero eskura duten diruari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu normalena izaten dela 300 euro baino gutxiago izatea hilean; hala ere, ikusten da ikasleek gainerako urteetan baino diru gehixeago izan zutela eskura 2004 eta 2008 urteetan; izan ere, gainerako urteetan baino gutxiago izan ziren hilean 60 euro baino gutxiago zutenak, eta gehiago ziren hilean 300 euro baino gehiago zutenak.

22. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTE IKASLEEK HILERO ESKURA DUTEN DIRUAREN BILAKAERA (%)

(%)	2000	2004	2008	2011	2013	2015
60 € baino gutxiago	38,4	23,8	25,9	30,1	38,5	32,4
60 € eta 300 € artean	46,7	57,5	51,9	54,1	44,1	47,0
301 € eta 600 € artean	7,4	9,8	10,2	8,6	7,6	6,8
601 € eta 900 € artean	2,1	3,9	3,9	3,1	3,4	3,3
900 € baino gehiago	1,9	2,8	5,0	1,5	1,4	3,5
Ed/Ee	3,5	2,1	3,1	2,6	5,0	7,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

7.5. 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTE IKASLEEN EGOERA

30 eta 34 urte bitarteko gazteen % 6,4k soilik du ikastea okupazio nagusi. Talde edo multzo horren barruan, ikasten soilik dihardute batzuek (% 4,9k), eta, ikasteaz gain, lanen bat egiten dute beste batzuek (% 1,5ek).

Edonola ere, 30 eta 34 urte bitarteko ikasle gazteen gehien-gehienak (% 95ek) du aurretiazko lan-esperientzia, orain lanik egin ez arren. Eta ikasle horien erdiak inguru (% 52) ari dira lan bila gaur egun.

Amaitutako ikasketa-maila handia dute 30 eta 34 urte bitarteko ikasleek, % 59,5ek baitu amaitutako unibertsitate-ikasketaren bat (adin-tarte horretako gazte guztien batezbestekoa baino handiagoa da ehuneko hori: % 53,6). Eta

beren adin-tarteko pertsonen batezbestekotik gorako ingeles-ezagutza dute: ikasle horien % 45,8k esaten du nahiko edo oso ondo hitz egiten duela ingelesez, eta 30 eta 34 urte bitarteko gazte guztien artean (zer jarduera egiten duten aintzat hartu gabe) % 31,7k dio ingelesaren ezagutza-maila hori duela.

Egun egiten ari diren ikasketei erreparatuta, ehuneko nabarmen bat ari da gaur egun graduondoko ikastaroren bat, masterren bat edo doktoretza-ikasketaren bat egiten (% 20,3), eta gehiago dira graduoko unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako prestakuntza-zikloren bat egiten ari direnak (% 36,2).

Pertsona multzo horren gehiengoa (% 64,8) bere familiaren baliabide ekonomikoen mende bizi da: horietako batzuek gurasoen edo beste ahaide odolokide batzuen (anai-arreben, aitona-amonen edo besteren) diru-sarrerak soilik eskuratzen dituzte, eta beste batzuek beren jatorriko familiaren diruarekin edo baliabideekin osatzen dituzte beren diru-sarrera propioak (lan osagarriak, beka, aurrezkiak, etab).

Pertsona talde horren erdiek (% 53,7k) 600 euro baino gutxiago izaten dituzte hilean, baina herenek (% 34,7k) 600 euro baino gehiago izaten dituzte hilean. Gainerakoek ez dute argitu zenbat diru izaten duten eskura hileroko.

Edonola ere, zehaztu behar da adin horretako ikasleen lagin txikia hartu duela inkestak, eta ezin izan direla sexuaren, amaitutako ikasketen eta bestelako alderdien arabera alderik ezarri.

Hitz batean:

Ikasleak dira 30 urtetik beherako gazteen ia erdiak, eta, adinak behera egin ahala, gora egiten du ikasten ari direnen ehunekoak.

Ikasketen ibilbideak nahiko linealak dira: erdi-mailako prestakuntza-zikloak amaitzean, goi-mailako zikloak ikasteari ekiten diote ikasleek; graduoko unibertsitate-ikasketak amaitzean, graduondoko ikasketak egiten dituzte... Gutxiengoa baldin bada ere, bada goi-mailako lanbide-ikasketak amaitu ondoren unibertsitatara joaten denik, eta are gutxiago dira alderantzizko ibilbidea egiten dutenak.

Edonola ere, jaitsi egin da, 2013. urteko datuarekiko, goi-mailako ikasketak amaitu eta ikasten jarraitzen dutenen ehunekoak.

Euskararen eta ingelesaren ezagutza handiagoa da ikasleen artean, beren adineko pertsonen batezbestekoa baino, eta ezagutza hori handitu egin da azken urteetan.

Lan-eskarmentua dute 30 urtetik beherako hamar ikasletik lauk, bai gaur egun ikasi eta lan egiten dutelako, bai beren bizitzan lanen bat izan dutelako. Aldi baterako lanak izan ohi dira, ordainsari urrikoak. Horrez gainera, lan bila ari da gaur egun bost ikasletik bat, eta epe motzean lan bat aurkitzeko duten itxaropena handiagoa da, aurreko urteetan lan bila ari ziren ikasleena baino.

30 urtetik aurrera, nabarmen jaisten da ikasleen ehunekoak. Ia ikasle guztiek izaten dute, adin horretan, aurretiazko lan eskarmenturen bat, eta lan bila ari dira horien erdiak. Goi-mailako ikasketak dituzte 30 eta 34 urte bitarteko ikasleen erdiek baino gehiagok, eta graduondoko ikasketaren bat, masterren bat edo doktoretza-ikasketaren bat egiten ari da bostetik bat.

8


Lan-bilaketa

Ez dira langabeak lan bila aritzen diren bakarrak. Lan osagarriren bat eduki nahi izaten dute ikasle batzuek, beren diru-sarrera propioak izateko, eta bada lanez aldatu edo lan-baldintzak hobetu nahi dituen langilerik ere. Horrenbestez, alderdi hauek aztertuko ditugu kapitulu honetan: zenbat gazte ari diren lan bila, zer taldek edo multzok duten lana bilatzeko joerarik handiena, zenbat denbora daramaten lan bila eta lana topatzeko zer itxaropen duten.

8.1. LAN BILA ARI DIREN GAZTEAK

30 urtetik beherako gazteen herenek (% 34,7k) adierazten dute lan bila aritu direla inkestari erantzun aurreko hiru hiletan.


Langabezian dauden gazteak dira lana bilatzeko gestioak egin dituztenen ehuneko handiena dutenak (langabezian daudenen % 82,8). Horien atzetik daude, lanean aritu arren, beste lanen baten bila ari direnak, gazte okupatuak % 29,4 ari baita lan bila (hau da, hamarretik hiru). Azkenik, lan bila ari da ikasleen % 22,2.



Lan bila ari diren gazteen ehuneko orokorra % 34,7koa izan da 2015ean. Ehuneko hori 2013koaren antzekoa izan da (% 35,5), eta 2011koa baino handiagoak izan dira aurreko biak (% 29,7). Taldekako bilakaerari begiratuz gero, ikusten da handitu egin dela, lana izan arren, beste lan baten bila dabilzan gazteen ehunekoa.

53. irudia

LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN BILAKAERA, BEREN OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



2015. urteko datuei erreparatuta, ikusten dugu gazteen adinak gora egin ahala, gora egiten duela, zer jarduera egiten duten aintzat hartu gabe, lan bila ari direnen ehunekoak, % 13,1ekoa izan baita 20 urtetik beherakoaren artean, % 38,4koa 20 eta 24 urte bitartekoaren artean, eta % 44,2koa 25 eta 29 urte bitartekoaren artean.

Adinari eta okupazio edo jarduera nagusiari lotuta, ikusten da goi-mailako ikasketak amaitu eta lan bila ari diren gazteen ehunekoa handiagoa dela, gehienez bigarren mailako ikasketak amaitu eta lan bila ari diren gazteena baino (% 43,8 eta % 30,6 dira, hurrenez hurren). Logikoa da hori horrela izatea, ikasten jarraitu nahi izaten baitute bigarren mailako ikasketak dituzten gehienek, eta, ondorioz, ez dutelako epe motzean lan bat aurkitzeko aurreikuspenik izaten.

Bestalde, lan-eskarmentua dutenak –lanean ari direlako edo noizbait lan egin dutelako–, ehuneko handiago batean aritzen dira lan bila, inoiz ere lan egin ez dutenak baino (pertsonek gazteena izaten dira azken horiek): lan-eskarmentua dutenen % 42,6 eta lan-eskarmenturik ez dutenen % 18,0, hain zuzen ere.

16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien datuekin konparatzen baldin baditugu adin-tarte horretan lan bila ari direnen ehunekoak, ikusiko dugu azken multzo horretan gainerakoena baino handiagoa dela 25 eta 29 urte bitartekoaren presentzia, goi-mailako ikasketak amaitu dituzten gazteena, langabezian dauden gazteena, lan-eskarmentua duten gazteena eta beren burua beheko edo ertain-beheko gizarte-mailan ikusten duten gazteena.

23. taula

LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ETA ADIN HORRETAKO GAZTE GUZTIEN ARTEKO KONPARAZIOA, ADIN-TALDEEN, AMAITUTAKO IKASKETEN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, LAN-ESKARMENTUAREN ETA SUBJEKTIBOKI KOKATZEN DIREN GIZARTE-MAILAREN ARABERA (%)

(%)	Lan bila ari diren gazteak	Gazte guztiak	
Adin taldeak	16-19 urte	9,2	24,5
	20-24 urte	36,4	32,8
	25-29 urte	54,4	42,7
Amaitutako ikasketak	Derrigorrezkoak	30,5	33,5
	Derrigorrezkoen ondorengo bigarren mailakoak	30,4	36,5
	Goi-mailakoak	39,1	30,9
Okupazio nagusia	Ikastea	29,9	46,8
	Lana	29,5	34,8
	Langabezia-egoera	36,6	15,4
	Beste egoeraren bat	3,9	3,1
Lan-eskarmentua	Bai	83,4	67,9
	Ez	16,6	32,1
Subjektiboki kokatzen diren gizarte maila	Goi-mailakoa edo ertain-goi-mailakoa	3,8	6,1
	Maila ertainekoa	62,1	69,1
	Behekoa edo ertain-behekoa	31,9	22,2
	Ez du bere burua kokatzen	2,2	2,5
Aldagai bakoitzeko GUZTIZKOAK		100	100

8.2. LAN BILA EMANDAKO DENBORA ETA LANA AURKITZEKO AURREIKUSPENAK

Bederatzi hilabetekoa da, 2015. urtean, lan bila ari direnek lan bila ematen duten batez besteko denbora; hori adierazi dute, bederen, inkestari erantzutean lan bila ari ziren gazteek. Denbora hori 2013. urtean gazteek ematen zuten denboraren parekoa da, baina 2011n erabiltzen zutena baino luzeagoa da, zazpi hilabetez aritzen baitziren lan bila urte horretan.

Datu horrek ez du esan nahi denbora hori ematen dutenik lana aurkitu bitartean; aitzitik, adierazten du zenbat denbora daramaten lan bila inkesta egin zaien bitarteko denboran, eta ez dago jakiterik zenbat denbora beharko duten guztira, harik eta enplegu bat aurkitzen duten arte. Edonola ere, datu horren bilakaerak adierazten du, itxura batean, orain lan bila dabiltzan gazteek beste urte batzuetan baino denbora gehiago behar dutela lana topatzeko.

2015. urtean, lan bila ari diren langabeek eta lanez aldatu nahi duten langileek adierazten dute 10 hilabete daramatzatela, batez beste, lan bila. Lanaren bilaketa-denbora laburragoa da lan bila dabiltzan ikasleen artean, sei hilabete eta erdikoa.

Goi-mailako ikasketak (unibertsitatekoak edo goi-mailako prestakuntza-zikloak) amaituta izan eta lan bila dabiltzan artean, batezbesteko orokorraren parekoa da bilaketa-denbora, bederatzir hilabeteakoa.


Lan bila zenbat denbora daramaten galdetzeaz gain, gazte horiei galdetu zaie, era berean, ba ote duten sei hilabete baino lehen lana aurkitzeko itxaropenik.

Lan bila dabiltzan pertsona gazteen erdiek (% 49,4k) uste zuten, 2015. urtean, nahiko edo oso gertagarria zela lana sei hilabete baino lehen aurkitzea.

Lana aurkitzeko aurreikuspenak handitu egin dira 2013. eta 2011. urteekiko. 2013. urtean lan bila zebiltzanen % 26,6k uste zuen lana aurki zezakeela sei hilabete baino lehen; eta 2011. urtean % 32 ziren hori pentsatzen zutenak. 2015 urtean baino nabarmen txikiagoak dira ehuneko horiek.

54. irudia

LAN BILA EMANDAKO DENBORAREN ETA EPE MOTZEAN LANA AURKITZEKO KONFIANTZAREN BILAKAERA LAN BILA ARI DIREN 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEENGAN (%)



Aurretiazko lan-eskarmentua dutenek epe motzean lana lortzeko itxaropen handiagoa dute, inoiz ere lan egin ez dutenek baino: % 53,1 batzuek eta % 31,1 bestek, 2015. urtean.

8.3. LAN-BILAKETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEAN


2015. urtean, 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 37,0 aritu da lan bila, lanik duten ala ez alde batera utzita.

30 urtetik beherako lan-bilatzailena (% 34,7) baino zertxobait handiagoa da ehuneko hori.

Lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitartekoaren artean, hamaika hilabete eta erdikoa da, inkesta erantzun bitartean, bilaketa horren denbora. Lan bila dabiltzan 30 urtetik beherako gazteek darabilatzatena baino luzeagoa da denbora hori, bederatzir hilabete baitarabilte 16 eta 29 urte bitartekoek.

Epe motzean lana aurkitzeko duten itxaropenari begiratuta, lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen erdiek baino gutxiagok (% 43,1ek) uste dute nahiko edo oso gertagarria dutela lana sei hilabete baino lehen aurkitzea. Horrenbestez, lana aurkitzeko itxaropen urriagoa dute 30 urtetik gorakoek, adin horretatik beherakoek baino.

55. irudia

LAN-BILAKETAREN GAINEKO HAINBAT ALDERDITAN
30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA


Aurreko urteekin alderatuta, ikusten da handitu egin dela lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa: adin-bitarte horretako pertsonen % 28,7 ziren 2011n, % 33,0 ziren 2013an eta % 37,0 izan dira 2015ean.

Lan bila daramaten denborari begiratuta, laburtu egin da denbora hori 2015. urtean 2013. urtearekiko, azken urte horretan ia hamahiru hilabete zeramatzatela baitzioten; hala ere, 2011. urteotik gorakoa da 2015eko batezbestekoa (10 hilabetekoa izan zen 2011n).

Hala ere, epe motzean lana aurkitzeko aurreikuspenak nabarmen handitu dira 2011. urtearekiko, urte horretan lan bila ari zirenen % 32,2k uste baitzuen oso gertagarria zela sei hilabeteren aurretik lana aurkitzea, eta, batik bat, 2013. urtearekiko, orduan txikiagoa baitzen lana sei hilabetean aurkitzeko itxaropena zutenen ehunekoa (% 27,6).

56. irudia

LAN-BILAKETAREN GAINEKO ALDERDIEN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEAN



Hitz batean:

Lan bila ari dira 30 urtetik beherako gazteen herenak baino zertxobait gehiago. Lanik gabe daudenak ari dira, batik bat, lan bila, baina baita ikasleak eta lanez aldatu nahi duten langileak ere.

Bederatzi hilabetez ari dira, batez beste, lan bila, eta lan bila ari direnen erdiek uste dute epe motzean aurkituko dutela. Lana aurkitzeko aurreikuspenak baikorragoak dira 2015. urtean, aurreko urteetan baino.

Azken urteetan, gora egin du, 30 eta 34 urte bitartekoen artean, lan bila ari direnen kopuruak. Lan bila dabilzan 30 urtetik beherakoekin egoerarekin alderatzen baldin badugu haien egoera, ikusten da adin zaharragokoek denbora gehiago daramatela lan bila eta lana aurkitzeko itxaropen urriagoa dutela.

9

Enpleguarekiko jarrerak

Kapitulu honek ez du aztertuko zer egiazko egoera bizi duen gazteriak enpleguarekiko; aitzitik, enpleguarekiko dituzten iritziak eta jarrerak aztertuko ditu, norberaren kontura lan egiteko ekimenik ba ote duten behatuko du, eta, besteak beste, lan bila emigratzeko prest ote dauden arakatuko du.

Aztertuko dugu alderik ba ote dagoen lanean ari diren gazteen, gazte langabeen eta ikasleen jarreraren artean, eta jarrera horiek azken urteetan zer bilakaera izan duten behatuko dugu.

9.1. AUTOENPLEGURAKO EKIMENA ETA JARRERA

EAEEn bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen gehiengoak (% 70,9k) ez du inoiz ere izan norberaren kontura lan egiteko ekimenik. Gazteen % 16,1ek esaten du pentsatu izan duela noizbait, baina azkenean bere kontura lanik ez egitea erabaki duela. Eta % 1,2k lan egin du noizbait autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan, baina orain ez dago egoera horretan.

Bestalde, EAEEn bizi diren 30 urtetik beherako gazte guztien % 2,4k adierazten du autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan lan egiten duela, eta % 8,5 ari da aukera hori serio aztertzen. Esan dezakegu, horrenbestez, autoenplegurako ekimena duela EAEen hamar gaztetik batek (% 10,9k).


Txosten honen 5. kapituluan adierazi dugun moduan, lanean ari diren gazteen % 6,1ek egiten du lan autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan. Horrez gainera, langile gazteen % 2,5ek adierazten du garai batean baietz, baina gaur egun ez duela erregimen horretan lan egiten. Ikasleen % 1,1ek lan egiten du gaur egun bere kontura ikasketen osagarri den lanen batean (% 0,6k) edo bere kontura lan egin zuen aurreko urteren batean (% 0,5ek). Langabezian dauden % 0,8k adierazten du autonomia edo enpresaburua izan dela noizbait.

Gaur egun autonomo edo enpresaburu izan ez baina erregimen horretan lan egiteko aukera serio aztertzen ari direnei begiratzuz gero, ikusten da ehunekoak oso antzekoak direla aztertutako hiru taldeetan: lanean ari direnen % 8,0 dira, ikasten ari direnen % 9,0, eta langabezian dauden % 8,9.

Nabarmentzekoa da ez dutela inoiz ere aukera hori aintzat hartu lanik gabe dauden bi herenek (% 67,8k). Lanik gabe dauden gazteen % 22,4k pentsatu izan du aukera hori heltzea, baina ez du aurrera egiteko urratsik eman. Aukera hori aztertu baina aurrera ez egitea erabaki dutenen ehunekoa handiagoa da lanik gabe dauden artean, gainerako taldeetan baino.

57. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKOEK AUTOENPLEGUAN DUTEN ESKARMENTUA ETA AUTOENPLEGURAKO DUTEN JARRERA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



Lanik gabe denbora luzea daramatenek ez dute gainerakoek baino ekimen edo joera handiagorik autoenpleguan aritzeko; izan ere, lanik gabe urtebete baino gehiago daramatenek ehuneko txikiagoan aztertu du lan-aukera hori, lanik gabe urtebete baino gutxiago daramatenek baino.

Lanean ari direnen artean, kontratu motak (mugagabea edo aldi baterakoa) ez du eraginik autoenpleguaren aukera aintzat hartzeko. Nabarmenezkoa da kontraturik gabeko langileak direla aukera hori gutxien baloratu dutenak, baina adierazi behar da, era berean, gainerako taldeetakoak baino gazteagoak izan ohi direla talde horretakoak, eta adinak, gai honekiko, alde nabarmenak dakartzala.

Autonomoen eta enpresaburuen ehunekoa handiagoa da 24 urtetik gorakoen artean, eta, adin horretan, gainerako taldeetan baino gehiago dira iraganean autonomo edo enpresaburu izan direnak eta autoenplegurako urratsa emateko aukera serio aztertzen ari direnak (edo, aukera hori aztertu, baina aurrera ez egitea erabaki dutenak).

Oro har, emakumeek baino autoenplegurako joera handiagoa dute gizonek. Gaur egun, gizon gazteen % 3,1ek egiten du lan bere kontura, eta emakumeen % 1,7k lan egiten du erregimen horretan. Horrez gainera, gizonen % 9,5 ari da serio aztertzen aukera hori, eta emakumeen artean, berriz, % 7,5koa da ehunekoa.

24. taula

AUTOENPLEGURAKO JARRERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO
GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ETA ADIN TALDEEN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak	
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte
Gaur egun autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak dira	2,4	1,7	3,1	1,4	3,8
Garai batean autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak izan ziren baina gaur egun ez	1,2	1,3	1,1	0,2	2,6
Aukera hori serio aztertzen ari dira	8,5	7,5	9,5	7,5	9,9
Aukera hori aztertu dute baina aurrera ez egitea erabaki dute	16,1	15,7	16,5	14,0	18,9
Ez dute inoiz aukera hori aintzat hartu	70,9	73,2	68,9	76,0	64,1
Ed/Ee	0,8	0,7	1,0	0,9	0,7
GUZTIRA	100	100	100	100	100

Egin dituzten ikasketak aintzat hartuta, ikusten da prestakuntza-zikloren bat amaitu dutenak direla gehien aztertu dutenak autoenpleguaren aukera: % 35ek aztertu du aukera hori, gero aukera hori gauzatu duen ala ez aintzat hartu gabe (ehuneko horretan sartzen dira gaur egun norberaren kontura lanean ari direnak eta noizbait erregimen horretan lan egin dutenak, autonomo izateko aukera aztertu eta aukera hori baztertu dutenak, eta gaur egun aukera hori serio aztertzen ari direnak).

Azkenik, gainerako gazteek baino ehuneko handiagoan aztertzen al dute norberaren kontura lan egiteko aukera lan bila ari direnek? Bai, lan bila ari direnen % 30,2 ari da aukera hori serio aztertzen edo, urratsik eman ez arren, noizbait pentsatu du aukera hori urratzea. Gaur egun lan bila ari ez direnen artean, txikiagoa da, % 21,6koa, aukera hori aztertzen ari direnen eta, noizbait aztertu, baina urrats hori ez ematea erabaki dutenen ehunekoak.

Zer bilakaera izan du azken urteetan norberaren kontura lan egiteko ekimenak, goranzkoa ala beheranzkoa?

Autoenpleguaren alorrean eskarmentua duten gazteen ehunekoak behera egin du 2015. urtean aurreko urteekiko; hau da, gutxiago dira, gaur, autonomoak, profesional liberal edo enpresaburuak eta, gaur egun horrelako lanik egin ez arren, noizbait erregimen horretan lan egin dutenak.

Era berean, 2015. urtean behera egin du zertxobait, erregimen horretan lan egin ez arren, noizbait aukera hori aztertu dutenen ehunekoak. 2013. urtean izan zen handiena beren kontura lan egiteko aukera aztertu zuten gazteen ehunekoak: urte horretan, gazteen % 29,3k aztertu zuen serio edo, aztertu ondoren, baztertu zuen bere kontura lan egiteko aukera.

25. taula

AUTOENPLEGURAKO JARRERAREN BILAKAERA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)

(%)	2004	2008	2011	2013	2015
Gaur egun autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak dira	3,1	3,9	3,2	3,6	2,4
Garai batean autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak izan ziren baina gaur egun ez *	0	0	1,4	0,9	1,2
Aukera hori serio aztertzen ari dira	6,9	10,4	11,1	11,9	8,5
Aukera hori aztertu dute baina aurrera ez egitea erabaki dute	14,4	13,6	12,1	17,4	16,1
Ez dute inoiz aukera hori aintzat hartu	74,4	70,8	71,6	65,4	70,9
Ed/Ee	1,2	1,3	0,6	0,9	0,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100

* Erantzun aukera hori ez zen kontuan hartu 2004 eta 2008 urteetan

9.2. LANBIDEZ ALDATZEKO EDO LAN-AURREIKUSPENAK MURRIZTEKO PRESTASUNA

Krisia abiatu eta langabezia-tasa handitu ostean, gazteei galdetu genien ea prest ote zeuden lanbidez aldatzeko edo beren lan-aurreikuspenak (hau da, beren lanbide-kategoria edo diru-sarrerak) murrizteko, lanen bat lortzeko edo orain dutenaz bestelako lanen bat eskuratzeko.

Gazte gehienak daude prest, 2015. urtean, enplegurako dituzten aurreikuspenak aldatzeko edo murrizteko: hamar gaztetik zazpik adierazten dute prest daudela ofizioz edo lanbidez aldatzea dakarren lan bat onartzeko, eta erdiak daude prest beren kualifikazio-mailari dagokiona baino lanbide-kategoria apalago bat onartzeko edo kualifikazio horregatik teoriarik legezkoak baino ordainsari apalagoak onartzeko.

Hori horrela izanda ere, lana izatearen ordainean lanbidez aldatzeko prest dauden gazteen ehunekoak (% 69,3) behera egin du, 2013. urtearekiko, urte horretan gazteen % 74,7 baitzegoen horretarako prest. Ehuneko hori 2011n izandakoa (% 70,7koa) baino puntu bat txikiagoa da orain. Behera egin du, era berean, norberak duena baino lanbide-kategoria apalagoa edo norberak duen kualifikazioari teoriarik egokiak zaizkionak baino diru-sarrera txikiagoak onartzeko prest daudenen ehunekoak 2013. urtearekiko; hau da, 2013. urtean baino gazte gutxiago dago prest 2015ean lanbide-kategoria apaltzeko (% 60,7 eta % 56,2, hurrenez hurren) edo beren ustez dagokiena baino gutxiago kobratzeko prest (% 51,7 dira 2015ean eta % 57,0 ziren 2013an). Hala ere, gazteek beren lan-aurreikuspenak murrizteko duten prestasuna nabarmen handiagoa da orain 2011. urtean baino.

26. taulaLAN-AURREIKUSPENAK ALDATZEKO EDO MURRIZTEKO JARRERAREN BILAKAERA
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)

(%)	2011	2013	2015
Ofizios edo lanbidez aldatzeko prest daude	70,7	74,7	69,3
Norberak duen kualifikazio-mailari dagokiona baino lanbide-kategoria apalagoa onartzeko prest daude	45,6	60,7	56,2
Norberak duen kualifikazioari teorian egokiak zaizkionak baino diru-sarrera txikiagoak onartzeko prest daude	40,2	57,0	51,7

* Banan-banan aurkeztutako galderari dagozkien baiezeko erantzunen ehunekoak dira

Langabezian dauden gazteek prestasun handiagoa dute ofizios edo lanbidez aldatzeko (langabezian dauden gazteen % 90,5), eta, bereziki, langabezian urtebetetik gora daramatenek (egoera horretan dauden % 93,0 dago lanbidez aldatzeko prest).

Ez da alde nabarmenik ageri ikasleen eta lanean ari diren gazteen artean, ezta sexuaren edo amaitutako ikasketen arabera, baina ikusten da alderik jatorriari eta gizarte-mailari erreparatuta. Ofizios edo lanbidez aldatzeko prestasun handiagoa dute atzerrian jaio diren gazteek, EAEn jaio diren gazteek baino (% 75,2 eta % 67,7, hurrenez hurren). Gizarte-mailak behera egin ahala, gero eta handiagoa da, enplegua lortze aldera, lanbidez aldatzeko prest dauden gazteen ehunekoa (beren burua behe edo ertain-beheko gizarte-mailan ikusten dutenen % 83,6, eta beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan ikusten dutenen % 58,8).


Norberak duen kualifikazioari dagokiona baino lanbide-kategoria apalagoa onartzeko prestasun handiagoa dute langabezian daudenek (% 85,1 dira, eta % 56,2 da batezbestekoa), eta, alderdi horretan, ez da alderik ikusten lanik gabe urtebete baino gehiago daramatenen eta urtebete baino gutxiago daramatenen artean. Bestalde, gaur egun lanean ari direnak dira prestasun txikiena dutenak aldaketa hori onartzeko (erdiek baino gutxiagok, % 46,8k, onartuko lukete lanbide-kategoriaz jaistea).

Txikiak dira, berriro ere, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren araberako aldeak, baina ikusten da, bestalde, atzerrian jaiotako gazteek eta beren burua beheko edo ertain-beheko gizarte-mailan ikusten dutenek dutela beren lanbide-kategoria behertzeko prestasun handiena (% 65,2 eta % 69,8, hurrenez hurren).

Kualifikazioari teorian dagozkionak baino diru-sarrera apalagoak onartzeko prest daudenei begiratuta, lanik gabe daudenak dira, berriro ere, prestasun handiena dutenak (% 74,6 dira, eta % 51,7 da batezbestekoa). Batezbestekotik gorako ehunekoak dituzte, era berean, langabezian urtebetetik gora daudenak (% 78,4), beren burua beheko edo ertain-beheko gizarte-mailan kokatzen dutenak (% 62,2), atzerrian jaiotakoak (% 60,8) eta goi-mailako ikasketarik ez dutenak (% 53,0). Bestalde, gaur egun lanean ari diren gazteak dira beren diru-sarreraren jaitiera onartzeko prestasun txikiena dutenak (% 43,0).

58. irudia

BEREN LAN-AURREIKUSPENEN MURRIZKETAK ONARTUKO LITUZKETEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



Bestalde, gaur egun zer egiten ari diren aintzat hartu gabe, lan bila ari direnei begiratzen baldin badiegu, ikusten dugu lan bila ari diren gazteak ofizioz edo lanbidez aldatzeko prestasun handiagoa dutela gaur egun lana bilatzen ez dutenak baino (% 87,3 eta % 59,7, hurrenez hurren), eta lan bila dabilzanek prestasun handiagoa dute, era berean, beren ustez dutena baino lanbide-kategoria apalago bat onartzeko (lan bila dabilzanen % 74,8 eta lan bila ari ez direnen % 46,3) eta beren kualifikazio-mailari egoki deritzotenak baino diru-sarrera apalagoak onartzeko (lana bilatzen ari direnen % 68,0 eta lan bila ari ez direnen % 43,1).

9.3. MUGIKORTASUN GEOGRAFIKORAKO PRESTASUNA

Lan interesgarri baten truke, bizilekuz aldatzeko prest ote leudekeen galdetu diegu gazteei.

2015. urtean, hamar gaztetik seik adierazi dute EAETik kanpora joateko prest daudela, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen badiete: atzerrira joateko prest dago % 50,5 (edonora joateko prest dago % 40,0 eta Europako herrialderen batera joateko prest % 10,5) eta % 8,5 ez dago atzerrira joateko prest, baina bai Espainiako beste autonomia-erkidegoren batera joateko.

Gizon eta emakume gazteen gehiengoak ageri du EAETik kanpo lan egiteko prestasuna (% 60,7k eta % 57,3k, hurrenez hurren). Baina edonora joateko prestasun handixeagoa adierazten dute gizonak, emakumeek baino (gizonen % 41,9 eta emakumeen % 37,9).


Atzerrira joateko prestasun handiagoa ageri dute 25 urtetik beherakoek, adin hori gainditu dutenek baino, baina Espainiako beste edonora joateko prestasun paretsua ageri dute bi talde horiek. Guztizkoei erreparatuta, 25 urtetik beherako gazteen % 61,4k eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen % 55,8k ageri du EAETik kanpo lan egiteko prestasuna.

Ikasleak dira EAETik kanpo lan egiteko prestasun handiena ageri dutenak: hiru ikasletik bik (% 66,6) azaldu dute EAETik kanpo lan egiteko prestasuna. Langabezia daudenak datoz ikasleen atzetik, % 60,4 baitago prest gure erkidegotik kanpo lan egiteko. Azkenik, lanean ari direnen erdiek (% 49,8) ageri dute EAETik kanpo lan egiteko

prestasuna, baina lanean dabiltzanen % 22,4 ez litzateke inolaz ere aldatuko bizilekuz, ezta gertuko herriren batera joateko ere.

59. irudia

LAN INTERESGARRI BAT ESKAINIZ GERO, BIZILEKUZ ALDATZEKO PRESTASUNA AGERI DUTEN
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



Ikusten da alderik talde horien barruan ere. Lanean dabiltzanen artean Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lan egiteko prestasun gutxiago ageri dute kontratu finko edo mugagabea dutenek eta beren kontura lan egiten dutenek, aldi baterako kontratua dutenek edo kontraturik gabe lan egiten dutenek baino (aldi baterako kontratua dutenen % 59,7k eta kontraturik ez dutenen % 67,6k adierazten du bizilekuz aldatuko litzatekeela, baldin eta lan interesgarri bat eskaintzen badiote). EAetik joateko aukera onargarriagoa da, gaur egun lanean aritu arren, urtebeteko epean lana galtzeko arrisku handia ikusten dutenentzat, arrisku hori hautematen ez dutenentzat baino, eta bizilekuz aldatzeko prestasun handiagoa ageri dute beren ikasketekin lotura urria edo deuseza dutenek, beren ikasketekin lotura handia edo oso handia duen lan bat egiten dutenek baino. Bestalde, lanik gabe daudenei begiratuta, handiagoa da kanpora joateko prestasuna langabezian urtebete baino gutxiago daramatenen artean (% 66,6), egoera horretan urtebetetik gora daramatenen artean baino (% 52,0).

Gizarte-mailak ere badakar alderik, eta gizarte-maila altukoak eta ertain-altukoak dira EAetik kanpora joateko prestasun handiena ageri dutenak, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen bazaie (% 72,7).

Gazteen jatorriari erreparatzen baldin badiogu, ikusten dugu ez dagoela alderik atzerrian eta EAEn edo Espainiako Estatuko beste lurralderen batean jaiotakoan artean EAetik kanpo joateko prestasunari begiratuta, baina antzematen da alderik munduko edozein lekutara joango liratekeela dioten gazteen taldeari soilik begiratzen badiogu: atzerrian jaio direnen % 49,5 joango litzateke munduko edozein lekutara lanera, eta hori bera egiteko prestasuna azaldu du EAEn edo Espainiako Estatuko beste lurralderen batean jaiotakoan % 38k.

Lan bila ari diren gazteek, langabezia dauden ala ez kontuan izan gabe, gainerakoek baino prestasun handiagoa dute mugikortasun geografikorako, bai atzerriko lanen bat hartzeko (% 55,0), bai beste autonomia-erkidegoren batera joateko (% 11,0).


Baina, zalantzarik gabe, atzerriko lan-eskarmentua da EAetik kanpora lan egitera joateko prestasunean gehien eragiten duen aldagaia. Txosten honen 3. kapituluari adierazi den moduan, EAEn 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazteen % 8,4k du lan-eskarmenturen bat atzerrian, hura hilabete gutxi batzuetakoa izan bada ere. Pertsona multzo horren % 75,8k du EAetik kanpo lan egiteko prestasuna, baina deigarriena da % 66,4 (hirutik bi) joango litzatekeela edonora.

Azkenik, zer bilakaera izan du adierazle horrek azken urteetan?

Ekonomiak egoera oparoa izan zuen 2000. eta 2008. urteen bitartean, eta urte horietan behera egin zuen gazteek EAetik kanpora joateko zuten prestasunak (gazteen % 46,6k adierazi zuten prestasun hori 2000n eta % 40,7k adierazi zuten 2008an). Gerora, krisi ekonomikoarekin, prestasuna % 52,9ra igo zen 2011n eta % 58,3ra 2013an. 2013. urtekoaren oso antzekoa da 2015eko ehunekoak (% 59,0).

60. irudia

LAN INTERESGARRIREN BAT ESKAINIZ GERO, 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK BIZILEKUZ ALDATZEKO AGERI DUTEN PRESTASUNAREN BILAKAERA (%)



Atzerria joateko prestasunari soilik begiratzen baldin badiogu (kanpoan utzita Espainiako Estatuko beste lekuren batera joateko prestasuna ageri dutenak), are handiagoa da krisi aurreko eta ondorengo datuen arteko aldea.

Horren harian, atzerria joateko probabilitaterik ikusten ote duten eta aukera hori gogoko ote duten galdetu zaie gazteei 2013an eta 2015ean.

30 urtetik beherako hamar gaztetik hiruk uste dute, 2015. urtean, nahiko edo oso gertagarria dutela etorkizunean atzerria joan behar izatea lan egitera (% 31,2).

20 urtetik beherakoena da iritzi horren aldeko joera handiena ageri duen taldea (% 42,3) eta, adinak gora egin ahala, gero eta gutxiago dira hori pentsatzen dutenak (% 25,1 dira 25 eta 29 urte bitartekoen artean).

Adinari lotuta, uste hori zabalduago dago ikasleen artean (% 44k uste du nahiko edo oso gertagarria duela etorkizunean atzerrian lan egitea), langabezian daudenen artean baino (% 26,7) eta gaur egun lanean ari direnen artean baino (azken multzo horretan daudenen % 17k soilik uste du atzerrian lan egingo duela).


Egindako ikasketen arabera, alde handia dago unibertsitate-mailako ikasketak eta lanbide-ikasketak dituztenen artean: unibertsitate-ikasketak dituztenen % 35,3k uste du oso gertagarria duela atzerrian lan egitea, eta hori uste du lanbide-ikasketak dituztenen % 23,2k.

Ez da alderik ageri jaiolekuaren arabera, baina bai gizarte-mailaren arabera; atzerrian lan egiteko probabilitate handiagoa ikusten dute gizarte-maila altukoek edo ertain-altukoek (% 42,5ek), gizarte-maila ertainekoek baino (% 32,4) eta beheko edo ertain-beheko mailakoek baino (% 22,9).

Baina atzerrian lan-eskarmentua duten gazteen taldean da handiena etorkizunean atzerrian lan egin dezaketela pentsatzen dutenen ehunekoa: ia erdiak dira, % 47,2, hori pentsatzen dutenak, eta atzerrian lan-eskarmenturik ez dutenen artean, berriz, % 29,8koa da ehuneko hori.

61. irudia

ATZERRIAN LAN EGITEKO PROBABILITATEA 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN IRITZIAN, ADIN TALDEEN ETA AURRETIAZ ATZERRIAN IZANDAKO LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)



Atzerrian lan egiteko probabilitateak gora egiten du, lan interesgarri baten truke bizilekuz aldatzeko prestasuna ageri dutenen ehunekoak gora egiten duen heinean; hori horrela, lanera edonora joateko prestasuna ageri dutenen erdiek (% 51,8k) uste dute oso gertagarria zaiela etorkizunean atzerrian lan egitea, eta % 4,2 soilik dira hori oso gertagarri ikusten dutenak beren bizilekua beste herriren batera ere eramango ez luketenen artean.


Atzerrian lan egiteko gogoaz ere galdetu dugu. Hamar gaztetik lauk (% 40,3k) erantzun dute gogoko luketela atzerrian lan egitea, eta gazteenak dira, beste behin, gogo handiena ageri dutenak (20 urte bete gabekoen % 46,9k).

Ikasleak dira atzerrian lan egiteko gogo handiena ageri dutenak (% 48,9), langabeen (% 36) eta langileen gaineratik (% 31,4). Txikiak dira ikasketen eta sexuaren arabera, baina handiak jatorriaren eta gizarte-mailaren arabera. Atzerrian jaio direnak dira atzerrian lan egiteko gogo handiena adierazten duenak (% 46,3k). Eta gaztearen gizarte-mailak gora egin ahala, gora egiten du atzerrian lan egin nahi luketela adierazten dutenen ehunekoa (beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan ikusten duten gazteen % 51,2k adierazten du atzerrian lan egiteko gogo).

Ingelesez nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dutenek gainerako gazteek baino gogo handiagoa adierazten dute atzerrian lan egiteko (% 73,2k eta % 24,1ek, hurrenez hurren). Eta atzerrian lan-eskarmentua duten gazteen gehiengoak (% 64,7k) azaltzen du berriro Espainiatik kanpo lan egiteko gogo.

62. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK ATZERRIAN LAN EGITEKO AZALTZEN DUTEN GOGOA, ADIN TALDEEN ETA AURRETIAZ ATZERRIAN IZANDAKO LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)



Agerikoa da lotura handia dutela, lan interesgarri bat lortze aldera, bizitokiz aldatzeko erakusten den prestasunak eta atzerrian lan egiteko gogoak. Bizitzera edonora joateko prestasuna azaltzen dutenen % 69,1ek adierazten du gogoko lukeela atzerrian lan egitea. Esan behar da, hala ere, munduko edozein lekura emigratzeko prestasuna ageri dutenen % 28,7k ez duela atzerrian lan egin nahi.

Atzerrira joateko probabilitatea eta gogoaz uztartzen baldin baditugu, ikusten dugu atzerrian lan egiteko gogoaz dutenak direla hori gertatzearen probabilitate handiena ikusten dutenak, eta hori oso gertagarria zaiela uste duten gehienek adierazten dute gogoko luketela atzerrian lan egitea.

Datu horiek ikusi eta atzerrian lan egiteko probabilitatearen eta gogoaren gaineko datuak uztartu ondoren, EAEko gazteak eta atzerrirako emigrazioa lotzen dituen sailkapen bat ezarri da.

Lehen taldean daude atzerrira lan egitera joateko gogoia izan eta hori nahiko edo oso gertagarria zaiela irizten dutenak. Gazteen % 22,8k osatzen du talde hori. Neska eta mutil horientzat, emigratzea ez da arazoa, aukera baizik, eta horregatik uste dugu borondatezko emigrazioa izango litzatekeela.


Bigarren taldean dira beste muturrean daudenak: emigratzeko gogorik izan ez eta hori gertatzeko aukerarik ikusten ez dutenak. Talde handiena da, eta gazteen % 48,2 biltzen du. Esan dezakegu, beraz, gazteen erdiek ez dutela aintzat hartzen emigrazioaren aukera; hau da, emigrazio gertagaitzaren taldea litzateke.

Hirugarren taldean daude emigratzeko gogoia izan, baina hori gertatzeko aukera urriak ikusten dituztenak; hau da, emigrazio zapuztuaren taldea litzateke. Gazteen % 15,7 biltzen du talde horrek. Hala ere, atzerrira joan daitezke pertsona horiek, baldin eta aukera bat eskaintzen baldin bazaie.

Eta, azkenik, emigratzeko gogorik izan ez, baina horretara behartuta izan daitezkeela uste dutenen taldea dago. Gazteen % 8,0k osatzen du talde hori, eta emigrazio behartuaren taldea dela esan daiteke, egoerak behartuta emigratuko luketelako, beren borondatearen kontra.

Gazteen gainerako % 5,3a ez da sailkapen horretan sartzen, ez baitu adierazi emigratzeko aukerarik aurreikusten ote duen edo atzerrira joateko gogorik ote duen.

63. irudia
16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN SAILKAPENA, BALIZKO
ATZERRI-EMIGRAZIOARI ERREPARATUTA (%)



Emigratio gertagaitzaren ehuneko handiagoak ageri dituzte emakume gazteek, gizon gazteek baino (% 50,8 eta % 45,7, hurrenez hurren), eta emigratio zapuztuaren ehuneko txikiagoak emakumeek gizonek baino (% 13,4 emakumeek, eta % 17,8 gizon gazteek).

Adinak gora egin ahala, handitu egiten da emigratio gertagaitzaren ehunekoa, eta behera egiten dute borondatezko emigrazioaren eta emigratio behartuaren ehunekoak. Lanean ari direnek dute atzerri-emigrazioa gertagaitza zaiela uste dutenen ehuneko handiena, eta ikasleek dituzte borondatezko emigrazioaren eta emigratio behartuaren ehuneko handienak. Izan ere, lotura handia dute adinak eta okupazioak.

Bestalde, zenbat eta handiagoa izan gaztearen gizarte-maila, orduan eta handiagoa da borondatezko emigrazioaren pertzepzioa, eta orduan eta txikiagok dira emigratio gertagaitzaren ehunekoak.

27. taula

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ETA BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOAREN ARTEKO LOTURARI DAGOKION SAILKAPENA, ADIN TALDEEN, OKUPAZIO NAGUSIAREN ETA GIZARTE-MAILA SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Adin taldeak			Okupazio nagusia			Gizarte-maila subjektiboa		
		16-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Ikasten	Lanean	Langabezian	Behekoa edo ertain-behekoa	Maila ertainekoa	Goi-mailakoa edo ertain-goi-mailakoa
EMIGRAZIO GERTAGAITZA: ez dute uste gertatuko denik eta ez dute horretarako gogorik	48,2	37,1	47,1	55,4	36,1	61,7	52,3	53,7	47,3	36,7
BORONDATEZKO EMIGRAZIOA: gerta daitekeela uste dute eta horretarako gogoak dituzte	22,8	30,4	22,0	19,2	32,2	13,0	18,5	16,8	24,1	33,5
EMIGRAZIO ZAPUZTUA: ez dute uste gertatuko denik baina gustuko lukete	15,7	14,5	16,9	15,4	15,3	16,0	16,5	17,5	15,5	17,8
EMIGRAZIO BEHARTUA: gerta daitekeela uste dute nahiz eta horretarako gogorik ez izan	8,0	11,4	8,4	5,7	11,3	4,0	8,2	6,1	7,8	9,0
Ed/Ee	5,3	6,5	5,6	4,3	5,2	5,3	4,5	6,0	5,3	3,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100


Ikasketa-mailak ez dakar alde handirik, baina bai egindako ikasketa motak. Prestakuntza-zikloren bat (erdi- edo goi-mailakoa) egin dutenen artean, handiagoa da atzerri-emigrazioari gertagaitza deritzotenen ehunekoa, unibertsitate-graduren bat dutenen artean baino (% 53,7 eta % 44,4, hurrenez hurren). Bestalde, borondatezko emigrazioaren ehuneko handiagoa ageri dute unibertsitate-ikasketak dituztenek (% 24,7), baina baita emigrazio behartuarena ere (% 10,1). Unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenen antzekoak dira Batxilergoa amaitu dutenen ehunekoak, baina kontuan izan behar da ikasten jarraitzen dutela Batxilergoa amaitu duten gehienek, eta horietako asko unibertsitatean ikasten ari direla.

Ez da alde nabarmenik ikusten lan bila ari direnen eta lanik bilatzen ez dutenen artean. Izan ere, atzerrian lan egiteko probabilitate berdina ikusten dute eta horretarako gogo berdina hautematen dute bi taldeek.

Aldez aurretik atzerriko lan-eskarmentua izateak asko baldintzatzen du atzerriko lan-emigrazioaren gaineko iritzia. Borondatezko emigrazioaren eta emigrazio zapuztuaren ehuneko handiagoak ageri dituzte atzerrian lan egin dutenek, gainerako taldeetakoek baino, atzerrian lan egin gabeek baino gogo handiagoa baitute atzerrian lan egiteko.

64. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ETA BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOAREN ARTEKO LOTURARI DAGOKION SAILKAPENA, AURRETIAZ ATZERRIAN IZANDAKO LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)




Atzerrira emigratzeko probabilitateak eta horretarako gogoak behera egin dute 2013. urtearekiko. Gazteen % 40k uste zuen, 2013. urtean, nahiko edo oso gertagarria zuela etorkizunean atzerrira joatea lan egitera; eta ehuneko hori % 31,2ra jaitsi da 2015ean. Emigratzeko gogoari begiratuta, gazteen % 45,6k adierazten zuen, 2013. urtean, gogoko lukeela atzerrian lan egitea, baina 2015. urtean behera egin du ehuneko horrek (% 40,3).

Atzerrira emigratzeko gogoak eta emigratzeko probabilitateak behera egin dutenez, behera egin du borondatezko emigratioaren ehunekoak. Aitzitik, handitu egin da emigratioa gertagaitza ikusten dutenen ehunekoa, eta zertxobait handitu da emigratioaren aukera zapuztuta ikusi dutenen kopurua. Emigratio behartuak, berriz, ehuneko berean dirau.

65. irudia

16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN SAILKAPENAREN BILAKAERA, BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOARI ERREPARATUTA (%)



9.4. ENPLEGUAREKIKO JARRERAK 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN


Autoenpleguaren, lan-aurreikuspenen aldaketaren, mugikortasun geografikoaren eta atzerri-emigrazioaren alderdiak aztertu ditugu 30 urtetik beherako gazteekin; orain, 30 eta 34 urte bitarteko gazteek jarrera hori bera ote duten behatuko dugu.

9.4.1. Autoenplegurako ekimena eta jarrera

30 eta 34 urte bitarteko pertsona gehienek ez dute inoiz ere pentsatu beren kontura lan egiteko aukera baliatzerik (% 59,6). Hala ere, 30 urte bete gabe daudenak baino gehiago dira, adin-tarte horretan, autoenpleguaren aukera aztertu dutenak, gerora aukera hori baliatu ote duten ala ez aintzat hartu gabe. 30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden pertsonen % 8,3k adierazten du langile autonomoa, profesionala liberala edo enpresaburua dela, % 4,7k dio garai batean erregimen horietakoren batean lan egin zuela, baina orain ezetz; % 19,5ek azaldu du ideia aztertu zuela, baina ez zuela horretarako urratsik eman, eta, gaur egun, % 7,7 ari da serio aztertzen aukera hori (azken ehuneko hori zertxobait handiagoa da 30 urtetik beherakoen artean, adin horretatik gorakoen artean baino).

66. irudia


AUTOENPLEGUAN IZANDAKO ESKARMENTUA ETA AUTOENPLEGURAKO JARRERA.
16 ETA 29 URTE BITARTEKOEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Autoenplegurako ekimenaren bilakaera aztertzen baldin badugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean, ikusten dugu behera egin duela zertxobait, 2015. urtean, gaur egun aukera hori aztertzen ari direnen ehunekoa, eta handitu egin dela aukera hori aztertu eta baztertu dutenen ehunekoa.

67. irudia

AUTOENPLEGUAN IZANDAKO ESKARMENTUAREN ETA AUTOENPLEGURAKO JARRERAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEAN (%)



Beren adineko emakumeek baino autoenplegurako joera handiagoa dute 30 eta 34 urte bitarteko gizonak. Autonomoak edo enpresaburuak direnen edo izan direnen ehunekoak handiagoak dira gizonen artean, emakumeen artean baino, eta gehiago dira, era berean, aukera hori aztertu dutenen eta aztertzen ari diren gizonezkoen ehunekoak, emakumeena baino.

Okupazio edo jarduera nagusiari begiratuta, norberaren kontura lan egiten du adin horretako gazte okupatuak % 11,6k. Langabezian dauden artean, handiagoa da garai batean autonomo edo enpresaburu izan baina orain ez direnen ehunekoak, bai eta aukera hori aztertu baina gauzatu ez zutenena eta gaur egun aukera hori serio aztertzen ari direnena ere. Adin-talde horretako pertsona gutxi dira gaur ikasle, eta, ondorioz, ez dira aintzat hartu pertsona horien erantzunak, ez baitira adierazgarriak estatistikaren ikuspegitik.

28. taula

30 ETA 34 URTE BITARTEKO PERTSONEK AUTOENPLEGUAN IZANDAKO ESKARMENTUAREN ETA AUTOENPLEGURAKO JARRERA, SEXUAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Okupazio nagusia*	
		Emakumeak	Gizonak	Lanean	Langabezian
Gaur egun autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak dira	8,3	7,7	8,8	11,6	0,0
Garai batean autonomoak, profesional liberalak edo enpresaburuak izan ziren baina gaur egun ez	4,7	2,8	6,6	3,7	8,3
Aukera hori serio aztertzen ari dira	7,7	6,0	9,2	5,2	10,5
Aukera hori aztertu dute baina aurrera ez egitea erabaki dute	19,5	18,9	20,1	17,3	25,2
Ez dute inoiz aukera hori aintzat hartu	59,6	64,1	55,3	61,7	56,0
Ed/Ee	0,2	0,5	0,0	0,4	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100

* Ikasleak ez dira aintzat hartu, adin talde horretan oso ikasle gutxi baitaude

Amaitutako ikasketen mailak eta egindako ikasketen izaerak (unibertsitatekoak edo lanbide-izaerakoak) ez dakar alderik autonplegurako ekimenean, baina bai enpleguaren bilaketak. Lan bila ari direnen artean, batezbestekoa baino handiagoa da autoenpleguaren aukera serio aztertzen ari direnen ehunekoa eta, aukera hori aztertu bai, baina baztertu dutenen ehunekoa (% 12,4 ari da serio aztertzen aukera hori, eta % 32,1ek baztertu zuen, aukera hori aztertu ondoren).


9.4.2. Lanbidez aldatzeko edo lan-aurreikuspenak murrizteko prestasuna

30 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik zazpi onartuko lukete ofizioz edo lanbidez aldatzea lekarkieken enpleguen bat (% 69,1). Norberak ustez duena baino lanbide-kategoria apalagoko enplegu bat onartuko lukete adin horretako pertsonen erdiek (% 49,5ek). Eta erdiek baino zertxobait gutxiagok (% 45,9k) onartuko lukete duten kualifikazioari dagozkionak baino ordainsari apalagoak lituzkeen enpleguen bat.

Ofizioz edo lanbidez aldatzeko prest daudenen ehunekoa paretsuak dira 30 eta 34 urte bitarteko gazteengan eta 30 urtetik beherakoengan, baina adin horretatik gorakoek ez dute beherakoek bezainbesteko prestasunik beren ustez dagokiena baino kategoria apalago bat izateko, edo beren kualifikazioari dagokiona baino ordainsari murriztagoko enpleguen bat onartzeko.

68. irudia


BEREN LAN-AURREIKUSPENEN ZENBAIT JAITSIERA LEKARKETEN ENPLEGUAK ONARTZEKO PRESTASUNAREN KONPARAZIOA, 16 ETA 29 URTE BITARTEKOEN ETA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEAN (%)



30 eta 34 urte bitartekoen jarrerren bilakaerari erreparatuta, ikusten dugu lan-aurreikuspenak apaltzeko prestasun txikiagoa zutela 2011. urtean. Nabarmen handitu zen, 2013. urtean, lanbidez aldatzeko jarrera eta norberak egokitzat jotakoak baino kategoria eta diru-sarrera apalagoko enpleguak onartzeko prestasuna, baina gogoratu behar da 2011koa baino askoz ere handiagoa zela langabezia-tasa 2013an, eta horrek eragin handia izan dezakeela gazteek onartuko lituzkeen enplegu baldintzen inguruko galderen erantzunetan. Langabezia-tasak behera egin du 2015ean, eta agian horren ondorioz, 2013an baino prestasun txikiagoa adierazi dute orain gazteek beren lan-aurreikuspenei uko egiteko. Hala ere, uko egiteko edo murrizketak onartzeko prestasuna 2011n baino handiagoa da oraindik.

69. irudia

BEREN LAN-AURREIKUSPENEN ZENBAIT JAITSIERA LEKARKETEN ENPLEGUAK ONARTZEKO PRESTASUNAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN ARTEAN (%)



Eta zer gaztek dute beren aurreikuspenak apaltzeko prestasunik handiena?

Emakumeak, eta, batik bat, lanik gabe daudenak dira prestasun handiena dutenak, bai ofizioz aldatzeko, bai beren ustez dagozkienak baino lanbide-kategoria apalagoak betetzeko, bai beren kualifikazioari egoki irizten dizkietenak baino ordainsari apalagoak irabazteko.

29. taula

BEREN LAN-AURREIKUSPENEN ZENBAIT JAITSIERA LEKARKETEN ENPLEGUEN ONARPENA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)*

(%)	GUZTIRA	Sexua		Okupazio nagusia**	
		Emakumeak	Gizonak	Lanean	Langabezia
Ofizioz edo lanbidez aldatzeko prest daude	69,1	72,0	66,3	61,8	91,1
Norberak duen kualifikazio-mailari dagokiona baino lanbide-kategoria apalagoa onartzeko prest daude	49,5	54,2	45,1	38,1	81,9
Norberak duen kualifikazioari teorian egokiak zaizkionak baino diru-sarrera txikiagoak onartzeko prest daude	45,9	48,6	43,4	36,8	73,8

* Banan-banan aurkeztutako galderei dagozkien baiezko erantzunen ehunekoak dira.

** Ikasleak ez dira aintzat hartu, adin talde horretan oso ikasle gutxi baitaude.

30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, lan-aurreikuspenak apaltzeko prestasun handiagoa dute lan bila dabiltzanek (lanik gabe daudelako edo lanez aldatu nahi dutelako), adin-bitarte horretako gainerako gazteek baino: lanbidez edo ofizioz aldatzea lekarkeen enplegu bat onartuko luke % 90,4k, lan-kategoria apaltzea lekarkeen lan bat onartuko luke % 74,5ek, eta bere kualifikazioari egoki irizitakoa baino soldata apalagoa duen lanen bat onartuko luke % 67,5ek.

9.4.3. Mugikortasun geografikorako prestasuna

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen herenak (% 34,6) daude atzerrira emigratzeko prest, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen badiete. Beste % 7,6 ez litzateke atzerrira joango, baina bai Espainiako beste autonomia-erkidegoren batera; beraz, hamar gaztetik lau daude EAetik kanpora joateko prest lan interesgarri baten truke.

Beste muturrean, ez luke inolaz ere bizilekuz aldatuko % 27,8k, ezta gertuko herriren batera ere.

Emigratzeko prestasuna apalagoa da adin-tarte horretan dauden pertsonen artean, 30 urtetik beherakoen artean baino. Izan ere, zenbat eta handiagoa izan adina, orduan eta txikiagoa da atzerrira joateko prestasuna, eta, alderantziz, bizilekuz aldatuko ez luketenen ehuneko handitu egiten da, adinak gora egin ahala.

30. taula


LAN INTERESGARRI BAT ESKAINIZ GERO, BIZILEKUZ ALDATZEKO PRESTASUNA
AGERI DUTEN 16 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEAK, ADIN TALDEEN ARABERA (%)

(%)	16-24 urte	25-29 urte	30-34 urte
Munduko edozein lekutara	40,8	38,9	28,3
Europar Batasuneko edozein lekutara	12,5	8,0	6,3
Espainiako estatuaren barruan izanez gero	8,2	8,9	7,6
Euskal Herriaren barruan izanez gero	10,0	9,5	13,7
Inguruko udalerri batera bada	6,2	6,3	7,7
Ez daude ziur, lekuaren arabera	9,6	9,4	7,6
Ez, inola ere ez	9,4	18,3	27,8
Ed/Ee	3,5	0,6	1,0
GUZTIRA	100	100	100

Atzerrira (Europara eta munduko beste edozein lekutara) emigratzeko prestasunak behera egin zuen zertxobait 2011tik 2013ra, baina 2011ko datuak (% 34,6) berreskuratu dira 2015ean.

70. irudia

LAN INTERESGARRI BAT ESKAINIZ GERO, BIZILEKUZ ALDATZEKO PRESTASUNAREN BILAKAERA 30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN (%)



Munduko edozein lekutara eta Europar Batasuneko herrialderen batera mugituko liratekeen ehunekoak batuz gero, ikusten da honako hauek direla atzerrira emigratzeko prestasun handiena duten kolektiboak: gizonak (gizonen % 41,5 eta emakumeen % 27,4), lanik gabe daudenak (lanik gabe daudenen % 38,3 eta lanean ari direnen % 30,5), lan bila ari direnak (% 43,5, lan bila ez dabiltzaneren artean % 29,5 izanik) eta ingelesez ondo hitz egiten dutela esaten dutenak (ingelesez dakitenen % 46,5 eta ingelesez ez dakitenen % 29,1). Ikasketen mailak ez dakar alde adierazgaririk.

Baina aurretiaz atzerrian lan-eskarmenturen bat izatea da norberaren bizilekua atzerriko lekuren batera eramateko prestasunean eragin handiena duen aldagaia. Izan ere, noizbait atzerrian lanen bat, edozein mota eta iraupenekoa (horien artean sartzan dira ikasketa-praktikak eta ikerketa-lanak) egin dutenen % 58,2 joango litzateke atzerrira bizitzera, baldin eta lan interesgarriren bat eskaintzen badiote. Munduko edozein lekutara joango litzatekeela adierazten du % 54,4k.

Edonola ere, hautemandako probabilitatea aztertzen baldin badugu, ikusten da 30 eta 34 urte bitartekoen % 15,0k soilik uste duela nahiko edo oso gertagarria zaiela etorkizunean atzerrian lan egitea.

Ehuneko hori nabarmen apalagoa da 30 urte beterik gabe dutenena baino (% 31,2). Eta behera egin du 30 eta 34 urte bitarteko gazteek 2013. urtean zuten iritziarekiko, % 20,0 baitziren, urte horretan, atzerrian lan egitea gertagarri zeritzotenak.

30 eta 34 urte bitarteko pertsonen multzo horretan, atzerrian lan-eskarmenturen bat izan dutenak dira Espainiatik kanpora lan egitea oso gertagarri zaiela uste dutenen ehuneko handiena ageri dutenak (% 37,4). Ingelesa ondo dakiten gazteek eta lan bila dabiltzanek batezbestekotik gora irizten dute gertagarri zaiela atzerrian lan egitea (% 22,6 eta % 24,0, hurrenez hurren). Azkenik, lanik gabe dauden gazteek gertagarriago ikusten dute, lanean ari

direnek baino (% 16,0 eta % 11,3, hurrenez hurren). Ez da alderik antzematen adin horretako gizonen eta emakumeen artean.

Atzerriara lan egitera joateko gogoari begiratuta, 30 eta 34 urte bitartekoen laurdenek (% 24,7k) adierazten dute nahiko edo oso gogoko lukezela atzerriara lan egitea. Adin horretan, gutxiago dira atzerriara lan egin nahi dutenak, 30 urtetik beherakoen artean baino (% 40,3).


30 eta 34 urte bitartekoen artean, ez da askorik aldatu, 2013tik 2015era, atzerriara lan egin nahi dutenen ehunekoa: % 24,2koa zen 2013an eta % 24,7koa izan da 2015ean.

Atzerriara lan egiteko gogo handiagoa adierazten dute gizonek, emakumeek baino (% 27,9 eta % 21,4, hurrenez hurren). Alderdi horretan, ez da alde nabarmenik ageri lanean ari direnen eta lanik ez dutenen artean, ezta ikasketa-mailaren arabera ere, baina ikusten da alderik lan bila ari direnen eta horretan ari ez direnen artean. Emigratzeko gogo handiagoa ageri dute lan bila ari direnek (% 30,5).

Ingelesa dakitenen artean eta noizbait atzerriara lan egin dutenen artean da handiena Espainiatik kanpora lan egiteko gogo adierazten dutenen ehunekoa (% 37,9koa eta % 39,1koa, hurrenez hurren).

71. irudia

ETORKIZUNEAN ATZERRIARA LAN EGITEKO HAUTEMATEN DEN PROBABILITATEA ETA HORRETTARAKO GOGOIA. 30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)




Atzerriara lan egiteko hautematen den probabilitatearen eta horretarako gogoaren datuak uztartuz gero, atzerriko emigratioaren arabera sailkatuko ditugu gazteak. Honako hau da banaketa, atalez atal, 30 eta 34 urte bitartekoen artean: gehiengoak (% 70,6k) ez du gertagarria ikusten eta ez luke gogoko atzerriara lan egitea, beraz, gertagaitza litzateke gazte horiek emigratzea; % 12,2k ez du gertagarria ikusten atzerriara lan egitea, baina gogoko luke, hau da, emigratio zapuztuaren egoeran daude; atzerriara lan egitea gogoko lukeela eta aukera gertagarria dela uste du % 11,7k, hau da, borondatezko emigratioaren egoeran leudeke; eta, azkenik, % 3,3k uste du gertagarria zaiola atzerriara lan egitea, baina ez da hori egin nahi duena, hau da, emigratio behartuko egoeran legoke. Ez die horren gaineko galderei erantzun gainerako % 2,3ak.

30 urtetik beherakoen datuekin konparatzen baldin baditugu ehuneko horiek, ikusten dugu behera egin dutela emigrazio behartuaren eta borondatezko emigrazioaren ehunekoek, eta gora egin duela emigrazio gertagaitzak; izan ere, lehen ikusi dugun moduan, adinak gora egin ahala, behera egiten dute emigratzeko aukeren pertzepzioak eta emigratzeko gogoak.

72. irudia


BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOAREN ARABERAKO SAILKAPENA.
30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA (%)



Behera egin du, 2013tik 2015era, emigrazio behartuko egoeran izango direla pentsatzen duten 30 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoak, % 6tik % 3,3ra.

73. irudia

30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEK BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOAREKIKO
AGERI DUTEN SAILKAPENAREN BILAKAERA (%)



Sexuak, okupazioak eta ikasketa-mailak ez dakarte alde handirik ehunekoetan, baina egia da, gizonen aldean, 30 eta 34 urte bitarteko emakumeek gertagaitzago irizten diotela adin horretan emigratzeari.

Honako aldagai hauetan ikusten dira kolektiboen arteko alde handienak: enplegu-bilaketan, ingelesaren jakintzan eta aurretiaz atzerrian izandako lan-eskarmentuan. Batezbestetik gorako ehunekoak ageri dituzte lan bila ari direnek eta noizbait atzerrian lan-egintzen dutenen % 29,6), baina baita emigrazio behartuan ere (lan bila dabiltzanen % 6,0 eta atzerriko lan-eskarmentua dutenen % 8,1). Ingelesa ondo hitz egiten dutenen artean, % 19,0koa da borondatezko emigrazioaren ehuneko eta % 15,9koa zapuztuarena, eta ez da alde handirik ikusten emigrazio behartuaren ehunekoan. Hiru talde horietan, beren adinekoen batezbestekotik beherakoa da emigratzea gertagaitza irizten dutenen ehunekoak.

31. taula

30 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN SAILKAPENA BALIZKO ATZERRI-EMIGRAZIOAREKIKO,
ENPLEGU-BILAKETAREN, INGELES-MAILAREN ETA ATZERRIAN AURRETIAZ
IZANDAKO LAN-ESKARMENTUAREN ARABERA (%)

(%)	GUZTIRA	Enpleguaren bila		Ahozko maila ingelesez		Aurretiaz atzerrian izandako lan-eskarmentua	
		Bai	Ez	Oso ona + Nahikoa ona	Apala + Deseuza *	Bai	Ez
EMIGRAZIO GERTAGAITZA: ez dute uste gertatuko denik eta ez dute horretarako gogorik	70,6	62,3	75,4	57,7	76,5	51,6	74,6
BORONDATEZKO EMIGRAZIOA: gerta daitekeela uste dute eta horretarako gogoak dituzte	11,7	18,0	7,9	19,0	8,2	29,6	7,9
EMIGRAZIO ZAPUZTUA: ez dute uste gertatuko denik baina gustuko lukete	12,2	12,2	12,1	15,9	10,4	9,5	12,7
EMIGRAZIO BEHARTUA: gerta daitekeela uste dute nahiz eta horretarako gogorik ez izan	3,3	6,0	1,7	3,6	3,2	8,1	2,3
Ed/Ee	2,3	1,5	2,8	3,8	1,6	1,3	2,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

* Apala + Deseuza = Pixka bat dakite + Hitz batzuk baino ez + Ez dakite ezer ez.

Hitz batean:

Norberaren kontura lan egiteko prestasuna ageri du 30 urtetik beherako hamar gaztetik batek. Pertsona horietako batzuk autonomoak edo enpresaburuak dira, eta beste batzuk serio aztertzen ari dira aukera hori. Gazteen gehiengoak, ordea, ez du aukera hori aztertzen edo, aztertu ondoren, baztertu egin du.

Gazteen erdiak baino gehiago prest daude lanbidez edo ofizioz aldatzeko eta beren kualifikazioari egoki iriztitakoak baino kategoriatan eta ordainsari apalagoko lanak onartzeko. Lanik gabe dauden gazteen eta lan bila ari direnen artean ikusten dira lan-aurreikuspenak apaltzeko prestasuna ageri dutenen ehuneko handienak.

Erdiak baino gehiago dira, era berean, EAetik irtengo liratekeenak lan interesgarriren bat suertatzen baldin bazaie, eta hamarretik lau daude prest munduko edozein bazterretara joateko.

Atzerrian lan egiteko probabilitatea eta horretarako gogoia uztartzen dituen sailkapen bat egin da, eta, sailkapen horren arabera, nabarmen gehiago dira atzerrira borondatez lan egitera joango direla pentsatzen dutenak, atzerrian lan egitera behartuta izango direla pentsatzen dutenak baino. Edonola ere, handiagoa da atzerrian lan egitea gertagaitza zaiela irizten dutenen ehunekoak.

Behera egin du, 2013. urtearekiko, beren lan-aurreikuspenak apaltzeko prest dauden gazteen ehunekoak, eta gora egin du, aldi berean, atzerrian lan egitea gertagaitza zaiela irizten dutenen ehunekoak.

30 urteko adinetik aurrera, gora egiten du norberaren kontura lan egitea pentsatu duten gazteen ehunekoak, eta behera egiten dute lanbide-kategoria edo ordainsariak apaltzeko prest daudenen ehunekoak. Horrez gainera, nabarmen egiten du behera atzerrian lan egiteko prestasunak. Hori horrela, 30 eta 34 urte bitartekoen artean gutxiago dira borondatez edo behartuta atzerrian lan egitera joango direla uste dutenak, 30 urtetik beherakoen artean baino.



10

Emaitza nagusiak

Azterlaneko emaitza adierazgarrienak azalduko ditugu orain.

30 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN BANAKETA, IKASTEN, LANEAN ETA LANIK GABE DAUDENEN ARTEAN

- **Ikastea da 25 urtetik beherako gazteen okupazio nagusia; adin horretatik aurrera, lanean aritzen dira gehienak**

20 urte bete aurretik, ikasten aritzen dira hamar gaztetik bederatzi. Ikasleak dira 20 eta 24 urte bitarteko gazteen erdiak. 25 eta 29 urte bitartean, lanean aritzen dira erdiak baino gehiago.

- **Hobera egin dute enplegu-datuek 2013tik 2015era**

Bi urte horietan, gora egin du, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, lanean ari direnen ehunekoak (% 34,8 da 2015eko datua), eta behera egin du langabezian dauden ehunekoak (% 15,4); hala, eten egin da okupazioak krisiaren ondotik ageri zuen beherazko joera.

- **Behera egin du langabezian dauden gazteen ehunekoak, baina Europar Batasunaren batezbestekotik gorakoa da oraindik**

Langabezian dago 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 15,4; hau da, Europar Batasuneko 28 herrialdeen batezbestekotik gora (% 9,1) gabilta oraindik, baina Espainia osokoaren batezbestekotik behera (% 19,5).

Adinean gora egin eta ikasketak amaitu ahala, handitu egiten da langabezian dauden gazteen ehunekoa: % 23,3koa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

LAN-ESKARMENTUA

- **30 urtetik beherako hiru gaztetik bik dute lan-eskarmentua**

Gaur egun zer okupazio nagusi duten alde batera utzita, gazte gehienek (% 67,9k) dute lan-eskarmentua. Adinean gora egin ahala, gora egiten du lan-eskarmentua duten gazteen ehunekoak.

Gaur egun lanik izan ez baina lan-eskarmentua duten gazte gehienek esaten dute ez zutela borondatez utzi lan hori, ez zela beraien erabaki lana uztea.

- **Ikasten ari zirela lortu zuten lehen enplegua lan-eskarmentua duten gehienek (% 68,9k)**

Batez beste, 18-19 urterekin eskuratu dute lehen lana, bai gizonek, bai emakumeek. Batezbesteko horrek ez du aldaketarik izan azken urteetan.

- **Eta 30 urtetik beherako hamar pertsonatik batek (% 8,4k) esaten du atzerrian lan egin duela noizbait**

EAEn edo Espainiako beste lurralderen batean jaio direnei begiratuta, zerbait txikiagoa da ehunekoak: % 6,8.

Noizbait atzerrian lan egin dutenen ehunekoak gora egiten du adinarekin eta amaitutako ikasketen mailarekin batera. Atzerrian lan egin eta gaur egun EAEn bizi direnen erdiak praktikak egitera edo ikertzera joan ziren atzerria.

LANEAN ARI DIREN GAZTEEN LAN-BALDINTZAK

- **Lan bat baino gehiago ditu hamar gazte okupatuetatik batek**

Hala ere, enplegu bakarra dute gehienek (% 91,1ek). Lana eta ikasketak uztartzen dituzten gazteek dute, gazte guztien artean, lan bat baino gehiago dituztenen ehuneko handiena.

- **Aldi baterako enpleguaren ehunekoak nabarmen gaitzen du Europar Batasuneko batezbestekoa**

30 urtetik beherako gazteen artean, berdintsuak dira aldi baterako kontratuak eta kontratu finkoak dituztenen ehunekoak (kontratu finkoa dutenen artean sartzen dira kontratu mugagabea edo aldizkako finkoa dutenak eta kooperatibistak). Batez beste, aldi baterako kontratua duten gazteen ehunekoak nabarmen handiagoa da EAEn (% 44,2), Europar Batasunean baino (% 32,6 da EBko 28 herrialdeen batezbesteko ehunekoak).

Aldi baterako kontratuen ehunekoak handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino (% 51 eta % 38,2, hurrenez hurren).

- **Gazte gutxi lan egiten du norberaren konturako erregimenean**

30 urtetik beherako gazte okupatuak % 6,1ek adierazten du norberaren konturako erregimenean lan egiten duela (ehunekoak antzekoak da Europar Batasunean), baina ehuneko txikiago batek, % 4,1ek, adierazten du bere enpresa propioa duela.

Norberaren enpresan norberaren kontura lan egiten dutenen ehunekoak behera egin du azken bi urteetan (% 8,3tik % 4,1era).

Gizonek eta Gipuzkoan bizi direnek dituzte autoenplegu-ehuneko handienak.

- **Besteren kontura eta sektore pribatuan lan egiten dute gehienek**

Enpresa pribaturen batean lan egiten du besteren kontura lan egiten dutenen % 80,6k.

Gizonek baino presentzia handiagoa dute emakumeek sektore publikoan eta etxeko zerbitzuen sektorean.

- **Lanaldi partzialen ehunekoak igoera handia izan du emakumeengan**

Emakume okupatuen artean, lanaldi osoan lan egiten dutenak bezainbeste dira, ia, lanaldi partzialean lan egiten dutenak (% 50,9k lan egiten du lanaldi osoan eta % 48,9k lanaldi partzialean).

Lanaldi partzialean lan egiten duten emakume okupatuen ehunekoak hamar puntu egin du gora azken bi urteetan, eta ia hogeita puntu krisia abiatu zenetik.

Gizonen artean, gizon gazte okupatuen laurdenean (% 22,1ek) lan egiten dute lanaldi partzialean; hala ere, krisiaren aurretik baino nabarmen handiagoa da ehuneko hori.

Europar Batasuneko batezbestekoetatik gorakoak dira lanaldi partzialeko ehunekoak EAEn, bai emakumeenak, bai gizonenak. Bi sexuak gazte okupatuen guztizkoari begiratuta, lanaldi partzialen ehunekoa % 34,6koa da EAEn, eta % 23,2koa EBn (28 herrialdeetako batezbestekoa).

- **Lanaldi partzialean lan egiten duten gehienek ez dute hala nahi dutelako lan egiten lanaldi horretan**

Lanaldi partzialean lan egiten duten gazte okupatuen % 17,2k soilik adierazten du borondatez edo hala komeni zaiolako duela lanaldi mota hori. Gehiengoak (% 62,6k) adierazten du ez duela lanaldi osoko lanik aurkitu, eta hori duela lanaldi partzialean lan egiteko arrazoi.

Lanaldi partzialean lanaldi osoko lanik aurkitu ez dutelako lan egiten duten gazteen ehuneko hori (% 62,6k) Europar Batasuneko batezbestekoa (% 34,5) baino nabarmen handiagoa da.

- **30 urtetik beherako gazte okupatuen erdiek soilik adierazten dute egindako ikasketekin lotutako lanen bat egiten dutela**

Gazte okupatuen % 52,7k adierazten du bere lanak lotura nahiko edo oso handia duela egin dituen ikasketekin. Hala ere, ikasketekiko lotura urri edo deusezeko lanean bat egiten dutela adierazten dute ia erdiek (% 46,7k).

- **30 urtetik beherako gazte okupatuek 1000 euro inguru irabazten dituzte hilean, batez beste**

Lanaldi osoan lan egiten dutenen batez besteko soldata 1195 €-koa da hilean, eta lanaldi partzialean lan egiten dutenena, berriz, 605 €-koa hilean.

Batez beste, gizonen baino gutxiago irabazten dute emakumeek (867 € emakumeek eta 1125 € gizonen). Lanaldi osoan lan egiten dutenei soilik erreparatuta (horrela jotatuta, baztertu egingo dugu lanaldi partzialeko lanak emakumeengan duen eragina), ikusten da bere horretan dirauela gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-aldeak.

Soldaten bilakaerari erreparatuta, lanaldi partzialen ehunekoak gora egin duenez, behera egin du, aurreko urteekiko, emakumeen batez besteko soldatak.

Oro har, 1000 € baino gutxiago irabazten dituzte hilean hamar gazte okupatutik lauk; eta emakume gazteen erdiak baino gehiago daude egoera horretan (emakume okupatuen % 55,9 eta gizonen % 31,0).

- **30 urtetik beherako gazte okupatuen herenek hautematen dute beren egungo lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua**

Gazte okupatuen laurdenean (% 23,5ek) uste dute lana gal dezaketela urtebetean. Beren lan-baldintzak okertzeko arriskua dutela uste dutenen taldea (lanean ari diren gazte guztien % 8,7) gehitzen baldin badiogu lana galtzeko

arriskua ikusten dutenen taldeari, ondorioztatzen dugu gazte okupatu guztien % 32,2k duela lana galtzeko edo lan hori prekario bihurtzeko arriskua.

Pertzepzio hori dutenen ehunekoa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino; nabarmena da aldi baterako kontratua dutenen artean eta, batik bat, kontraturik gabe lan egiten dutenen artean.

- **Lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku horrek behera egin du**

Lana galdu edo lan-baldintzak okertzeko pertzepzioak hamar puntu egin du behera azken bi urteetan. Gazte okupatuena % 42,9k zuen lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko pertzepzioa 2013an, eta % 32,2 izan dira 2015ean.

- **Lanez aldatu nahi dute gazte okupatuena herenek baino gehiagok**

Ahal izango balu, beste lan bat hartuko luke gazte okupatuena % 36,5ek.

Gainerakoek baino gogo handiagoa dute lanez aldatzeko aldi baterako kontratuak dituztenek eta kontraturik ez dutenek, lanaldi partzialean lan egiten dutenek, beren ikasketekin loturarik ez duen lanen bat egiten dutenek eta beren lana gaizki ordaindua dagoela uste dutenek, hau da, lan-baldintza okerrenak dituztenek.

Lanez aldatu nahi dutenen artean, gehiengoak da (% 67,6) lan-baldintza hobekien nahi dituela esaten dutenen ehunekoa, eta horien atzetik datoz beren kualifikazioarekin bat datorren lan bat nahi dutela esaten dutenak (% 19,2).

- **Beste lan baten bila ari dira hamar gazte okupatuetatik hiru**

30 urtetik beherako gazte okupatuena % 29,4k egin du lana bilatzeko gestioaren bat inkestari erantzun aurreko hiru hiletan.

Aukera izanez gero, lanez aldatuko luketen gazteek (lehen esan bezala, aldi baterako kontratuekin edo kontraturik gabe lan egiten dute, lanaldi partzialean, beren ikasketekin lotura urria edo deuseza duten lanetan eta gaizki ordainduta) eta lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku handiena ikusten dutenek adierazten dute, gainerakoek baino ehuneko handiagoan, lan bila ari direla.

Beste lan baten bila ari diren gazte okupatuena ehunekoak gora egin du aurreko bi urteetako (gazte okupatuena % 22,2koa zen 2013an). Eta nabarmen handitu da, era berean, lana bilatzen ari eta hura sei hilabete baino lehen aurkitzea espero dutenen ehunekoa (2013an, lan bila ari zirenen % 22,9k uste zuen oso gertagarria zitzaiola lana sei hilabete baino lehen aurkitzea, eta ehuneko hori % 51,2koa izan da 2015ean).

LANIK GABE DAUDEN GAZTEEN EGOERA

- **Langabezian dauden gazteen artean, handitu egin da lanik gabe urtebetetik gora daramatenen ehunekoa**

Langabezian dauden gazteen % 43,1 dago urtebetetik gora lanik gabe. Ehuneko hori handiagoa da 2013. urtekoa baino, % 38,6koa izan baitzen urte horretan.

Langabezian urtebetetik gora daramatenen artean, handiagoa da emakumeen ehunekoa gizonen ehuneko baino, eta gainerakoena baino handiagoa da ehuneko, era berean, goi-mailako ikasketarik ez dutenen artean.

- **Langabezia-prestazioa jasotzen ari da langabezian dauden bost pertsonatik bat**

Noizbait lan egindakoa da gazte langabeen gehiengoa (% 80,3). Noizbait lan egin dutenen gehiengoak adierazten du ez diola borondatez utzi lan egiteari (horren arrazoi izan dira: kontratua amaitzea, enpresak ixtea, eta abar).

Lanik gabe daudenen % 21,8k soilik kobratzen du langabezia-prestazioa.

Familiaren edo bikotekidearen diru-sarrerak dira langabezia-prestazioa jasotzen ez duten gehienen (% 65,5) diru-iturri nagusiak.

- **Lan bila dabilta lanik gabe dauden gehienak**

Lanik gabe dauden gazteen % 82,8 ari da lan-bilaketa aktiboa egiten. Batez beste, 10 hilabete daramatzate lan bila, eta erdiek uste dute epe motzean aurki dezaketela lana.

- **Handitu egin da lana aurkitzeko baikortasuna lanik gabe dauden gazteen artean**

Lana epe motzean (sei hilabete baino lehen) aurkitzeko itxaropena duten lan bila dabiltzan gazte langabeen ehunekoak gora egin du, % 30,5koa baitzen 2013an eta % 53,4koa izan baita 2015ean.

- **Lanik gabe dauden hamar gaztetik bat soilik ari da autoenpleguaren aukera aztertzen**

Lanik gabe dauden 30 urtetik beherako gazteen % 8,9 soilik ari da serio aztertzen bere enplegu propioa sortzeko aukera.

Edonola ere, gazte gutxi daude autonomoen erregimenean edo enpresaburu moduan lan egiteko prest. Gehiengoak (30 urtetik beherako gazte guztien % 70,9k) ez du inoiz ere aintzat hartu aukera hori, eta, aztertu ondoren, % 16,1ek baztertu du aukera hori.

GAZTEEN LAN-AURREIKUSPENAK

- **Lan-aurreikuspenak aldatzeko edo murrizteko prest daude gazteen erdiak baino gehiago**

EAEEn 30 urtetik behera duten gazteen % 69,3 prest dago ofizios edo lanbidez aldatzeko, baldin eta horrek enpleguren bat badakarkio. Norberak ustez duen baino lan-kategoria apalagoren batean lan egitea onartuko luke % 56,2k, eta norberaren kualifikazioari egoki irizten dizkionak baino diru-sarrera apalagoak onartuko lituzke % 51,7k.

Datu horiek 2013. urtean bildutakoak baino txikiagoak dira, hau da, gazteek 2013an baino prestasun gutxiago dute beren lan-aurreikuspenak murrizteko lan baten truke.

Lanik gabe dauden gazteek eta, batik bat, langabezian urtebetetik gora daramatenek dute beren aurreikuspenak murrizteko prestasun handiena.

- **Gazteen erdiak atzerrira joango lirateke, baldin eta lan interesgarriren bat suertatzen bazaie**

Gazteen % 50,6 dago atzerrira joateko prest, baldin eta lan egiteko eskaintza interesgarriren bat jasotzen badu.

Atzerrian lan-eskarmentua duten lau gaztetik hiru (% 75,8) berriro joango lirateke atzerrira lan egitera.

Atzerrira joateko prestasunaren gaineko datuak paretsuak dira 2015ean eta 2013an, baina 2008an (hau da, krisia abiatu aurretik) adierazitakoa baino 20 ehuneko puntu handiagoak dira bata zein bestea.

- **Gazteen % 8k soilik uste du gogoz kontra atzerrira joan beharko duela etorkizunean lan egitera**

Atzerrira joateko gogoa eta horretarako probabilitatea uztartuz gero, gutxiengo dira (% 8,0) lan egiteko atzerrira joan beharko dutela, nahi ez badute ere, pentsatzen dutenak.

Handiagoa da, ordea, atzerrian lan egiteko gogoa izan baina egoera hori gertagaitza zaiela deritzotenen ehuneko (% 15,7).

Emigratzeko probabilitaterik ikusi ez, ezta emigratzeko gogorik ere ez dutenek biltzen dute ehuneko handiena (% 48,2).

Bestalde, gazteen % 22,8k uste du borondatez joango dela atzerrira lan egitera, hau da, atzerrian lan egin nahi dute eta egoera hori oso edo nahikoa gertagarria dela uste dute. Adinak behera egin ahala, handitu egiten da atzerrira joan nahi dutenen ehuneko.

Handitu egin da, 2013tik 2015era, emigratzea gertagaitza deritzonen ehuneko.

30 ETA 34 URTE BITARTEKOEN LAN-EGOERA

- **Lan-jardueraren ehunekoak nabarmen aldatzen dira 30 eta 34 urteko adin-bitartean**

30 urtetik gora, lan egiten ari da gehiengo (% 69,0), txikia da ikasleen ehuneko (% 6,4), eta langabezian dago bost pertsonatik bat (% 21,0). Gaur egun zer egoera duten aintzat hartu gabe, noizbait lan egindakoak dira gazte gehienak (% 97,7k).

EAEn edo Espainiako beste lurralderen batean jaio direnen (hau da, atzerritarrak ez direnen) % 12,6k du lan-eskarmetua atzerrian, eta ehuneko horrek ia bikoiztu egiten du 16 eta 29 urte bitartekoek erakutsitakoa (% 6,8).

- **Enplegua dutenen ehunekoak gora egiten du ikasketa-mailarekin batera**

30 eta 34 urte bitarteko adin taldean, ikasketak amaitu ditu gehiengoak, eta ikusten da goi-mailako ikasketak amaitu dituztenek osatzen dutela, proportzioan, enplegua dutenen talderik handiena (% 78,7).

Goi-mailako ikasketak dituztenen artean, okupazio-ehuneko handiagoa da goi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitua dutenen artean (% 83,2), unibertsitate-ikasketaren bat amaitua dutenen artean baino (% 76,6).

- **Lanean ari diren gazteen lan-baldintzek hobera egiten dute 30 urtetik aurrera**

30 eta 34 urte bitarteko adina izan eta lanean ari direnen artean, kontratu mugagabeen ehuneko handiagoa da (% 61,0), 30 urtetik beherakoen artean baino. Era berean, handiagoa da, adin-tarte horretan, lanaldi osoan lan egiten dutenen ehuneko (% 77,2), eta soldata handiagoak izaten dira (1242 euro hilean, batez beste). Era berean, 30 urtetik gora, behera egiten du lana galtzeko arriskuak (% 15,2), eta handitu egiten da lanarekiko poztasuna (% 70,1).

- **Hala ere, bada adinarekin hobera egiten ez duen lan-alderdirik**

30 eta 34 urte bitartean, ez du gora egiten beren ikasketekin lotutako lana egiten duten gazte okupatuen ehunekoak (% 55,7), ezta ondo ordainduta daudela pentsatzen dutenen ehunekoak ere (% 53,1).

Agerikoak izaten jarraitzen dute, adin-tarte horretan, gizonen eta emakumeen arteko aldeek: aldi baterako kontratua dutenen (edo kontraturik gabe lan egiten dutenen) ehunekoa handiagoa da emakumeen artean, lanaldi partzialeko lanen ehuneko handiagoa dute emakumeek, eta, batez beste, gizonek baino soldata txikiagoa jasotzen dute.

- **Lanik gabe dauden 30 eta 34 urte bitarteko gazteen egoera kezagarriagoa da 30 urtetik beherako langabeena baino**

30 urtetik gora, handitu egiten da lanik gabe dauden gazteen proportzioa (adin horretako gazte guztien % 21,0), ikasketak amaitu ondoren, lan falta dela-eta, langabeziara igarotzen baitira gazte asko. Baina adin-tarte horretan langabeen proportzioa handitu ez ezik, langabezian daramaten denbora ere handitzen da (adin horretan lanik gabe daudenen erdiek, % 49,5ek, urtebetetik gora daramate langabezian).

Eta, adin horretan, handitu egiten da gazteen ezkortasuna epe laburrean lana aurkitzeko aukeren gainean: lan bila ari direnen erdiek baino gutxiagok uste dute sei hilabete baino lehen aurki dezaketela (% 46,3). Hala eta guztiz ere, epe laburrean lana aurkitzeko aurreikuspenak nabarmen egin du gora 2013. urtetik (urte horretan % 28,5ek soilik uste zuen epe motzean aurkituko zuela lana).

- **Behera egiten du, 30 urtetik aurrera, lanbide-kategoriaz jaisteko prestasunak, norberaren prestakuntzari dagozkionak baino diru-sarrerara txikiagoak onartzeko prestasunak eta atzerrian lan egitekoak**

Horrez gainera, 2013. urtean baino txikiagoak dira, 30 eta 34 urte bitartekoen artean, lanbide-kategoria apalagoko lanen bat onartzeko prestasuna (% 49,5) eta norberaren kualifikazioari irizten zaizkionak baino soldata txikiagoko lanak onartzekoa (% 45,9), baina, hala ere, 2011. urtekoak baino handiagoak dira.

Edonola ere, lanik gabe dauden pertsona gehienek onartuko lukete lanez aldatzea.

Adin horretan daudenen herenak (% 34,6) atzerrira emigratzeko prest daude lan interesgarri baten truke, baina prestasun horixe bera ageri dute noizbait atzerrian lan egin dutenen erdiek baino gehiagok.

Gainera, lehendik ere gutxiengoa bazen ere, erdira murriztu da (% 6,0tik % 3,3ra), 2013tik 2015era, gogoz kontra atzerrira lanera joan beharko dutela pentsatzen dutenen ehunekoa.

Hitz batean:

Noizbait lan egindakoak dira 30 urtetik beherako gazte gehienak, baina herenek soilik dute lan egitea okupazio nagusi. Besteren kontura eta enpresa pribatuan lan egiten dute langile gazte horietatik gehienek. Aldi baterako kontratua dute erdiek, eta lanaldi partzalean lan egiten dute herenek. Europar Batasuneko batezbestekotik nabarmen gora dago Euskal Autonomia Erkidegoa, bai aldi baterako kontratuetan, bai lanaldi partzialeko enpleguetan, eta gizonezkoek baino ehuneko handiagoan bizi dituzte emakumeek bi egoera horiek. Batez besteko soldata 1000 euro ingurukoa da hilean.

Europar Batasuneko batezbestekotik gorakoak dira EAEko langabezia-datuak. Lanik gabe dauden gazte gehienek ez dute langabezia-prestaziorik jasotzen, eta lan-bilaketa aktiboa egiten dute, familiaren diru-sarreren kontura bizi diren bitartean.

30 eta 34 urtekoen adin-bitartean, gora egiten du gazte okupatuen ehunekoak, baina baita langabeziaren ehunekoak ere, gazte gutxi jarraitzen baitu ikasten adin-tarte horretan. Zenbat eta handiagoa izan ikasketamaila, orduan eta handiagoak dira enplegu-ehunekoak; eta, goi-mailako ikasketak amaitu dituzten artean, handiagoa da okupazio-datua goi-mailako prestakuntza-zikloren bat amaitu dutenen artean, unibertsitate-ikasketaren bat dutenen artean baino. 30 urtetik beherakoek baino hobeak dira adin horretako langileen lan-baldintzak: handiagoa da kontratu mugagabeen eta lanaldi osoen ehunekoa, soldatak hobeak dira eta lana galtzeko arrisku gutxiago dago. Baina 30 eta 34 urte bitarteko adinean dauden gazte langabeak 30 urtetik beherakoak baino ezkorragoak dira lana aurkitzeko aukeren gainean.

Gora egin dute enplegu-datuek 2013tik 2015era, eta behera egin dute, bitarte horretan, langabeziakoek. Hori horrela, behera egin du, langileen artean, lana galtzeko eta lan-baldintzak okertzeko arriskuaren pertzepzioak, eta handitu egin da, aldi berean, langabeek epe motzean lana aurkitzeko duten aurreikuspen edo itzaropena. Enpleguak hobera egingo duelako konfiantza handiago horrek bultzatuta, gazteak, 2015. urtean, lehen baino neurri txikiagoan ageri dira beren lan-aurreikuspenak apaltzeko prest, eta uste dute lehen baino gertagaitzagoa zaiela atzerrira emigratzea.

Gizonen eta emakumeen arteko egoera desberdinaren adierazle nagusiak dira emakumeen artean handiagoa dela aldi baterako kontratuen eta lanaldi partzialen ehunekoa, emakumeek soldata txikiagoak jasotzen dituztela eta beren enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku handiagoa hautematen dutela.

Bibliografia

EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakunde: *Soldata-arraila: eragileak eta adierazleak* [linean], Txosten bildumaren 29. zenbakia. Vitoria-Gasteiz, 2012. Helbide honetan: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/Brecha_salarial_eu.pdf [Kontsulta: 2016/10/27]

European Commission: *Flash Eurobarometer 408, European Youth* [linean]. European Union, 2015 [ISBN 978-92-79-45655-8]. Helbide honetan: <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/FLASH/surveyKy/2009> [Kontsulta: 2016/10/27]

Eurostat [linean]: Data: Database: Database by themes: Population and social conditions: Youth (datu estatistikoak eta definizioak). European Commission, 2016. Helbide honetan: <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2016/10/27]

Euskadiko gazteak [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2000 Lau urtean behingo seriea. Helbide honetan: http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/liburuak.html [Kontsulta: 2016/10/27]

Eustat, Euskal Estatistika Erakundea [linean]: Zuhaitz tematikoak: Gizartea: Lan-merkatua (datu estatistikoak eta definizioak). Vitoria-Gasteiz, 2016. Helbide honetan: http://eu.eustat.eus/estadisticas/opt_0/id_10/ti_Lan-Merkatua/subArbol.html [Kontsulta: 2016/10/27]

Gazteen Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de la Juventud: *Datu-base interaktiboa – Gazteen adierazleak 2013* [linean]. [Bilbao]: Gazteen Euskal Behatokia, 2015. Helbide honetan: <http://www.gazteukera.euskadi.eus/informazioa/datu-base-interaktiboa-gazteen-adierazleak-2013/r58-7651x/eu/> [Kontsulta: 2016/10/27]

Gazteen Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de la Juventud [linean]: Estatistikak (datu estatistikoak eta definizioak). [Bilbao]: Gazteen Euskal Behatokia, 2016. Helbide honetan: <http://www.gazteukera.euskadi.net/r58-7650x/eu/estadistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1> [Kontsulta: 2016/10/27]

Gazteen Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de la Juventud: *Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian* [linean]. [Bilbao]: Gazteen Euskal Behatokia, 2014. Helbide honetan: http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/txostena_emantzipazioa_15_e.pdf [Kontsulta: 2016/10/27]

Gazteen Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de la Juventud: *Gazteen enplegua EAEn* [linean]. [Bilbao]: Gazteen Euskal Behatokia, 2012. Helbide honetan: http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/index.shtm?_ga=1.65303595.429906876.1417601129 [Kontsulta: 2016/10/27]

International Labour Office: *Global Employment Trends for Youth 2015. Scaling up investments in decent jobs for youth* [linean]. Geneva, 2015. [ISBN 978-92-2-130109-7 (web pdf)]. Helbide honetan: http://www.ilo.org/global/research/global-reports/youth/2015/WCMS_412015/lang--es/index.htm [Kontsulta: 2016/10/27]

International Labour Office: *World Employment and Social Outlook 2016: Trends for Youth*. [linean]. Geneva, 2016. [ISBN 978-92-2-131277-2 (web pdf)]. Helbide honetan: http://www.ilo.org/global/research/global-reports/youth/2016/WCMS_513739/lang--es/index.htm [Kontsulta: 2016/10/27]

Taulen eta irudien aurkibidea

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	Okupazio nagusiaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko pertsonengan (%).....	20
2. taula.	Atzerrira lan egitera joateko arrazoiak. 30 urtetik beherakoen eta 30 eta 34 urte bitartekoen arteko aldeak (%)	28
3. taula.	Bueltatzeko arrazoiak, atzerrian lan egin ondoren. 30 urtetik beherakoen eta 30 eta 34 urte bitartekoen arteko aldeak (%).....	29
4. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen kontratu mota, egungo lanean duten antzintasunaren arabera (%).....	38
5. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen kontratu motak, sexuaren, adin taldeen, bizilekuaren eta jaiolekuaren arabera (%).....	39
6. taula.	Autonomoen erregimenean lan egin edo enpresaburu diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen egoera, sexuaren, adin taldearen, bizi diren lurralde historikoaren eta jaiolekuaren arabera (%)	41
7. taula.	Besteren kontura lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek zer erakunde motatan lan egiten duten. Bilakaera 2011-2015 (%).....	42
8. taula.	Besteren kontura lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek zer erakunde motatan lan egiten duten, sexuaren, adin taldearen, amaitutako ikasketa maila handienaren eta jaiolekuaren arabera (%).....	43
9. taula.	2015. urtean EAEn eta Europar Batasunean lanaldi partzialean lan egin duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen konparazioa, sexuaren arabera (%).....	45
10. taula.	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek lanaldi horretan lan egiteko dituzten arrazoiaren bilakaera (%).....	46
11. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen batez besteko soldata, sexuaren eta lanaldi motaren arabera (%).....	50

12. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak beren lanaren ordainaren gainean duten iritzia, hileko soldataren arabera (%)	52
13. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak beren egungo lanarekin duten poztasuna, kontratu eta lanaldi motaren arabera (%)	55
14. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak beren egungo lanarekin duten poztasuna, ikasketekiko loturaren gainean eta soldataren gainean egiten duten balorazioaren arabera (%)	55
15. taula.	Lanez aldatu nahi duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak ematen dituzten arrazoi nagusiak, ikasketekiko loturaren gainean eta soldataren gainean egiten duten balorazioaren arabera (%)	57
16. taula.	30 eta 34 urte bitarteko emakume eta gizon okupatuak kontratu moten bilakaera (%)	63
17. taula.	Zer erakunde motatan lan egiten duten besteren kontura lan egiten duten gazte okupatuak. 30 urtetik gorakoak eta behekoak arteko konparazioa (%)	64
18. taula.	30 eta 34 urte bitarteko pertsona okupatuak lanaldi partzialean lan egiteko adierazi dituzten arrazoiak, sexuaren arabera (%)	66
19. taula.	Euskaraz ondo hitz egiten duten gazteak eta ingelesez ondo hitz egiten duten gazteak. 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen eta adin-tarte horretako gazte guztien arteko konparazioa eta bilakaera (%)	88
20. taula.	Lan-eskarmentua (oraingoa edo aurrekoa) duten 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen ehunekoaren bilakaera (%)	89
21. taula.	16 eta 29 urte bitarteko ikasleek hilean eskura duten dirua, ikasketa-jardunaren nolakoari begiratuta (%)	91
22. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazte ikasleek hileroko eskura duten diruaren bilakaera (%)	91
23. taula.	Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta adin horretako gazte guztien arteko konparazioa, adin-taldeak, amaitutako ikasketak, okupazio nagusiaren, lan-eskarmentuaren eta subjektiboki kokatzen diren gizarte-mailaren arabera (%)	95
24. taula.	Autoenplegurako jarrera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)	101
25. taula.	Autoenplegurako jarreraren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)	102
26. taula.	Lan-aurreikuspenak aldatzeko edo murrizteko jarreraren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)	103
27. taula.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta balizko atzerri-emigrazioaren arteko loturari dagokion sailkapena, adin-taldeak, okupazio nagusiaren eta gizarte-maila subjektiboaren arabera (%)	110
28. taula.	30 eta 34 urte bitarteko pertsonen autoenpleguan izandako eskarmentuaren eta autoenplegurako jarrera, sexuaren eta okupazio nagusiaren arabera (%)	113

29. taula.	Beren lan-aurreikuspenen zenbait jaitziera lekarketen enpleguen onarpena 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, sexuaren eta okupazio nagusiaren arabera (%)	115
30. taula.	Lan interesgarri bat eskainiz gero, bizilekuz aldatzeko prestasuna ageri duten 16 eta 34 urte bitarteko gazteak, adin taldeen arabera (%)	116
31. taula.	30 eta 34 urte bitarteko gazteen sailkapena balizko atzerri-emigrazioarekiko, enplegu-bilaketaren, ingeles-mailaren eta atzerrian aurretiaz izandako lan-eskarmentuaren arabera (%)	120

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia.	Ikastea okupazio nagusi duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, urtez urteko adinaren arabera	15
2. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia, adin taldeka (%)	17
3. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusiaren bilakaera (%)	18
4. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia, jaiolekuaren arabera (%)	18
5. irudia.	Okupazio nagusian ageri diren aldeak 16-29 adin-bitartean eta 30-34 adin-bitartean (%)	19
6. irudia.	Lan-eskarmentua duten 16-29 urte bitarteko gazteak. Bilakaera 2004-2015 (%)	21
7. irudia.	EAEn 16 eta 34 urte bitarte dituzten gazteen lan-eskarmentua, adin taldeka (%)	23
8. irudia.	Atzerrian lan-eskarmentua duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, jatorriaren arabera (%)	25
9. irudia.	Atzerriko lan-eskarmentua EAEn edo Espainiako beste lekuren batean jaito eta 16 eta 29 urte bitartean dituzten gazteen artean, adin taldeen eta amaitutako ikasketen arabera (%)	26
10. irudia.	EAEn edo Espainiako beste lekuren baten jaito, 16 eta 29 urte bitartean izan eta atzerrian lan-eskarmentua duten gazteen banaketa, lan-egonaldiaren iraupenaren arabera (%)	27
11. irudia.	Lan-eskarmentua duten 16 eta 34 urte bitarteko gazteak, urtez urteko adinaren arabera (%)	31
12. irudia.	Lehen lana eskuratzeko unearen bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko adina eta lan-eskarmentua duten gazteen artean (%)	33
13. irudia.	Enplegu bat edo enplegu bat baino gehiago duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak (%)	35
14. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak lanean duten antzintasuna (%)	36
15. irudia.	Lan-antzintasunaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren artean (%)	37
16. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren kontratu motak (%)	38
17. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak dituzten kontratu moten bilakaera (%)	39

18. irudia.	2015. urtean aldi baterako kontratua zuten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen gaineko datuen konparazioa, EAEn eta Europar Batasunean (%)	40
19. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen lanaldi motaren bilakaera, sexuaren arabera (%)	44
20. irudia.	Lanaldi partzialean lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatu guztien artean, zenbatek duten lanaldi mota hori lanaldi osoko enplegurik topatu ez dutelako. EAE eta Europar Batasunaren arteko konparazioa 2015. urtean (%)	47
21. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek astean egiten dituzten lanorduak (%)	48
22. irudia.	Beren enpleguaren eta ikasketen arteko loturari buruzko iritziak 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean (%)	49
23. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen batez besteko soldataren bilakaera, sexuaren arabera (€)	51
24. irudia.	Lana galtzeko eta prekario bihurtzeko arriskua 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean, sexuaren, jatorriaren eta kontratu motaren arabera (%)	53
25. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek beren egungo lanarekin duten poztasuna (%)	54
26. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuek lana aldatu nahi izateko eman dituzten arrazoiaren bilakaera (%)	58
27. irudia.	Beste enplegu baten bila dabiltzan 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak, beren lan-baldintzen arabera (%)	59
28. irudia.	16 eta 29 urte bitartekoek eta 30 eta 34 urte bitartekoek beren egungo enpleguan duten antzinatearen arteko konparazioa (%)	60
29. irudia.	Enplegu-antzinatasunaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuengan (%)	61
30. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen kontratu moten eta 30 eta 34 urte bitartekoen kontratu moten arteko konparazioa (%)	62
31. irudia.	30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen kontratu moten bilakaera (%)	62
32. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko eta 30 eta 34 urte bitarteko autonomo eta enpresaburuen konparazioa eta bilakaera, beren enpresa propioa duten ala ez aintzat hartuta (%)	63
33. irudia.	16 eta 29 eta 30 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen lanaldi moten konparazioa (%)	65
34. irudia.	30 eta 34 urte bitarteko okupatuek beren enpleguaren eta ikasketen arteko loturari buruz egiten duten balorazioaren bilakaera (%)	67
35. irudia.	Gazte okupatuen batez besteko soldataren bilakaera, adin taldeen arabera (€)	68
36. irudia.	Enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuaren bilakaera 16 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, adin taldeen arabera (%)	69

37. irudia. Lanarekiko poztasunaren bilakaera 16 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen artean, adin taldeen arabera (%)	70
38. irudia. Langabezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera (%)	73
39. irudia. Langabezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, adin horretako gazte guztiekiko. EA Eren eta Europar Batasunaren arteko konparazioa, 2015ean (%)	74
40. irudia. Langabezian dauden gazteen ikasketa-mailaren eta 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien batezbestekoaren arteko konparazioa (%)	75
41. irudia. Langabezian dauden eta langabezia-prestazioa jasotzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera, adin horretan langabezian dauden gazte guztiekiko (%)	76
42. irudia. 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeek lanik gabe daramaten denbora (%)	77
43. irudia. 16 eta 34 urte bitarteko gazte langabeak, adin taldeen arabera (%)	79
44. irudia. Prestakuntza-ikastaroren bat egiten ari diren 16 eta 34 urte bitarteko langabeen bilakaera, adin taldeen arabera (%)	80
45. irudia. Langabezian izan eta langabezia-prestazioa jasotzen duten 16 eta 34 urte bitarteko gazteen bilakaera, adin horretan lanik gabe dauden gazte guztiekiko, adin taldeen arabera (%)	81
46. irudia. Langabezian urtebete baino gehiago daramaten 16 eta 34 urte bitarteko gazteen bilakaera beren adineko gazte guztiekiko, adin taldeen arabera (%)	82
47. irudia. Lan bila ari diren 30 eta 34 urte bitarteko gazteak, bilaketaren batez besteko denbora eta epe motzean lana aurkitzeko duten itxaropena (%)	83
48. irudia. Ikastea okupazio nagusi dutenen ehuneko-bilakaera, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)	85
49. irudia. Ikasleen ehunekoa, adin taldeka (%)	86
50. irudia. 16 eta 29 urte bitarteko ikasleen banaketa, gaur egun ikasten dutenaren arabera (%)	87
51. irudia. Prestakuntza-zikloak (erdi- edo goi-mailakoak) amaitu dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gizonen eta emakumeen bilakaera (%)	88
52. irudia. Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, beren okupazio nagusiaren arabera (%)	93
53. irudia. Lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen bilakaera, beren okupazio nagusiaren arabera (%)	94
54. irudia. Lan bila emandako denboraren eta epe motzean lana aurkitzeko konfiantzaren bilakaera lan bila ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteengan (%)	96
55. irudia. Lan-bilaketaren gaineko hainbat alderditan 30 urtetik gorako eta beherako arteko konparazioa	97
56. irudia. Lan-bilaketaren gaineko alderdien bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko artean.	97

57. irudia.	16 eta 29 urte bitartekoek autoenpleguan duten eskarmentua eta autoenplegurako duten jarrera, okupazio nagusiaren arabera (%)	100
58. irudia.	Beren lan-aurreikuspenen murrizketak onartuko lituzketen 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren arabera (%)	104
59. irudia.	Lan interesgarri bat eskainiz gero, bizilekuz aldatzeko prestasuna ageri duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteak, okupazio nagusiaren arabera (%)	105
60. irudia.	Lan interesgarriren bat eskainiz gero, 16 eta 29 urte bitarteko gazteek bizilekuz aldatzeko ageri duten prestasunaren bilakaera (%)	106
61. irudia.	Atzerrian lan egiteko probabilitatea 16 eta 29 urte bitarteko gazteen iritzian, adin taldeen eta aurretiaz atzerrian izandako lan-eskarmentuaren arabera (%)	107
62. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteek atzerrian lan egiteko azaltzen duten gogoia, adin taldeen eta aurretiaz atzerrian izandako lan-eskarmentuaren arabera (%)	108
63. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen sailkapena, balizko atzerri-emigrazioari erreparatuta (%)	109
64. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta balizko atzerri-emigrazioaren arteko loturari dagokion sailkapena, aurretiaz atzerrian izandako lan-eskarmentuaren arabera (%)	111
65. irudia.	16 eta 29 urte bitarteko gazteen sailkapenaren bilakaera, balizko atzerri-emigrazioari erreparatuta (%)	111
66. irudia.	Autoenpleguan izandako eskarmentua eta autoenplegurako jarrera. 16 eta 29 urte bitartekoen eta 30 eta 34 urte bitartekoen arteko konparazioa (%)	112
67. irudia.	Autoenpleguan izandako eskarmentuaren eta autoenplegurako jarreraren bilakaera 30 eta 34 urte bitartekoen artean (%)	113
68. irudia.	Beren lan-aurreikuspenen zenbait jaitziera lekarketen enpleguak onartzeko prestasunaren konparazioa, 16 eta 29 urte bitartekoen eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean (%)	114
69. irudia.	Beren lan-aurreikuspenen zenbait jaitziera lekarketen enpleguak onartzeko prestasunaren bilakaera 30 eta 34 urte bitartekoen artean (%)	115
70. irudia.	Lan interesgarri bat eskainiz gero, bizilekuz aldatzeko prestasunaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean (%)	117
71. irudia.	Etorkizunean atzerrian lan egiteko hautematen den probabilitatea eta horretarako gogoia. 30 urtetik gorako eta beherako arteko konparazioa (%)	118
72. irudia.	Balizko atzerri-emigrazioaren arabera sailkapena. 30 urtetik gorako eta beherako arteko konparazioa (%)	119
73. irudia.	30 eta 34 urte bitarteko gazteek balizko atzerri-emigrazioarekiko ageri duten sailkapenaren bilakaera (%)	119



